

**AGINDUA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUARENA,
EUSKADIKO TURISMOAREN LEGE-AURREPROIEKTUA ALDEZ AURRETIK ONARTZEN
DUENA**

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikuluan 1. apartatuak honako hau xedatzen du: «Xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman beharko die, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik».

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2026ko otsailaren 9ko Aginduaren bidez, Euskadiko Turismoaren Legearen aurreproiektua egiteko prozedura hastea erabaki zen.

Horrenbestez, lege-aurreproiektuaren testua egin ondoren, eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, aldez aurreko onarpena eman behar zaio dekretu-proiektuari, dagozkion entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikuluan 2. apartatua aplikatuz, arau-proiektuaren testu elebiduna eransteaz gain, arau-eraginari buruzko memoriaren 3. apartatua eta 5. apartatua aurreikusitako dokumentuak erantsi dira.

Azaldutakoaren arabera,

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.- Aldez aurreko onarpena ematea Euskadiko Turismoaren Legearen aurreproiektuaren testuari (eranskin gisa erantsi da).

BIGARRENA.- Aldez aurreko onarpenaren agindu hau eta arau-proiektuaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Lege-aurreproiektuaren prozedura izapidetzen jarraitzeko agintzea, hasteko agindua eta ekainaren 30eko 6/2022 Legearen ezarritako izapideen arabera. Vitoria-Gasteiz, sinaduran ageri den egunean.

JAVIER HURTADO DOMINGUEZ

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua

Donostia-San Sebastián, 1, Lakua 1 – 8ª 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel: 945 019 984– Fax : 945 019 931– e-mail: secretaria.turismo@euskadi.eus



ERANSKINA

XX/XXXX LEGEA, XXX(e)koa, Euskadiko Turismoarena

ZIOEN AZALPENA

I

Azken hamarkadetan, Euskadik eraldaketa sakona izan du turismo-helmuga gisa. Horren ondorioz, turismoa motor ekonomiko eta sozial gisa finkatu da, ekoizpen-sarea dibertsifikatzeko gaitasunarekin, eta aberastasuna nahiz kalitatezko enplegua sortu ditu.

Eraldaketa horrekin, areagotu egin da bisitarien kopurua, eta aldatu egin da turismoa ulertzeko eta kudeatzeko modua, ikuspegi berriak, eskari berriak eta sektorearen profesionalizazio handiagoa iritsi baitira.

Aldi berean, turismoak dimentsio sozial nabarmena du: urtero-urtero, bisitari ugarirentzat dira erakargarri gure ondare komunaren eta bizimoduaren parte diren aktiboak, hala nola paisaia, historia, kultura, hizkuntza eta ohiturak. Turismoaren eragina ez da mugatzen hertsiki turismo-sektorekoak diren enpresen edo sektoreen eremura; aitzitik, beste ekoizpen-eremu batzuetara ere hedatzen da, eta horrek sendotu egiten ditu enpresa-sare osoa eta gizartea bera.

Horrenbestez, ekonomikoa eta soziala den dimentsio bikoitz horrek ezarri behar du turismo-politikaren ibilbide-orria. Ulertu behar da, beraz, aktibo horiek kontserbatzea eta zaintzea betebeharrak bat dela erakundeentzat, eta, aldi berean, ezinbesteko baldintza ere badela, sektorearen jasangarritasuna bermatzeko. Gaur egun, aurreikusi eta saihestu egin behar dira turismo-jarduerak gure baliabideetan eta tokiko komunitateen bizi-kalitatean sortu ditzakeen inpaktu negatiboak.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-politikak helburu hau izan behar du: turismo-eredu jasangarri bat bermatzea eta indartzea, baliabideak babesteko eta sektorearen erronka berrietara egokitzeko gai izango dena. Hori lortzeko, erantzuna eman behar die azken urteotan gertatu diren aldaketa sakonei: kontsumo-modu eta negozio-eredu berriei, iraultza digitaletik eratorritako plataforma teknologiko handien etorrerari, eta klima-aldaketaren eta haren ondorio ekonomiko eta sozialen kontzientziak markatutako ingurumen-paradigma berri bati. Azken batean, jarduera ekonomikoa gizarte-ongizatearekin eta ingurunearen babesarekin harmonizatzea da kontua.

Horregatik, turismo-ereduak jasangarritasunerantz jo behar du, haren hiru alderdietan: ingurumena, gizartea eta ekonomia. NBE Turismoak honela definitzen du turismo jasangarria: bisitarien, industriaren, ingurunearen eta komunitate anfitrioiaren premiak asetzeari begira, egungo eta etorkizuneko ondorioak (ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak) kontuan hartzen dituen turismoa. Turismoak bat etorri behar du 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin; beraz, maximizatu egin behar du sektorearen ekarpen sozioekonomikoa, eta minimizatu egin behar ditu inpaktu negatiboak.

Jasangarritasun ekonomikoaren helburua oparotasun sendo eta iraunkorra lortzea da, turismoa ez dadin hain kaltebera izan krisien aurrean, eta gai izan dadin jarduerari urte osoan zehar eusteko, tokiko komunitateei mesede eginez eta helmugaren etorkizuneko lehiakortasuna bermatuz.

Ingurumen-jasangarritasunak lurralde-plangintzako eta -antolamenduko neurriak eskatzen ditu, lehentasuna emanez naturaguneak eta kostaldeko guneak kontserbatzeko, eta ingurune naturala zentzuz eta arduraz erabiltzea sustatuz.

Azkenik, gizarte-jasangarritasunak sektoreko langileen ongizatean eta tokiko biztanleen bizi-kalitatean jarri behar du arreta.

II

Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du turismoaren arloan, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.36 artikuluan xedatutakoaren arabera. Hori horrela, legegintza-, betearazpen- eta kudeaketa-ahalmen osoa du bere lurraldean turismoaren antolamenduari, plangintzari, diziplinari eta sustapenari dagozkien alderdi guztietan.

Turismoaren uztailaren 28ko 13/2016 Legeak ordeztu egin zuen indarrean zegoen legea (Euskal Autonomia Erkidegoko Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legea), eta aurrerapen nabarmena ekarri zuen Euskadiko turismo-sektorearen modernizazioan eta antolamenduan. Legearen helburu nagusia arau-esparru argi eta koherentea ezartzea zen, sektoreko dinamika berrietara egokitua, bai eta hainbat alderdi eranstea ere, hala nola ostatu-modalitate berrien araudia –bereziki erabilera turistikorako etxebizitzak eta gelak–, legez kanpoko eskaintzaren edo eskaintza klandestinoaren aurkako borroka, administrazio-prozesuen sinplifikazioa, kalitatearen bermea eta turisten babesa.

Hala ere, 13/2016 Legea onetsi zenetik, sakonki eraldatu da turismo-sektorea, bai eskariaren bilakaeraren eraginez, bai iraultza teknologikoak, digitalizazioak, klima-larrialdiak, turismo-fluxuen bilakaerak eta ustekabeko krisien efektuek bultzatuta.

Horri gehitu behar zaio Europar Batasunak 2030 Europako Turismo Agendaren bidez ezarritako esparru estrategiko berria, eredu erresiliente, berde eta digitaleranzko trantsiziora bideratutako paradigma bat konfiguratzeko duena. Esparru horrekin bat etorritik, Turismoaren eta Merkataritzaren 2030 Euskal Estrategiak mekanismoak ezartzen ditu lurraldearen garapen jasangarrirako, aktibo turistikoak indartzeko, produktu turistikoak hobetzeko, bisitariekiko arreta eta interakziorako eta eraldaketa digitalaren eta berrikuntzaren aldeko apustua egiteko.

Paradigma-aldaketaren ondorioz, jasangarritasuna ardatz egituratzaile gisa ezarri behar da Euskadiko turismo-politikan, printzipio gidari bihurtuz eta haren hiru dimentsioak (ekonomikoa, ingurumenekoa eta soziala) turismo-jarduera garatzeko funtsezko irizpidetzat hartuz. Horrenbestez, turismo-politikak bateragarria izan behar du natura- eta kultura-baliabideen kontserbazioarekin, ondarea zaintzearekin eta lurraldearen erabilera arrazionalarekin. Ingurumen-dimentsioa ezinbesteko elementua da, turismoak ekosistemetan eta natura-baliabideetan duen presioa arintzeko premiak bultzatuta. Era berean, nahitaezkoa da garapen turistikoaren sozialki ekitatiboa eta kulturalki errespetuzkoa izango dela bermatzea, jarduera ekonomikoa tokiko biztanleen bizi-kalitatearekin harmonizatuta egon dadin.

Online bitartekaritza-plataformak agertzeak eta sendotzeak nabarmen aldatu ditu turismoa merkaturatzeko ereduak. Horrek aldarazi egin du eskaintzaren eta eskariaren arteko harremana, eta iraupen laburreko ostatu-zerbitzuen hedapen esanguratsua eragin du. Hedapen horrek, arau-esparru eskasaren ondorioz, distortsio handiak eragin ditu. Azken urteotan, bai Europar Batasunak

eta bai Espainiako Gobernuak berariazko araudiak onetsi dituzte egoera horri heltzeko. Bereziki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko apirilaren 11ko (EB) 2024/1028 Erregelamenduak –iraupen laburreko estatuen alokairu-zerbitzuei buruzko datuak biltzeari eta trukatzeari buruzkoak– eta abenduaren 23ko 1312/2024 Errege Dekretuak –Errentamenduen Erregistro Bakarraren prozedura arautu eta Errentamenduen Leihatila Digital Bakarra sortzen duenak– kontrol-mekanismoak sortu dituzte, eta Erregistro Bakarraren Zenbakia lortzeko betebeharra ezartzen dute zerbitzu horiek merkaturatu ahal izateko. Beraz, lineako plataformen eta zerbitzu automatizatuen aurrean, indartu egin behar dira turisten eskubideak, araudi-estandar zorrotzagoen bidez.

Turismo-sektorea eraldaketa digitaleko prozesu bizkorrean murgilduta dago orobat, adimen artifizialak, datuen analisi aurreratuak eta turismo-kudeaketari aplikatutako beste teknologia digital batzuek bultzatuta. Teknologia funtsezko tresna da kudeaketa adimentsuago eta jasangarriago baterantz aurrera egiteko. Horrek I+G+B arloan inbertsio aktiboa egitea eskatzen du, bai eta esparru gaitzaile bat sortzea ere, soluzio teknologikoak hartu ahal izateko. Helburua izango litzateke zerbitzuak pertsonalizatzea, turismo-fluxuen kudeaketa prediktiboa egitea, eta, balio erantsi handiko produktuen bidez, eskaria urte-sasoi jakinetan ez metatzea. Digitalizazioa ez da berez helburua, helmugaren erresilientzia ekonomikoa eta jasangarritasuna bermatzeko bitarteko bat baizik.

Horrez gain, Adimen Turistikoaren Sistema sendoak ezartzeko beharra gehitu da, fluxuak modu prediktiboan kudeatzeko, esperientzia pertsonalizatzeko eta plangintza estrategikoa optimizatzeko. Administrazioak erremintak behar ditu informazio agregatua irispidean izateko, informazio hori ezinbestekoa baita turismo-helmuga adimendun gisa jarduteko eta ebidentzian oinarritutako erabakiak hartzeko, merkatuaren gorabeherak efizientziaz kudeatzuz.

Azkenik, turisten portaerak bilakaera nabarmena izan du, eta plangintza aurreratura, digitalizaziora eta balioa prezioaz gaindi bilatzera orientatu da. Egungo bidaiariek, oro har, kontzientzia handiagoa dute beren jarduerak gizartean eta ingurumenean duen eraginari dagokionez, eta sakontasun handiagoz heltzen diote informazio-prozesuari. Ohitura-aldaketa hori da etorkizuneko turismoa definitzen duen estandarra.

III

Euskadiko Turismoaren Lege honen helburua da erantzuna ematea iraultza teknologikoaren eta eskakizun sozial berrien eraginez turismo-jarduera birdefinitzen ari den eraldaketa sakonari, aldaketei aurrea hartuz eta oinarriak ezarri balio erantsia sortzen duen turismo-eredu adimendun eta dibertsifikatua ezartzeko. Era berean, turismo-eredu moderno eta erresilientearekiko konpromiso instituzionalaren adierazpena da.

Legeak funtsezko hiru zutabetan oinarritzen du Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-politika: sektorearen lehiakortasunean, baliabideen jasangarritasunean eta lurralde-kohesioan. EAEko turismo-eredua egituratzean, ardatzak dira baliabide turistikoaren arrazoizko antolamendua, eskaintzaren dibertsifikazioa, eskaria urte-sasoi jakinetan ez metatzea eta irisgarritasuna bultzatzea.

Era berean, turismo-ereduak funtsezko printzipioak jasotzen ditu, hala nola garapen jasangarria, ingurumen-babesa eta klima-aldaketaren aurkako borroka, alderdi horiek integratuz turismo-jardueraren plangintzaren, kudeaketaren eta sustapenaren maila guztietan. Helburua da

bermatzea sektorearen hazkundera bateragarria dela natura- eta kultura-ondarearen kontserbazioarekin, turismo-eskaintzaren kalitatea, irisgarritasuna eta eskubideen errespetatua (herritarrenak zein bisitarrienak) ziurtatuz.

Horrela, legeak hainbat neurri garatzen ditu, Euskadiko turismo-politikaren oinarrian dauden printzipioak sendotzera eta politika hori eraginkortasunez aplikatzeko beharrezkoak diren tresnak eguneratzera bideratuta. Esparru horretan, hainbat arlotan jaso ditu erreformak, jarduketa publikoa sektoreko errealitate berrietara egokitu ahal izateko.

Lehenik eta behin, turismo inklusiboarekiko konpromisoa indartzen da, irisgarritasuna eta aniztasun funtzional, sozial eta genero-aniztasunarekiko arreta politika turistikoaren zeharkako printzipio gisa integratuz, irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloko araudiarekin bat etorritz.

Lehenik eta behin, turismo inklusiboarekiko konpromisoa indartzen da, irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloko araudiarekin bat etorritz, honako hauek politika turistikoaren zeharkako printzipio gisa integratuta: irisgarritasuna eta aniztasun funtzionalarekiko, aniztasun sozialarekiko eta genero-aniztasunarekiko arreta.

Era berean, sendotu egiten da Administrazioen arteko lankidetzan eta gobernu-maila desberdinen arteko koordinazioan oinarritutako turismo-gobernantzako eredua, kudeaketa koherentea eta eraginkorra izango dela eta helmugaren helburu estrategikoekin bat etorriko dela bermatzeko.

Antolamenduaren eta plangintzaren arloan, legeak, baliabide turistikoak babesteari begira, elementu erabakigarritzat hartzen du klima-aldaketa, eta eguneratu egiten ditu lurralde-plangintzako tresnak, mekanismoak ezarriz turismo-garapena natura- eta kultura-ondarearen babesarekin orekatu ahal izateko. Tresna horien artean, hauek nabarmentzen dira: Euskadiko Baliabide Turistikoen Inbentarioa eta Baliabide Turistikoen Plan Sektoriala, saturatuta dauden baliabideentzako neurri espezifikoak jasotzen dituenak.

Eskubideen eta eginbeharren eremuan, zabaldu egiten dira erabiltzaileen bermeak –krisi-egoeretan batez ere–, eta eguneratu egiten da turismo-enpresei eta bitartekaritza-plataforma digitalei aplikatu beharreko araubidea, European eta Espainian berriki onetsitako araudiarekin bat etorritz.

Legeak turismo-sektoreko langileen lan-baldintzei buruzko aurreikuspenak ere jasotzen ditu, testuinguru jendetsuetan bereziki, segurtasuna, osasuna eta enpleguaren kalitatea bermatzeko.

Eraldaketa digitalaren esparruan, adimen turistikoko eta ezagutza-transferentziako sistemak sortzea bultzatzen da, joerak aztertzea, erabakiak hobeto hartzea eta helmugaren kudeaketa efizientera bideratuta. Era berean, arau-aitorpena ematen zaio Euskadiko Turismoaren Kode Etikoari, turismo-eragileen jarduketarako erreferentzia-esparru gisa.

Legeak eguneratu egiten du turismo-sustapenaren esparrua, eta aukera ematen du lurraldeko elementu bereziak nabarmentzen dituzten kanpaina espezifikoak garatzeko eta Euskadiko Turismoaren Atari Ofiziala informazio- eta zabalkunde-tresna nagusitzat konfiguratzeko.

Azkenik, modernizatu egiten da turismo-enpresen eta -zerbitzuen araubide juridikoa; izan ere, figura berriak gehitu dira, eta neurri espezifikoak ezarri dira turismo-ostatuaren erregulazio egokia bermatzeko, batez ere eremu tentsionatuetan edo urbanizaezinetan.

IV

Legeak 146 artikulua ditu, bederatzi titulutan banatuta, eta, horrez gain, lau xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ditu. Esparru sistematiko horrek aukera ematen du Euskadiko turismo-jarduerako funtsezko elementuen antolamendua, planifikazioa, sustapena eta diziiplina modu koherentean egituratzeko.

Atariko tituluak, I. kapituluak, arauaren xedea ezartzen du: sektore lehiakor eta jasangarria bultzatzea, erabiltzaileen eskubideak eta bertako herritarrekiko bizikidetzaren errespetatzen dituenak. Horrez gain, printzipio gidariak eta aplikazio-eremua zehazten ditu, sektoreko eragile publiko eta pribatu guztiak barnean hartzen dituela. II. kapituluak oinarritzko definizio batzuk jasotzen ditu, argitasun kontzeptuala bermatzeko eta interpretazio-zalantzak saihesteko.

I. tituluak turismo-politika arautzen du. I. kapituluak Administrazio publikoen eskumenak eta jarduketak zehazten ditu, eta adierazten du ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunaren irizpideen arabera jardungo dutela. Horrez gain, Euskadiren turismo-marka ofiziala sortzeko eta erabiltzeko araubidea ezartzen du, helmuga sustatzeko eta proiektatzeko tresna gisa.

II. tituluak turismo-gobernantzaren eredia ezartzen du. I. kapituluak Administrazio bakoitzaren eskumenak zehazten ditu, eta Administrazioen arteko koordinazio- eta lankidetzaren mekanismoak indartzen ditu, bai Estatuko Administrazio Orokorrekin, bai nazioarteko organismoekin eta toki-entitateekin. II. kapituluak Euskadiko turismo-sistema osatzen duten organoak eta entitateak arautzen ditu, Euskadiko Turismo Mahaiari aitortza formala ematen dio, eta Basquetour-ek eta Itourbask bulego-sareak turismo-kudeaketarako eta -informaziorako tresna gisa duten eginkizuna definitzen du.

III. titulua baliabide turistikoak eta lurralde-plangintzari buruzkoa da. I. kapituluak baliabide turistikoak arautzen ditu, garrantzi bereziko baliabideen kategoria barne, bai eta haien inbentarioa eta kontserbazio-betebeharrak ere. Gainera, klima-aldaketa baliabide turistikoak babesteko elementu erabakigarria dela adierazten du. II. kapituluak turismo-eredu jasangarri, dibertsifikatu eta irisgarri baterantz bideratzen du lurralde-plangintza, turismoa hirigintza-plangintza integratzea sustatuz eta helmugen karga-ahalmenaren moduko irizpideak kontuan hartuz. III. kapituluak Baliabide Turistikoaren Plan Sektoriala ezartzen du antolamendurako tresna nagusi gisa. Plan horrek lurralde-garapen turistikoaren eredia definitzen du, eta neurri espezifikoak jasotzen ditu saturatuta dauden baliabideetarako, Euskadiko turismo-mapa egitearekin batera.

IV. tituluak turismo-zerbitzuen eta turismo-enpresen erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak arautzen ditu. I. kapituluak funtsezko eskubideak bermatzen ditu, hala nola informazio argia ematea, abusuzko praktiken aurrean babestea, irisgarritasun izatea eta krisi-egoeretan arreta ematea. Horrez gain, ondarea, ingurunea eta bizikidetzaren arauak errespetatzeari lotutako eginbeharrak ezartzen ditu. II. kapituluak turismo-enpresen betebeharrak ezartzen ditu, barnean hartuz erantzukizunpeko adierazpena, erregistroko inskripzioa, erantzukizun zibila, zerbitzuaren kalitatea, irisgarritasuna eta diskriminazio-debekua. Horrez gain, berriazko neurriak jasotzen ditu gainerreserba saihesteko eta erabiltzaileei egokitutako alternatibak bermatzeko. III. kapituluak

iraupen laburreko alokairuko plataforma digitalen betebeharrak arautzen ditu, eta aurreikuspenak ezartzen ditu turismo-zerbitzuetan adimen artifizialaren erabilera etiko eta gardenari buruz, inpaktu-ebaluazioak eta gardentasun-auditoriak exijituz.

V. tituluak Euskadiko turismo-garapenerako eremu estrategiko bat jorratzen du: lehiakortasuna hobetzea. Eraldaketa digitalak, erabiltzaileen eskakizun gero eta handiagoak eta turismo-eredu jasangarri bat sendotzeko premiak markatutako testuinguruan, titulu honek politika publikoen multzo bat artikulatzen du, sektoreak balio erantsiko produktu eta zerbitzuak sortzeko duen gaitasuna indartzeko eta Euskadi helmuga erakargarri eta bereizi gisa kokatzeko.

I. kapitulua turismo-lehiakortasuna sustatzeari eta hobetzeari buruzkoa da, eta turismo-eskaintza modernizatzea errazten duten jarduerak bultzatzeko premian oinarritzen da. Horretarako, berrikuntza, digitalizazioa, lankidetzat publiko-pribatua eta jarduera ekintzailea erraztuko duen ingurune instituzionala sustatzen dira. Era berean, funtsezko egitekoa aitortzen zaie sektoreko langileen prestakuntzari eta profesionalizazioari, horretarako baliatuz prestakuntza-programa arautu, okupazional eta etengabekoak, langileen konpetentziak lan-merkatu turistikoaren egungo eta etorkizuneko eskarierara egokitzeko aukera emango dutenak.

II. kapitulua kalitateari eta bikaintasunari buruzkoa da, eta kalitatea Euskadi destinoaren elementu bereizgarri gisa kokatzearen garrantziari erantzuten dio. Horretarako, eskumena duten agintariak gaitzen dira turismo-zerbitzu eta -produktuen etengabeko hobekuntza bultzatzeko, gutxieneko kalitate-baldintzak ezartzeko, helmuga eta produktuetan kalitate-sistemak ezar daitezen sustatzeko, jardunbide egokiak zabaltzeko eta enpresen eta profesionalen konpromisoa publikoki aitortzeko, berariazko sari eta bereizgarrien bidez.

III. kapituluan, berrikuntza gisa, jasangarritasun soziala gehitzen da turismo-sektoreko lan-harremanen eremuan. Lan-baldintza duin, bidezko eta ekitatiboak bermatzeko premiari erantzuten dio horrek, eta langileen ordezkariekin elkarriketa izatea sustatzen du. Horrekin lortu nahi da lan-ongizatea lehiakortasunaren zutabe gisa kokatzen duen turismo-eredu bat finkatzea.

IV. kapituluak berrikuntzan jartzen du arreta, eta aitortzen du eraldaketa digitala nabarmen aldatzen ari dela bidaiak planifikatzeko, eskaintzeko eta gozatzeko modua. Erronka horri aurre egiteko, garapen teknologikoa, ikerketa eta I+G+B arloa bultzatzen dira, ingurune dinamiko eta jasangarri batera egokitzeko gai diren turismo-helmuga eta enpresa adimendunetarako trantsizioa sustatuz.

V. kapituluak adimen turistikoa arautzen du, erabakiak datuetan oinarrituta hartzeko tresna estrategiko gisa ulertuta. Euskadiko adimen turistikoaren sistemak aukera emango du joerak aztertzeko, aldaketei aurrea hartzeko, online ospea monitorizatzeko eta turisten premiak hobeto ulertzeko.

Azkenik, VI. kapituluak Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa jasotzen du, turismo-eredu arduratsua, jasangarria eta inklusiboa sustatzeko erreferentzia-esparru gisa. Etika Turistikoaren Erregistro Publikoan jasotako enpresak eta profesionalak borondatez atxikitzeak indartu egiten du konpromiso kolektiboa, lurraldeko kultura- eta gizarte-balioekin bat datorren turismoarekin lerrotatuta.

VI. titulua turismo-sustapenari buruzkoa da. Turismo-sustapentzat ulertuko da turismoaren arloko sail eskudunak Euskadiko turismo-eskaintza merkatu nazionaletan eta nazioartekoetan

ezagutarazteko garatzen dituen jarduketan multzoa. Lan horren barruan sartzen da natura-, kultura-, historia-, gastronomia- eta aisialdi-baliabideei zabalkundea ematea, bai eta haiekin lotutako azpiegitura eta zerbitzuei ere, hala eskaria sortzeko nola helmugaren posizionamendua indartzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokio sustapena egitea, albo batera utzi gabe sektore pribatuaren parte-hartzea eta beste Administrazio batzuekiko lankidetzak. Esparru horretan, garrantzi berezia hartzen du Euskadiko turismoaren atari ofizialak, komunikazioko eta kanpo-proiektzioko erreminta estrategiko gisa.

VII. tituluak turismo-antolamendua arautzen du. I. kapituluak, Euskadiko turismo-jarduera arautzen duten printzipioak ezartzen dira, zerbitzuak emateko eta kokatzeko askatasuna bermatuz, erantzukizunpeko adierazpenaren edo, hala badagokio, gaikuntza espezifikaren mende. Interes orokorreko premiazko arrazoiengatik justifikatutako murrizketak ezartzeko aukera aurreikusten da, betiere proportzionaltasunaren eta diskriminaziorik ezaren irizpideen arabera. Era berean, arautzen da beste autonomia-erkidegoetako edo Europar Batasuneko beste estatu kideetako zerbitzu-emateak jarduerarako sarbidea izango dutela, eta gutxienezko eskakizunak betetzeari buruzko aurretiazko hautazko txostena jasotzen da, ebaluazio teknikorako borondatezko erreminta gisa. Kapitulua horretan zehazten dira, halaber, administrazio-egiaztapenaren, datuen aldatetaren, jarduera-uztearen eta legez kanpoko eskaintzaren aurkako neurrien araubidea, eta administrazio-zalutasuna eta legezkotasun- eta segurtasun-bermeak konbinatzen dituen eredu bat konfiguratzeko da.

Titulu bereko II. kapituluak Euskadiko Turismo Enpresa eta Establezimenduen Erregistroa arautzen du. Publikoa eta administratiboa da erregistro hori, eta nahitaezkoa da bertan inskribatzea. Araudiak bertan inskribatzeko, aldatzeko eta ezerezteko prozedurak ezartzen ditu, baita ondorio juridikoak ere, eta gardentasuna, trazabilitatea eta sektoreko segurtasun juridikoa bermatzen ditu.

VIII. tituluak turismo-establezimenduak eta turismo-zerbitzuak ematen dituzten enpresak arautzen ditu. I. kapituluak, xedapen orokor aplikagarriak jasotzen dira; besteak beste, ustiapen-batasuna, egiturazko printzipio gisa; prezioei buruzko informazio egiazkoa eta eskuragarria emateko betebeharrak; eta erantzukizun zibileko aseguru bat izateko eskakizuna. Halaber, salbuespenezko dispentsak emateko aukera aurreikusten da, behar bezala justifikatutako arrazoi teknikoak edo ondare-arrazoiak daudenean.

II. kapituluak enpresa turistikoaren eta establezimendu turistikoaren arteko bereizketa argia egiten du, eta sartzeko eta egoteko baldintzak arautzen ditu.

III. kapituluak turismo-zerbitzuak ematen dituzten enpresen sailkapena ezartzen du, eta EAEko legerian sartzen du turismo-erabilerako etxebizitzak kudeatzen dituzten enpresen figura, eta ezartzen du zer kasutan hartuko den jarduera ohikotasunez egiten den jardueratzat.

IV. kapituluak turismo-ostatuaren zerbitzuak eta haien tipologia arautzen ditu. Horren barruan sartzen dira hotel-establezimenduak, apartamentu turistikoak, kanpinak, landa-ostatuak, aterpetxeak, etxebizitza-ibilgailuen harrera-eremuak eta ostatu bereziak. Legeak debekatu egiten du, bestalde, kanpaldi librea. Nabarmentzekoa da erabilerak turistikorako etxebizitzaren eta gelen erregulazioa, berariazko mugak ezartzen baititu alde horretatik: debekatu egiten du etxebizitza babestuak horretarako erabiltzea, baimen berriak automatikoki etengo dira tentsionatutzat deklaraturako eremuetan, eta ezin izango da halako eskaintzarik ezarri bizitegi bestelako

lurzoruetan. Ikasle-egoitzek noizbehinka ostatu turistikoko jarduerak betetzeko aukera ere jasotzen da, betiere hirigintza-araudiak horretarako aukera ematen badu.

V. kapituluak enpresa turistikoaren eta establezimendu turistikoaren arteko bereizketa argia egiten du, eta sartzeko eta egoteko baldintzak arautzen ditu.

VI. kapituluak turismo-zerbitzuak ematen dituzten enpresen sailkapena ezartzen du, eta EAEko legerian sartzen du turismo-erabilerako etxebizitzak kudeatzen dituzten enpresen figura, eta ezartzen du zer kasutan hartuko den jarduera ohikotasunez egiten den jardueratzat. IV. kapituluak turismo-ostatuaren zerbitzuak eta haien tipologiak arautzen ditu. Horren barruan sartzen dira hotel-establezimenduak, apartamentu turistikoak, kanpinak, landa-ostatuak, aterpetxeak, etxebizitza-ibilgailuen harrera-eremuak eta ostatu bereziak. Legeak debekatu egiten du, bestalde, kanpaldi librea. Nabarmentzekoa da erabilera turistikorako etxebizitzak eta gelen erregulazioa, berariazko mugak ezartzen baititu alde horretatik: debekatu egiten du etxebizitza babestuak horretarako erabiltzea, baimen berriak automatikoki etengo dira tentsionatutzat deklaraturako eremuetan, eta ezin izango da halako eskaintzarik ezarri bizitegiz bestelako lurzoruetan. Ikasle-egoitzek noizbehinka ostatu turistikoko jarduerak betetzeko aukera ere jasotzen da, betiere hirigintza-araudiak horretarako aukera ematen badu.

VII. kapituluak turismo-erabilerako etxebizitzak kudeatzen dituzten enpresen funtzionamendu-araubidea definitzen eta ezartzen du. Argitzen du enpresa kudeatzaile horiek etxebizitzetan egiten den turismo-jardueraren titular izango direla, jarduera hori osorik kudeatzen baitute, hura erabiltzeko eskubidearen titularren izenean eta hura ordezkatzuz. Azkenik, haien establezimenduei dagozkien betebeharrak garatzen ditu, erabiltzaileei aurrez aurreko edo telefono bidezko arreta emateko.

VIII. kapituluak turismo-gidarien figura profesionala arautzen du, haiek gaitzeko, prestatzeko eta jarduteko eskakizunak ezartzen ditu, eta ondarearen interpretazioan eta turismo-esperientziaren kalitatean duten zeregina nabarmentzen du.

Azkenik, IX. kapitulan, lurraldea dinamizatzeko eta eskaintza dibertsifikatzeko gaitasunagatik turismo-interesekotzat deklaratu daitezkeen jarduera osagarriak identifikatzen dira –hala nola jatetxeak, garraioa, kultura edo aisia–, halakoak aitortzeko eta sustatzeko esparru bat ezarri.

IX. tituluak turismoaren arloko ikuskaritza-ahala eta zehapen-araubidea arautzen ditu, eta esparru bat eratzen du araudia benetan betetzen dela eta erabiltzaileen eskubideak babesten direla bermatzeko. I. kapituluak ikuskaritza-ahalaren printzipio orokorrak, arau-hausteen tipifikazioa eta aplikatu beharreko zehapenen zehaztapena ezartzen ditu, bai eta zehapen-prozeduraren oinarriak ere.

II. kapituluak turismo ikuskaritza garatzen du. Ikuskaritza hori Eusko Jaurlaritzan turismoaren arloan eskumena duen sailak dauka esleitura, eta legean ezarritako betebeharrak betetzen direla egiaztatzeaz eta zaintzeaz arduratzen da. Urtero turismo ikuskaritzarako plan bat onartzea aurreikusten da, eta ikuskatzaileen funtzioak definitzen dira: besteak beste, arau-haustea dakarten gertakariak egiaztatzea, txostenak egitea, aktak izapidetzea eta behin-behineko neurriak hartzea erabiltzaileen osasunerako edo segurtasunerako arriskutsuak diren egoeretan. Era berean, haien ahalmenak ezartzen dira –hala nola establezimendu eta ingurune digitaletarako sarbidea, egiaztapen materialak egitea edo agerraldiak eskatzea–, bai eta haien eskubideak eta betebeharrak ere, haien independentzia, profesionaltasuna eta agintaritza-agente izaera

bermatuz. Turismo-enpresa eta -establezimenduen titularrek ikuskapenean laguntzeko betebeharra dute.

III. kapituluak arau-hauste administratiboak tipifikatzen ditu (arinak, astunak eta oso astunak) eta arau-hauste horien erantzuleak zehazten ditu. IV. kapituluan, zehapenak eta zehapen osagarriak arautzen dira, zeinak ohartarazpena edo isuna izan daitezkeen, bai eta neurri gehigarriak ere, hala nola jarduera aldi baterako etetea edo ixtea, gaikuntzak errebokatzea, laguntzak galtzea edo itzultzea, eta dirulaguntza berriak eskatzeko aldi baterako desgaitzea. Berritasun gisa, publizitate-zehapen gehigarria erantsi da, arau-hauste astunen eta oso astunen kasuetan. Zehapenak bateragarriak dira aldatutako egoera lehengoratzeko eta kalte-galeren ordaina emateko betebeharrekin. Proportzionaltasun-irizpideak eta kasu bakoitzeko inguruabarrak kontuan hartuta mailakatuko dira. Gainera, ez-betetze iraunkorren aurrean, hertsapen-isunak jartzea aurreikusten da.

V. kapituluak zehapen-prozedura arautzen du, zeina ofizioz edo alderdi batek eskatuta hasi ahal izango den. Aurretiazko jarduketak egiteko eta prozedura formalki hasteko aukera aurreikusten da, bai eta prozedura aurretiaz amaitzeko ere, erantzukizuna aitortzean edo ordainketa borondatez egitean –bi kasu horietan, murriztu egiten da zehapenaren zenbatekoa–. Prozedura iraungi egingo da, ebazpena sei hilabeteko epean jakinarazten ez bada. Halaber, organo eskudunak behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu azken ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko.

Testua osatzeko, lau xedapen gehigarri daude, honako hauek aurreikusteko: zehapenen zenbatekoak eguneratzea, ostatu-figura berriak etorkizunean erregulatzea, gatazkak judizioz kanpo konpontzeko mekanismoak ezartzea, eta zehapenak Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan inskribatzea.

Era berean, hiru xedapen iragankor jasotzen dira. Legea indarrean jartzean izapidetzen ari diren zehapen-prozedurei eta jarduera hasteko prozedurei aplikatu beharreko araubidea arautzen dute, bai eta indarrean dagoen erregelamendu-araudia behin-behinean aplikatzea ere.

Xedapen indargabetzaile bakarrak indarrrik gabe uzten ditu uztailaren 28ko 13/2016 Legea eta erregulazio berriaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko beste arau batzuk.

Bukatzeko, bi azken xedapenek garapen-arauak emateko ahalmena ematen diote eskumena duen sailari, eta ezartzen dute legea indarrean jarriko dela Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogeit hamar egunera.

ATARIKO TITULUA

Xedapen orokorrak

I. KAPITULUA

Xedea, printzipio gidariak eta aplikazio-eremua

1. artikulua.– Xedea.

1.- Lege honen xedea da Euskadiko turismo-jardueraren antolamenduari, plangintzari, sustapenari eta diziplinari buruzko esparru juridikoa ezartzea, sektore lehiakor eta jasangarria bultzatzeko eta, hala, garapen ekonomikoa eta gizarte-kohesioa sendotzeko, betiere bertako baliabideen babesa, turismo-zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak eta egoiliarrekiko bizikidetza bermatuz, eta bertako kultura, balioak eta bizi-kalitatea errespetatuz.

2.- Legearen helburuak hauek dira:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoa erreferentziako turismo-helmuga gisa sustatzea, bereizgarria izan dadin bere baliabideen kalitate eta aniztasunagatik eta bertako eragile guztiek turismo-eredu etiko eta arduratsuekin duten konpromisoagatik.
- b) Turismo-sektore lehiakorra sustatzea, lurralde osoaren garapen ekonomikoa eta gizarte-kohesioa bultzatuko duena, eta berrikuntza eta negozio-eredu jasangarri berrien garatzen lagunduko duena.
- c) Baliabide turistikoak modu integralean antolatzea eta planifikatzea, baliabide horiek modu efizientearen kudeatuz, eta haien kontserbazioa, zaintza eta erabilera arduratsua bermatzea, degradazioa edo suntsipena saihestuz.
- d) Legez kanpoko eskaintza eta lehia desleiala ezabatzeko jarduketak eta neurriak bultzatzea.
- e) Turismo-zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak bermatzea eta babestea.
- f) Administrazio publikoen eta turismo-sektoreko eragileen arteko lankidetzak eta koordinazioa sustatzea, turismo-garapen eraginkorra lortzeko.
- g) Tokiko tradizioak eta kultura balioan jartzea, turismo-eskaintzaren elementu bereizgarri gisa.
- h) Lurraldeko eragile guztiak lerrokatzea, denen artean eraikiko den turismo-eredua etikoa, arduratsua, irisgarria, inklusiboa eta tolerantzia izan dadin, eta dibertsitatea, kultura eta ingurumena errespetatuz.
- i) Turismo-sektorean ingurumen-jasangarritasuna eta klima-aldaketaren aurkako borroka bultzatzea.

2. artikulua.– Printzipio gidariak.

1. artikuluan ezarritako helburuak printzipio gidari hauetan oinarritzen dira:

a) Jasangarritasuna: garapen jasangarria sustatzen duten eta klima-aldaketa arintzeko eta haren aurrean egokitzeko jarduketei lagunduko dieten estrategiak definituz. Turisten gozamenaren eta baliabideak zaintzearen arteko oreka ahalbidetuz, hazkunde ekonomikoa eta ingurune naturala babestuz.

- b) Berrikuntza: turismoaren eskaintzan eta kudeaketan, produktu eta baliabide turistikoaren balioaren hobekuntzan, eta turismo-sektoreko eremu guztietan teknologia berriak ezartzea sustatuz.
- c) Lurralde-kohesioa: turismoa aberastasun-iturri gisa eta Euskadi osoak enplegua sortzeko iturri gisa sustatuz, bereziki gutxien ezagutzen diren eskualde edo eremuetan, eskualdeko ekonomiaren elementu dinamizatzaile gisa jardun dezan. Horretarako, deskontzentrazioa sustatuko da.
- d) Zerbitzuen kalitatea: etengabeko hobekuntza sustatuz, turistengan esperientzia ona sortuz, produktuei eta zerbitzuei buruzko informazio egokia eskainiz eta profesionalizazio handiagoa bultzatuz.
- e) Turisten eta egoiliarren arteko bizikidetza: helmugei nahiz turistei mesede egiten dieten praktika jasangarriak sustatuz.
- f) Irisgarritasuna eta inklusibitatea: politika integralak eta beharrezko neurriak bultzatuz, desgaitasuna edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen eskubideak gauzatzeko.
- g) Berdintasuna eta diskriminaziorik eza: neurri eraginkorrak ezarri edozein diskriminazio-mota prebenitu eta saihesteko –arrazaz, jatorri etnikoa, sexua, sexu-orientazioa, erlijioa, desgaitasuna, adina, hizkuntza, nazionalitatea edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozial dela-eta–, indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik.
- h) Turismo-etika: turismo-garapenaren eragile giltzarriari zuzendutako printzipio orokorren multzo baten bidez.
- i) Erresilientzia: krisiaren aurrean aurrea hartzeko, egokitze eta berreskuratzeko gaitasuna indartuz, haren funtsezko funtzioak eta garatzeko aukerak mantenduz.

3. artikulua.– Aplikazio-eremua.

Lege honetan jasotako xedapenak Euskadiko lurraldean turismo-jardueran parte hartzen duten honako eragile hauei aplikatuko zaizkie:

- a) Turismo-enpresei, haien forma juridikoa edozein dela ere.
- b) Turismoko profesionalei.
- c) Turista eta txangozaleei.
- d) Turismoaren arloan eskumenak dituzten Administrazio publikoei, bai eta haien mendeko organismo eta enpresa publikoei ere.
- e) Turismo-bitartekaritzako plataforma digitalei, egoitza soziala non daukaten kontuan hartu gabe.

II. KAPITULUA

Definizioak

4. artikulua.– Definizioak.

Dekretu honen ondorioetarako, definizio hauek hartuko dira kontuan:

- a) Turismoa: pertsonak beren ohiko bizilekutik kanpo denbora mugatu batez eta hainbat helbururekin lekualdatzea eta bertan irautea dakarren jarduera, helmugako ekonomian, gizartean eta ingurumenean inpaktuak sortzen dituen eta bisitarien, industriaren eta komunitate anfitrioiaren premiak ase nahi dituen, etorkizuneko belaunaldien gaitasuna arriskuan jarri gabe.
- b) Turismo-jarduera: Turistei eta txangozaleei hainbat zerbitzu emateko jarduera, hala nola ostatua, bitartekaritza, jatetxeak, informazioa, laguntza, bai eta turismoarekin eta antolamenduaren eta sustapenaren arloko jarduketa publikoekin zerikusia duen beste edozein zerbitzu ere.
- c) Turista: Azken hartzaile gisa, gutxienez gau bat hartzen duten turismo-zerbitzuak kontratatzen edo erabiltzen dituzten pertsona fisikoak.
- d) Txangozalea: bidaia turistikoak gaurik igaro gabe egiten dituen pertsona.
- e) Turismo-enpresak: bere izenean, ohiki eta irabaziak lortzeko asmoz, turismo-zerbitzuren bat ematera edo turismo-jarduera bat garatzera bideratzen den edozein pertsona fisiko edo juridiko, turismo-establezimendu baten ustiapena barne.
- f) Turismo-establezimendua: Jendearentzat irekitako lokal eta instalazioa, turismo-enpresek beren zerbitzuak ematen dituzten lekua.
- g) Baliabide turistikoa: Komunitate edo helmuga batean eragin ekonomikoa duten turismo-fluxuak sortu ditzakeen errealitate fisiko, geografiko, natural, sozial edo kulturalaren edozein ondasun edo adierazpen.
- h) Turismo-sustapena: Administrazio eskudunak helmuga ezagutarazten, bisitariak fidelizatzen eta turismo-produktua merkaturatzen laguntzeko egiten dituen jarduketan multzoa.
- i) Turismo jasagarria: Turismoa kudeatzeko modua, turisten eta helmuga eta komunitate hartzaileen premiak asetzeko eta, aldi berean, etorkizunerako aukerak babesteko eta hobetzeko.
- j) Turismo-bitartekaritzako plataforma digitalak: Bitarteko digitalen bidez turismo-zerbitzuak – barnean hartuz ostatuak, jarduerak edo esperientziak– merkaturatzea, sustatzea edo kontratatzea errazten duten enpresak, edukiak estekatuz edo ostatatuz, zerbitzu-emaileen eta azken erabiltzaileen arteko bitartekari gisa dihardutenak, haien egoitza soziala edozein dela ere.
- k) Turismo-sektoreko langilea: turismo-sektoreko enpresa baten antolamendu- eta zuzendaritza-eremuan besteren kontura zerbitzuak ematen dituen pertsona.
- l) Turismo inklusiboa: pertsona guztiek, beren egoera sozial, ekonomiko, fisiko edo beste edozein motatakoa edozein dela ere, turismo-jardueran bete-betean parte hartzeko aukera-berdintasuna bermatzen duen turismoa, oztopo fisikoak ez ezik, komunikaziokoak, zentzumenekoak, kognitiboak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak ere ezabatzen dituen.
- m) Helmuga adimenduna: turismo-helmuga berritzailea, abangoardiako azpiegitura teknologiko batean finkatua, turismo-lurraldearen garapen jasagarria bermatzen duena, herritar guztientzat irisgarria, turistek ingurunearekin duten interakzioa eta integrazioa errazten duena eta turistek helmugan duten esperientziaren kalitatea eta egoiliarren bizi-kalitatea hobetzen dituen.

I. TITULUA

Turismo-politika

I. KAPITULUA

Turismo-politikaren arloko jarduketak

5. artikulua.– Kontzeptua eta helburua.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-politika hau da: Administrazio publiko eskudunek turismo-jarduera antolatzeke, bultzatzeko eta kudeatzeko ezarritako printzipio eta ekintzen multzoa.

2.– Turismo-politikaren helburua hau da: turismoaren onurak bultzatzea eta izan ditzakeen inpaktu negatiboak minimizatzea, kudeaketa planifikatu eta koordinatuaren bidez.

3.– Euskadiko turismo-politikak euskal kultura-nortasuna, berezko hizkuntza eta ondare immateriala nabarmentzera zuzenduko ditu bereziki bere jarduketak.

6. artikulua.– Ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-jasangarritasuna.

1.– Turismo-politikak kontuan hartuko du jasangarritasuna bere konfigurazioan, eta turismo-eskaintzaren plangintzan eta antolamenduan txertatuko du.

2.– Turismo-politikak bermatu beharko du turismo-jarduera epe luzera bideragarria izango dela, eta minimizatu egin beharko ditu inpaktu negatiboak, turistei, egoiliarrei eta turismo-eragileei mesede egiteko.

7. artikulua.– Jarduketa-ildoak.

Lege honetan aurreikusitako xedeak, printzipio gidariak eta helburuak betetzeko, honako jarduketa-ildo hauek erabiliko dira:

- a) Turismo-sektoreak aurre egin beharreko joeren eta erronken ezagutza sakontzea, adimen turistiko aurreratu bat garatuz eta erabiliz, datuen analisia, joerei aurrea hartzea eta erabakiak hartzea hobetzeko aukera emango duena.
- b) Euskadiko baliabide eta produktu turistikoen inbentario zehatz eta eguneratua egitea, haiek hobeto kudeatzeko, zaintzeko eta kontserbatzeko.
- c) Turismo-produktuen, -zerbitzuen eta -esperientzien dibertsifikazioa sustatzea, turisten premia eta motibazio berrietara egokituta.
- d) Eskaria urte-saso jakinetan ez metatzea bultzatzea, baliabideen plangintza eta erabilera hobe ahalbidetzeko eta helmugen saturazioa arintzeko.
- e) Lurralde osoan fluxu-deskontzentrazioa bultzatzea, zenbait helmuga eta baliabideren saturazioa saihesten laguntzeko, turismoak lurraldearen gainerakoan dituen inpaktu positiboak hedatzeko, eta ekonomia garatzen, enplegua sortzen eta helmuga horietako biztanleak finkatzen laguntzeko.
- f) Turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzea, haien zerbitzuak eta instalazioak modernizatuz, zerbitzuak ematean kalitate-irizpideak orokortuz, eta konponbide teknologiko berriak eta langileen etengabeko prestakuntza sustatuz, bai eta turismo-eskaintza etengabe berritzea eta egokitzea.

- g) Itourbask turismo-bulegoen sarearen baliabideak eta gaitasuna hobetzea, turismoari buruzko informazioa, arreta eta laguntza eskaintzeko, batez ere teknologia berriak erabiliz.
- h) Turismo-sektorean irisgarritasuna sustatu eta hobetzea, azpiegitura irisgarriak sortuz, eta turismo inklusiboa bultzatzea.
- i) Turismo-sektoreko araudiaren aurkako jarduerarik baden begiratzea eta, egonez gero, zehatzea, batez ere legez kanpoko eskaintza.
- j) Sektoroko langileen lan-baldintzak defendatzea eta haien prestakuntza sustatzea, profesionalizazio handiagoa lortzeko eta kualifikazioa areagotzeko.
- k) Turismo-enpresek eta turistek jardunbide jasangarriak izan ditzaten sustatzea; besteak beste, uraren eta energiaren kontsumoa modu efizientean kudeatzea, hondakin gutxiago sortzea, hondakinei tratamendu egokia ematea, kutsadura minimizatzea eta ingurumena errespetatzen duten produktuak erabiltzea.
- l) Turismo-eskaintza sustatzeko eta merkaturatzeko ekintzak garatzea eta inplementatzea.
- m) Turismo-sektorerako garrantzitsuak diren azterlanak, estatistikak eta argitalpenak egitea.

8. artikulua.– Turismo-marka.

1.– Eusko Jaurlaritzan turismoaren arloan eskumena duen sailak Euskadiren turismo-marka ofizial bat eduki ahal izango du, baliabide eta produktu turistikoak kanpoan sustatzeko eta proiektatzeko, egokitzen jotzen dituen merkatuetan. Marka ofizial hori markaren identitate korporatiboaren eskuliburuaren arabera izango da.

2.– Euskadiko turismo-administrazioak, dagozkion koordinazio-eginkizunak betetzean eta aplikatzeko den legeriak ezarritako baldintzetan, adierazi ahal izango du nahitaezkoa dela Euskadiren turismo-marka ofiziala eta ezartzen diren logotipo eta lema erabiltzea Euskadiko turismo-administrazio eskudunek nahiz turismo-enpresek, -elkartek eta bestelako entitate pribatuek bultzatutako sustapen-kanpainetan, erabilitako formatua edozein dela ere, baldin eta turismoaren arloan eskumena duen sailaren funts publikoekin egiten badira.

3.– Behar ez bezala erabiltzeak, faltsifikatzeak edo Euskadiren turismo-marka ofizialaren ospeari kalte egin diezaioketen ekintzak egiteak dagokion zehapen-espedienteak abiarazi ahal izango du.

II. TITULUA

Turismo-gobernantza

I. KAPITULUA

Eskumenak

9. artikulua.– Turismoaren arloan eskumena duten Administrazio publikoak.

1.– Lege honen ondorioetarako, honako hauek dira turismoaren arloan eskumena duten Administrazio publikoak:

- a) Eusko Jaurlaritza, turismoaren arloan eskumena duen sailaren bitartez.
- b) Udalak.

2.– 1. apartatuan aipatutako turismo-administrazioen eskumenak merkataritza-sozietate publikoen edo Euskadiko sektore publikoaren araudian jasotako beste figura batzuen bitartez gauzatu ahal izango dira, betiere agintaritza erabiltzea ez badakarte.

10. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eskumenak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskumen hauek izango ditu besteak beste, eta turismoaren arloan eskumena duen sailaren bitartez egikaritutako ditu:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoaren turismo-politika formulatzea.
- b) Turismo-jarduera eta turismo-zerbitzuak antolatzea eta arautzea, bai eta turismo-enpresak, haien establezimenduak eta sailkapena ere.
- c) Turismo-jardueraren plangintza egitea, horretarako beharrezkoak diren tresna guztiak erabiliz, bereziki plan sektorialak.
- d) Turismo-zerbitzuetako enpresen eta erabiltzaileen eskubideak eta eginbeharrak finkatzea.
- e) Araututako turismo-lanbideetan jarduteko gaikuntza ematea.
- f) Turismo-establezimenduak ikuskatzea, bai eta zerbitzuak ematen diren baldintzak eta turismo-lanbideak egikaritzeko moduak ere, eta, oro har, turismo-araudia betetzen dela zaintzea.
- g) Euskal Autonomia Erkidegoa turismo-helmuga integral gisa sustatzea.
- h) Turismoa laguntzeko eta sustatzeko irizpideak finkatzea, baldintzak arautzea eta lerro publikoak exekutatu eta kontrolatzea.
- i) Turismo-helmugen, -enpresen eta -baliabideen berrikuntza eta modernizazio teknologikoa bultzatzea.
- j) Lege honetan jasotako gaien inguruan egin litezkeen erreklamazio, kexa eta salaketak bideratzea.
- k) Legez eratutako turismo-enpresak babestearekin eta haien jarduera intrusismoaren aurka defendatzearekin lotutako administrazio-ahalak baliatzea.
- l) Lege honetan ezarritakoaren aurka egindako arau-hausteei dagozkien zehapenak ezartzea.
- m) Turismoaren arloan lankidetzan aritzea eskumena duten beste Administrazio publiko batzuekin.
- n) Turismo-enpresen, -establezimenduen eta sortu litezkeen gainerako enregistrazioa kudeatzea.
- o) Turismoaren arloko erregelamenduak egiteko ahala baliatzea, bere eskumenen eremuan.
- p) Lege honetan edo aplikatu eta garatzeko beste arau batzuetan esleitzen zaizkion gainerako eskumenak.

11. artikulua.– Udalen eskumenak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko udalek honako eskumen hauek izango dituzte, aplikatu beharreko toki-araubideari buruzko legeriaren esparruan eta Administrazio autonomikoarekin koordinatuta:

- a) Administrazio autonomikoarekin lankidetzan aritzea.
- b) Beren baliabide turistikoak babestea eta kontserbatzea.

- c) Beren lurralde-eremuan interesgarria den turismo-jarduera sustatzea eta horri buruzko informazioa ematea.
- d) Udal-eremuko turismo-garapenerako planak onestea.
- e) Turismo-erabilerei dagokienez hiri-plangintzarako ahala baliatzea.
- f) Lege honek edo beste batek esleitzen dizkien gainerako eskumenak, toki-araubideari buruzko legerian ezarritakoaren arabera.

12. artikulua.– Administrazioen arteko harremanak.

- 1.– Turismoaren arloan eskumenak dituzten Administrazioek koordinazioko, lankidetzako, laguntzako eta elkarri informazioa emateko printzipioetara egokituko dituzte elkarren arteko harremanak, bakoitzaren eskumen-esparruak erabat errespetatuz.
- 2.– Turismoaren arloan eskumena duen sailak koordinazio- eta lankidetzak-mekanismoak ezarri ahal izango ditu Estatuko Administrazio Orokorrekin eta beste autonomia-erkidego batzuekin, turismo-garapenerako interes komunekin gaitan.
- 3.– Era berean, turismoaren arloan eskumena duen sailak kooperazioa eta lankidetzak sustatu ahal izango ditu nazioarteko entitate eta organismoekin, turismoa sustatzeko estrategiak osatzearen.
- 4.– Turismoaren arloan eskumena duen sailak toki-entitateekin lankidetzak aritzeko eta laguntza teknikoa emateko bideak ezarriko ditu, turismoaren arloan dituen eskumenak erabiltzeko.

II. KAPITULUA

Lankidetzak-organoak eta -entitateak

13. artikulua.– Organoak.

Eusko Jaurlaritzak turismoaren arloko eskumenak dituen sailaren eta hari atxikitako organoen bitartez beteko ditu turismoaren arloan dituen eginkizunak.

14. artikulua.– Basquetour – Turismoaren Euskal Agentzia.

1.– Basquetour – Turismoaren Euskal Agentzia SA, edo hura ordeztzen duen entitatea, Eusko Jaurlaritzako turismo-kudeaketarako ente publikoa da. Turismo-politika planifikatzeaz, kudeatzeaz eta betearazteaz arduratzen da, bai eta helmuga sustatzeaz eta merkaturatzeaz ere. Turismoaren arloan eskumena duen sailari atxikita dago, berezko nortasun juridikoa eta helburuak betetzeko jarduteko gaitasun osoa ditu, eta autonomia ekonomikoz hornitua dago.

2.– Helburu hauek izango ditu:

- a) Euskadi Estatuko eta nazioarteko merkatuetan sustatzeko beharrezkoak diren sustapen-, merkaturatze- eta publizitate-ekintzak gauzatzea, merkatuaren koiunturaren arabera lehentasunezkoak eta estrategikoak badira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuan turismo-arloan eskumena duen organoak agindutako foro eta toki guztietan.

b) Euskadiko turismo-sektorearen lehiakortasuna hobetzeko beharrezkoak diren ekintzak bultzatzea, abian jartzea eta gauzatzea, turismoaren arloan eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko organoak diseinatu eta planifikatuak.

15. artikulua.– Euskadiko Turismo Mahaia.

1.– Euskadiko Turismo Mahaia Eusko Jaurlaritzan turismoaren arloko eskumenak dituen sailaren turismo-gaietarako aholkularitza eta partaidetzarako kide anitzeko organoa da, organikoki hari atxikia, baina haren egitura hierarkikoan sartu gabea.

2.– Erregelamendu bidez zehaztuko dira haren osaera, antolaketa, eginkizunak eta funtzionamendu-araubidea.

16. artikulua.– Itourbask, turismo-bulegoen sarea.

1.– Itourbask, Euskadiko Turismo Informazioko Bulegoen Sarea, turismo-informazioko bulegoen sistema integratu gisa eratzen da, turismo-informazioaren kalitatea, homogeneotasuna eta irisgarritasuna bermatzeko helburuarekin, bai eta eskubideak eta betebeharrak bermatzeko ere.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren titulartasuneko turismo-informazioko bulegoek, toki-entitateen mendekoek eta beste entitate publiko batzuenek osatuko dute sarea, erregelamendu bidez ezarritako prozeduraren arabera atxikita badaude.

3.– Eusko Jaurlaritzak, turismoaren arloan eskumena duen sailaren bitartez, Itourbask turismo-informazioko bulegoen sarearen koordinazioko, funtzionamenduko, irudi korporatiboko eta kalitateko irizpideak ezarriko ditu, bai eta bulego integratuen atxikitze- eta onura-eskakizunak ere.

III. TITULUA

Baliabide turistikoak eta turismo-jardueraren lurralde-plangintza

I. KAPITULUA

Baliabide turistikoak

17. artikulua.– Garrantzi bereziko baliabide turistikoak.

1.– Garrantzi bereziko baliabide turistikoak dira beren kasa edo beste batzuekin batera turismo-fluxuak sortzeko gaitasuna dutenak eta Euskadi turismo-helmuga gisa sustatzen laguntzen dutenak.

2.– Lege honen ondorioetarako, honako hauek dira garrantzi bereziko baliabide turistikoak – zerrenda ez da itxia–:

a) Natura-baliabideak, barnean hartuz paisaiak, parke eta naturagune babestuak, hondartzak, ibaiak, formazio geologikoak eta ingurune naturaleko beste elementu batzuk:

b) Historia- eta kultura-baliabideak, barnean hartuz ondare historiko-artistikoa, kultura-intereseko ondasunak, museoak, herri-tradizioak, gastronomia, berezko hizkuntza, eta historia eta kultura islatzen dituzten beste elementu batzuk.

3.– Aplikatzekoak zaizkien lege honetako xedapenak alde batera utzi gabe, 2. apartatuan aipatutako ondasunak beren berariazko legeriaren mende egongo dira, eta haietan egiten diren turismo-jarduerek beren sektoreko babes bereziari buruzko arauak bete beharko dituzte.

4.– Erregelamendu bidez ezarriko da zer prozedura erabiliko den garrantzi bereziko baliabide turistiko izaera hartzeko.

18. artikulua.– Garrantzi bereziko baliabide turistiko adierazpena.

1.– Garrantzi bereziko baliabide turistiko izendatzen diren baliabide turistikoak Euskadiko Baliabide Turistikoen Inbentarioan txertatuko dira, lege honek eta berau garatzen duten erregelamendu-arauek xedatzen dutenarekin bat etorritz.

19. artikulua.– Euskadiko Baliabide Turistikoen Inbentarioa.

1.– Euskadiko Baliabide Turistikoen Inbentarioak helburu hauek izango ditu:

a) Turismo-sektorea ezagutzeko tresna gisa balio izatea eta Administrazioari informazio zehatza ematea turismo-jarduera planifikatzeko, programatzeko eta kontrolatzeko eskura dauden baliabideei buruz.

b) Turismoaren lurralde-plangintza eta antolamendu sektoriala, potentzial handieneko eremuak eta esku hartzeko premiak identifikatu eta haiek garatzeko eta babesteko.

c) Baliabide turistikoaren sustapena eta zabalkundea erraztea.

d) Babes- eta kontserbazio-neurriak behar dituzten baliabideak identifikatzea, epe luzera haien iraunkortasuna bermatzeko.

e) Garatu eta turismo-produktu berri bihurtu daitezkeen baliabide turistiko potentzialak identifikatzea.

2.– Euskadiko Baliabide Turistikoen Inbentarioak honako hauek jasoko ditu:

- a) Baliabidearen identifikazioa eta kokapena.
- b) Izaera (naturala, kulturala, historikoa, etab.).
- c) Titulartasuna.
- d) Babesteko eta kudeatzeko aplikatu beharreko araudia.
- e) Ezaugarri nagusiak eta haien balio turistikoa.
- f) Inbentarioan sartzeko arrazoia

20. artikulua.– Kontserbatzeko eginbeharra.

1.– Baliabide turistikoak zaintzeko eta haien iraunkortasuna bermatzeko, debekatuta dago haien kontserbazioa zuzenean edo zeharka arriskuan jartzen duen jarduera oro.

2.– Garrantzi bereziko baliabide turistikoak eta haiei lotutako jarduerak ingurumenaren eta naturaren kontserbazioaren araudiaren arabera garatuko dira, bai eta une bakoitzean indarrean dagoen kultura-ondarearen araudiaren arabera ere.

3.– Baliabide turistikoak kudeatu edo babesteko ardura duten administrazio-organismoek baliabide horiek errespetuz erabiltzea sustatu behar dute, batez ere klima-aldaketakiko kalteberak diren

baliabide turistikoak. Era berean, ikuskaritza- eta zehapen-funtzioak betetzeko betebeharra dute, eginbehar hori betetzen dela bermatzeko.

4.– Baliabide turistikoak modu jasangarrian aprobetxatu beharko dira, natura- eta kultura-ondarea kontserbatuko dela bermatuz, eta bereziki biodibertsitatea eta paisaien integritatea errespetatuz.

Itsasertzak, garrantzi bereziko baliabide turistikoa denez, aparteko babesa izango du, bereziki klima-aldaketaren ondorio gisa erator daitezkeen ondorioak arintzeko.

5.– Turismoaren arloan eskumena duten Administrazioek, lurralde- eta hirigintza-plangintzako tresnen esparruan, berariazko neurriak ezarriko dituzte baliabide turistikoak babesteko eta kontserbatzeko.

Era berean, klima-aldaketak baliabide turistikoetan dituen ondorioak eta inpaktua aurreikusi beharko dira; horretarako, berariazko neurriak ezarriko dira haiek babesteko, kontserbatzeko edo egokitzeke.

6.– Baliabide turistikoetan kalteak eragiten dituzten jarduerak berariazko legeria sektorialaren arabera edo lege honetan ezarritakoaren arabera zehatuko dira.

7.– Baliabide bakoitzaren titularra den Administrazioak plan bat prestatuko du, non hura kontserbatzeko eta modu jasangarrian erabiltzeko jarraibideak ezarriko dituen. Plan horrek baimendutako jarduerari, beharrezko azpiegiturari eta fluxuak kudeatzeko eta inpaktuak arintzeko neurriak buruzko berariazko erregulazioak jasoko ditu. Erregelamendu bidez zehaztuko dira planaren edukia eta lantzeko mekanismoa.

21. artikulua.– Baliabideen seinaleztapen turistikoa.

Turismoaren arloan eskumena duen sailak seinaleztapen turistikoaren homogeneizazioa sustatuko du, Euskadiko baliabideen irisgarritasuna eta ezagutza errazteko, arlo horretan eskumena duten beste Administrazio publiko batzuekin lankidetzan.

II. KAPITULUA

Baliabide turistikoen lurralde-eredua

22. artikulua.– Helburuak.

Baliabide turistikoen arloko lurralde-ereduak helburu hauek izango ditu:

- a) Baliabide turistikoen gozamena bateragarri egitea natura- eta kultura-ondarearen babesarekin eta hobekuntzarekin, etorkizuneko belaunaldientzat zainduko direla ziurtatuz.
- b) Baliabide turistikoen plangintza bideratzea eskaintza dibertsifikatua, irisgarria eta jasangarria lortzera, bai alderdi soziokultural eta ekonomikoan, bai ingurumenekoan.
- c) Baliabide turistikoen antolamendua lurralde- eta hirigintza-plangintzan behar bezala txertatzen dela bermatzea.

d) Lurralde- eta hirigintza-plangintzan beharrezkoak diren irizpide eta neurriak hartzea baliabide turistikoaren aprobetxamendu jasangarria bermatzeko.

e) Helmugen karga-ahalmena kontuan hartzea, ez bakarrik naturaguneetan, baita hiriguneetan ere, turisten eta txangozaleen fluxuak aintzat hartuta.

23. artikulua.– Lurralde-gidalerroak.

1.– Baliabide turistikoaren arloan, lurralde-gidalerro hauek hartuko dira kontuan:

a) Lehendik dagoen natura- eta kultura-potentziala modu jasangarrian garatzea, turismo-garapenaren eredia bat etor dadin bai natura-lurraldearen bai hiri-ingurunearen harrera-ahalmenarekin.

b) Lurralde-plangintza partzialeko lurralde-ereduan sartzea eremu funtzional bakoitzean dauden baliabide turistikoaren antolamendua.

c) Lurralde-plan partzialetatik Turismo Baliabide Turistikoaren Lurralde Plan Sektorialean jasotako aurreikuspenak behar bezala txertatzen direla koordinatzea, natura- eta kultura-baliabideak babestearekin eta antolatzearekin eta lurraldearen erabilera jasangarriarekin bateragarriak direla bermatzeko.

III. KAPITULUA

Baliabide turistikoaren plangintza eta antolamendua

24. artikulua.– Baliabide Turistikoaren Lurralde Plan Sektoriala.

1.– Euskadiko baliabide turistikoak Baliabide Turistikoaren Plan Sektorialaren bidez antolatuko dira. Plan horrek Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-garapenaren eredia definituko du, aintzat hartuta lege honen 24. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduko tresnetan eta baliabide turistikoaren arloko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan ezarritako helburuak.

2.– Euskadiko Baliabide Turistikoaren Lurralde Plan Sektorialaren helburua da esparru bat ezartzea, turismo-jardueraren garapena natura- eta kultura-ondarearen babesarekin orekatzeko, baliabide turistikoak zentzuz eta efizientziaz erabiliko direla bermatuz.

3.– Euskadiko Baliabide Turistikoaren Lurralde Plan Sektorialak Euskal Autonomia Erkidegoko turismoaren lurralde-garapenerako eredia definitu beharko du, eta honako hauek arautuko ditu:

a) Baliabide turistikoaren babesa.

b) Ingurumen-ebaluaziorako irizpideak eta turismo-jardueraren jasangarritasun-ratioak.

c) Lurralde-alderdiak eta alderdi sozioekonomiko eta kulturalak hobetzera bideratutako neurriak.

d) Lurralde- eta hirigintza-plangintzarako turismo-azpiegitura kuantifikatzeko jarraibideak.

e) Laguntza-ekipamenduak.

f) Saturazio-egoerak prebenitzeko beharrezko neurriak.

4.– Baliabide Turistikoaren Lurralde Plan Sektoriala egiteko ekimena turismoaren arloan eskumena duen sailak izango du.

25. artikulua.– Planaren edukia.

Baliabide Turistikoaren Lurralde Plan Sektorialak honako hauek jasoko ditu, gutxienez:

- a) Turismo-sektorea eta lurraldean duen potentziala diagnostikatzea eta aztertzea.
- b) Baliabide turistikoak identifikatzea eta baloratzea.
- c) Egin beharreko ekintzak zehaztea, eta haien helburuak, irismena eta espero diren emaitzak deskribatzea.
- d) Baliabide turistikoaren kudeaketa jasangarrirako irizpideak ezartzea.
- e) Sustapenerako eta merkaturatzerako neurriak.
- f) Beharrezkoak diren azpiegiturak behar bezala inplementatzeko plangintza.
- g) Jarraipenerako eta ebaluaziorako mekanismoak.

26. artikulua.– Saturatuta dauden baliabideetarako berariazko neurriak.

1.– Baliabide Turistikoaren Lurralde Plan Sektorialak saturatuta dauden baliabide turistikoetan ezarri beharreko neurriak zehaztu beharko ditu; besteak beste, honako hauek:

- a) Karga turistikoaren ahalmena aztertzea.
- b) Saturazio turistikoaren adierazleak identifikatzea.
- c) Saturazio-agertokiaren eta haien inpaktuen definizioa.
- d) Turismo-fluxuak kudeatzeko neurriak ezartzea (adibidez, sarbideak mugatzea, sarbide-tarifak, erreserba-sistemak).
- e) Natura- eta kultura-ondarea babesteko neurriak.
- f) Jarraipenerako eta ebaluaziorako mekanismoak.

IV. TITULUA

Turismo-erabiltzaileen eta turismo-enpresen eskubideak eta eginbeharrak

I. KAPITULUA

Turismo-zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak eta eginbeharrak

27. artikulua.– Eskubideak.

Turismo-zerbitzuen erabiltzaileek eskubide hauek izango dituzte, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsari eta babesari buruzko legerian xedatutakoa baztertu gabe:

- a) Kontratazioa egin aurretik, eskaintzen zaizkien turismo-ondasun eta -zerbitzuen prezioari, baldintzei eta ezaugarriei buruzko informazio egiazkoa, nahikoa eta ulergarria jasotzea.

Era berean, eskubidea izango dute erreserbak ezereztu, aldatu eta itzultzeko baldintzak zein diren jakiteko.

- b) Informazio edo publizitate engainagarriaren aurrean babestua izatea, indarrean dagoen araudiaren arabera. Babesa bermatzen da nahasgarria izan daitekeen, informazio garrantzitsua ezkutatzeko duen edo presio-taktika desegokiak erabiltzeko dituen publizitatearen aurka.

- c) Turismo-zerbitzuak jasotzea eskaintako edo kontratatutako baldintzetan. Zerbitzuek bat etorri beharko dute establezimenduaren kategoriarekin.
- d) Turismo-zerbitzuen kontratazioaren baldintzak eta ordainketa-egiaztagiriak egiaztatzen dituzten dokumentu guztiak lortzea.
- e) Publikoarentzat zabalik dauden turismo-establezimenduetara sarbidea izatea, askatasunez sartzea eta haietan egotea, muga bakarrik izanik jarduera bakoitzaren berariazko araudian eta establezimenduaren barne-araubideko arauetan ezarritakoak. Ezin izango da diskriminaziorik egin arraza, sexu, sexu-joera, erlijio, iritzi edo bestelako inguruabar pertsonal edo sozialengatik.
- f) Establezimenduaren sailkapena eta kategoria erraz ikusteko moduko leku batean izatea, bai eta kalitateari, gehieneko edukierari eta turismo-jardueraren inguruko beste edozein informaziori buruzko bereizgarriak ere.
- g) Norberaren eta beren ondasunen segurtasuna izatea, eta turismo-zerbitzuak ematen dituenarengandik informazioa jasotzea instalazioen edo zerbitzuen erabileratik erator daitekeen edozein arriskuri buruz, jardueraren eta hartutako segurtasun-neurrien izaeraren eta ezaugarrien arabera.
- h) Turismo-establezimenduetan, pertsona guztientzako, indarrean dagoen araudiaren arabera irisgarritasuna bermatuta izatea.
- i) Turismo-establezimenduetan eta turismo-bulegoetan kalitatezko turismo-informazioa eskatzea eta jasotzea.
- j) Kexak, erreklamazioak eta salaketak aurkeztea eta haiek aurkezteko prozedurari buruzko informazio eskuragarria lortzea, bitartekaritzaren eta arbitrajearen bidez gatazkak judizior kanpo konpontzeko sistema batera joateko aukera izanda.
- k) Inskripzio turistikoaren zenbakia ezagutzea, turismo-ostatuaren publizitatearen edo kontratazioaren kasuan edo etxebizitzetako egonaldi turistikoaren merkaturatzearen kasuan.
- l) Turismo-zerbitzuen emaileengandik tratatu duina, errespetuzkoa eta kortesiazkoa jasotzea.
- m) Egonaldiaz lasaitasun-giro batean gozatzea, alferrikako nahasmendurik gabe.
- n) Beren datu pertsonalak babesteko eskubidea, indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz. Datu pertsonalen bilketa turismo-zerbitzuak emateko behar-beharrezkoak direneta mugatuko da, urriaren 26ko 933/2021 Errege Dekretuan eta aplikatu beharreko gainerako araudian informazioa erregistratzeko eta komunikatzeko ezarritako betebeharrekin kalterik egin gabe. Kasu guztietan, datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta tratamendu egokia bermatuko dira.
- o) Zerbitzuak eta produktuak online plataformen edo beste edozein bitarteko elektronikoren bidez eskaintzen dituzten enpresek turismo-erabiltzaileek egiten dituzten transakzioen segurtasuna bermatu beharko dute, eta neurri tekniko eta antolamendu-neurri egokiak ezarri beharko dituzte haien datu finantzarioak eta pertsonalak baimendu gabeko sarbideen, galeren edo aldatzeen aurrean babesteko.

Bereziki, turismo-jarduerak eta -produktuak online iragartzen eta/edo merkaturatzen dituzten turismo-enpresek argi eta garbi eta modu irisgarrian informatu beharko dute beren pribatutasun-

eta segurtasun-politikei buruz, bai eta datuen babesaren arloko eskubideak baliatzeko harremanetarako bideei buruz ere. Era berean, Informazioaren Gizarteko Zerbitzuei eta Merkataritza Elektronikoa buruzko Legean ezarritakoa bete beharko dute.

p) Ordenamendu juridikoak kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesari dagokionez aitortutako gainerako eskubideak.

28. artikulua.– Krisi-egoeretan babesteko neurriak.

1.– Lege honen ondorioetarako, krisi-egoeratzat hartzen da bere handitasuna dela-eta turismo-sektorearen operatibitatean eragin larri eta zabala eragiten duen kontingentzia edo kontingentzia-multzoa.

2.– Krisi-egoeretan, turistek eskubidea dute egoerari, arriskuei eta gomendatutako segurtasun-neurriei buruzko informazio argi, zehatz eta eguneratua jasotzeko.

Komunikazio-kanal eleaniztunak ezarriko dira turistei krisiaren bilakaerari eta jarraitu beharreko ekintzei buruzko informazioa emateko.

3.– Krisi-egoeretan, turistek laguntza eta babesa jasotzen dituztela ziurtatuko da, barnean hartuz, bidaia ezereztuz utziz gero, informazio argia, zehatza eta bermeak. Kasu horietan, turismo-establezimenduek eta erabilera turistikoko etxebizitzek eta logelek informazio-kartelak izan behar dituzte osasun-agintariek osasun publikoko arrazoiengatik ezartzen dituzten neurriak zabaltzeko.

4.– Egoera horietan dituzten eskubideei buruzko informazioa jaso beharko da. Turistek eskubidea dute ezarritako bidaia-murrizketei buruzko informazio argia eta egokia jasotzeko.

29. artikulua.– Eginbeharrak.

Turismo-erabiltzaileek betebeharrak hauek izango dituzte berariaz:

a) Turismo-establezimenduen barne-araubideko arauak errespetatzea, bai eta bisitaren xede diren lekuen eta turismo-jardueren agindu eta arau bereziak betetzea ere.

b) Gizarte-bizikidetzari eta lekuetako pertsona, erakunde eta ohiturak, tradizioak eta kultura-praktikak errespetatzeari buruzko ohiko arauak betetzea, gizalegez jokatzuz, beste turista edo egoiliar batzuen lasaitasuna edo segurtasuna nahas dezaketen jokabideak saihestuz.

c) Ostatu-zerbitzu turistikoetan, establezimenduan itundutako irteera-data eta -ordua errespetatzea, eta jabeen erkidegoen zerbitzu eta espazio komunak behar bezala erabiltzea jabetza horizontaleko araubidearen mendeko eraikinetan.

d) Kontratututako zerbitzuak ordaintzea faktura aurkezten den unean edo itundutako epean; erreklamaziorik aurkezteak ez dakar ordaintzeko salbuespenik.

e) Turismo-enpresen establezimenduak, instalazioak eta ekipamenduak errespetatzea, eta turismo-jardueran lan egiten duten pertsonak errespetuz eta duintasunez tratatzea.

f) Ingurumen-ingurunea eta naturaren kontserbazio-ingurunea, ondare historiko eta kulturala eta baliabide baliabideak errespetatzea.

g) Erreserba-araubidea betetzea, aplikatu beharreko araudian xedatutakoaren arabera.

h) Turismo-establezimenduak behar bezala erabiltzeko emandako bizikidetza- eta higiene-arauak betetzea.

i) Turismo-zerbitzuen emaileekin egiten dituzten kontratuen terminoak eta baldintzak betetzea.

j) Turismo-zerbitzuen emaileei eta agintariei informazio egiazkoa eta osoa ematea, beharrezkoa denean, identifikazio pertsonala, harremanetarako datuak eta beste edozein informazio garrantzitsu barne.

II. KAPITULUA

Turismo-enpresen eskubideak eta eginbeharrak

30. artikulua.– Turismo-enpresen eskubideak.

Lege honen ondorioetarako, eta aplikatu beharreko beste xedapen batzuetan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe, Euskadin turismo-zerbitzuak ematen dituzten enpresek honako eskubide hauek izango dituzte:

a) Beren jarduera askatasunez gauzatzea, aplikatu beharreko araudia errespetatuz.

b) Turismoaren arloan eskumena duten organoen eskutik beharrezkoa den informazioa jasotzea, jarduerari ekin aurretik eta jardueran zehar, turismo-araudian zehaztutako eskakizunak betetzeari buruz. Eskubide horren barruan sartzen dira, batetik, jarduerarako eta jardueran aritzeko sarbidea izateko beharrezkoak diren prozedurei buruzko informazioa telematikoki eskuratzeko aukera, eta, bestetik, horretarako nahitaezkoak diren izapideak egiteko aukera, legeak ezarritako moduan.

c) Euskadiko Turismo Mahaian ordezkaritza handiena duten elkarten bitartez ordezkaturatuta egotea.

d) Turismo-administrazio eskudunaren aitortzea beren titulartasuneko establezimenduen administrazio-sailkapenean, eskatzen diren lege-eskakizunak bete ondoren.

e) Turismo-administrazioak sektorea garatzeko sustatutako dirulaguntzak, laguntzak eta pizgarriak eskatzea.

f) Sarrera ukatzeko eskubidea baliatzea jarduerari buruzko araudi espezifikoren arabera eta, hala badagokio, establezimenduaren barne-araubidearen erregelamenduaren arabera. Horretarako, eskainitako zerbitzuak erabiltzeko arau batzuk ezarri ahal izango dituzte, betiere zerbitzu horiek indarrean dagoen legeriaren aurkakoak ez badira eta publikoaren eskura badaude.

g) Emandako zerbitzuengatik diru-sarrerak jasotzeko eskubidea.

h) Beren zerbitzuak sustatzea eta merkaturatzea egokituz jotzen dituzten kanalen bidez, betiere aplikatu beharreko araudia betetzen badute.

i) Beharrezko neurriak hartzea –hala badagokio, agintariak lagunduta–, bezeroek turismo-establezimenduen barne-jokabideko arauak errespetatu ditzaten.

31. artikulua.– Turismo-enpresen eginbeharrak.

a) Euskadiko turismo-administrazio eskudunari erantzukizunpeko adierazpenak eta komunikazioak aurkeztea, eta lege honetan edo beste arau batzuetan xedatutakoaren arabera

jarduera gauzatu, garatu, aldatu eta bertan behera uzteko beharrezkoak diren informazioa eta dokumentazioa ematea.

b) Turismo-jarduerak merkaturatzeko ekintza orotan –euskarri fisikoan edo kanal digitalaren bidez egina izan–, dagokion Erregistroko inskripzio-zenbakia sartzea.

c) Turismo-enpresen eta -establezimenduen sailkapenaren arabera nahitaez eman behar dituzten zerbitzuak ematea, eskainitako edo itundutako baldintzetan.

d) Bezeroei informazio argia, egiazkoa, eskuragarria eta osoa ematea eskaintzen dituzten zerbitzuei buruz –barnean hartuz azken prezio osoak, zergak, tasak eta beste edozein kargu gehigarri, dagozkion banakapenak zehaztuz–, onartzen dituzten ordainketa-moduei buruz, eta erabiltzaileak kontratua bertan behera uzteko, aldatzeko eta atzera egiteko baldintzei buruz, zigor posibleak barne.

e) Turismo-zerbitzuen erabiltzaileak eskaintzen diren zerbitzuen prezio-zerrenda eskura duela jakinaraztea, labur eta erraz ulertzeko moduan.

f) Erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatzea eta indarrean eta eguneratuta edukitzea, edota turismo-araudiaren arabera nahitaez estali behar diren arrisku zuzen eta zehatzetarako beste berme batzuk.

g) Eskainitako zerbitzuak kalitate-, segurtasun- eta osasun-baldintza onenetan ematen direla bermatzea, indarrean dagoen araudiaren arabera. Elikadura- eta osasun-segurtasuna, istripuen prebentzioa eta indarrean dagoen araudiaren araberrako irisgarritasuna bermatu beharko dira bereziki.

h) Establezimenduko gelen egoera orokorra eta instalazioen eta zerbitzuen mantentzea zaintzea, aldizkako jarraipen teknikoaren bidez, eta turismo-zerbitzuen erabiltzaileei zerbitzuak ematearen edo instalazioak erabiltzearen ondorioz gerta daitekeen arrisku ororen berri ematea, bai eta hartutako segurtasun-neurrien berri ere, bezeroei tratu egokia ematea bermatuz.

i) Zerbitzuak xehetasunez fakturatzea, eskainitako edo itundutako prezioen arabera.

j) Erraz ikusteko moduko leku batean erakustea establezimenduaren sailkapena eta kategoria egiaztatzen dituzten bereizgarriak, bai eta jarduerari buruzko kalitatearen, irisgarritasunaren, jasangarritasunaren eta beste edozein informazioaren ziguiluak edo bikaintasun-markak ere, dagokion araudian ezarritakoaren arabera.

k) Erreserba-araubidea betetzea, aplikatu beharreko arauetan ezarritakoaren arabera, bai eta aplikatu beharreko onarpen-araubidearen berri ematea ere.

l) Zerbitzuak pertsona desgaituentzat irisgarriak direla bermatzea.

m) Kexen eta erreklamazioen orri ofizialak turismo-zerbitzuen erabiltzaileen eskura izatea eta eskatzean ematea, eta erreklamazio-mekanismo eraginkor bat eskaintzea.

n) Lankidetzan aritzea ikuskaritzaren, zaintzaren eta kontrolaren arloan eskumena duten agintariekin, eta eskatutako informazio eta dokumentaziorako sarbidea erraztea.

ñ) Emakumeen irudi estereotipatuak, sexualizatuak edo laidogarriak erabiltzen dituen edozein sustapen-, publizitate- edo bitartekaritza-mota saihestea, bai eta edota zuzenean edo zeharka sexu-turismoa susta dezakeena ere.

o) Turismo-zerbitzuen erabiltzaileen segurtasuna, lasaitasuna, erosotasuna eta intimitatea bermatzea, eta erabiltzaileei errespetuari buruzko oinarritzko arauak idatziz ematea.

p) Establezimenduetara askatasunez sartzen eta haietan egoten uztea, bai eta eskainitako zerbitzuak erabiltzen ere, murriztapen bakarrak izanik lege honetan, dagokion turismo-jarduera arautzen duten agindu espezifikoetan eta, hala badagokio, establezimenduaren barne-araubideko erregelamenduan ezarritakoak.

Inola ere ezingo da turismo-zerbitzuetarako sarbidea edo egonaldia murriztu honako hauetan oinarrituz: arraza- edo etnia-jatorria, erlijioa edo sinesmenak, desgaitasuna, sexu-orientazioa, sexua, genero-identitatea, genero-adierazpena edo beste edozein egoera edo inguruabar pertsonal edo sozial.

Eskaintza segmentu jakin batzuetara bideratzeak ezin izanago du inola ere eragin aurreko paragrafoan debekatutako diskriminazio-arrazoietan oinarritutako sarbide- edo egonaldi-murrizketarik.

q) Jarduera egiten den lekuetako kultura-, historia- eta natura-ondarea zaintzen eta sustatzen laguntzea.

r) Barne-araubideko erregelamendu bat izatea, instalazioen erabilerari eta erabiltzaileen arteko bizikidetzari buruzko alderdiak arautzeko, bai eta zerbitzuak behar bezala emateko berariazko arauak ere. Barne-araubideko erregelamenduak publikoa eta eskuraerraza izan behar du erabiltzaileentzat, eta ezin izango du diskriminatzailea edo legearen kontrako den murrizketarik ezarri. Barne-araubideko erregelamenduan oinarrituta sarbideari edo egonaldiari ezarritako muga oro behar bezala justifikatu beharko da, eta muga horrek proportzionala izan beharko du lortu nahi den helburuarekiko.

s) Turismoaren arloan eskumena duen sailarekin izapide guztiak bide telematikoaz egitea. Betebehar horren barruan sartzen da erantzukizunpeko adierazpenak, eskaerak, datu-aldaketak, komunikazioak eta beste edozein izapide aurkeztea.

t) Langileen lan-eskubideak betetzen eta erabat errespetatzen direla bermatzea, indarrean dagoen lan-legeriarekin eta aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboekin bat etorritz.

32. artikulua.– Gainerreserba.

1.– Lege honen ondorioetarako, gainerreserbatzat joko da turismo-ostatuetako zerbitzuen emaile batek erreserba gehiago berrestea bere instalazioen benetako ahalmena baino edo eskainitako zerbitzuen erabilgarritasuna baino, eta, horren ondorioz, ezin artatu ahal izatea erreserba berretsita duten erabiltzaile guztiak.

2.– Turismo-ostaturako establezimenduen titularrek ezingo dituzte libre dauden plazak baino gehiago eskaini edo berretsi, haien sailkapenean ezarritako edukiera kontuan hartuta. Erabiltzaileen eta Administrazioaren aurrean, turismo-enpresak izango dira artatu ezin diren gehiegizko erreserbengatik sortutako gainerreserba-egoeren erantzule.

3.– Kontratututako establezimenduan erreserba berretsita duten bezeroak ezin badira ostatatu gainerreserba-egoera batengatik, establezimenduaren titularrak ostatu-aukera bat eskaini beharko die eragindako pertsoneri, berehala eta doan. Ostatu-aukera horrek baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Kontratututakoaren kategoria bera edo hobearen duen establezimendua izatea.
- b) Erreserbatutako establezimenduaren gune geografiko berean edota antzeko ezaugarriak dituen inguruko gune batean egotea, salbu eta bezeroak espresuki onartzen badu.
- c) Jatorrizko erreserban eskaintako zerbitzu eta instalazio berberak edo haien baliokideak izatea.
- d) Bezeroari kostu gehigarriak ez eragitea.

Establezimendu azpikontratatzailerak ordainduko ditu behin betiko ostatu-establezimendurako joan-etorrien gastuak, berriarekiko prezio-aldea –halakorik balego–, eta behin betiko ostatua izan arte gainerreserbak eragindako beste edozein gastu –baldin eta erabiltzailearen jarduerari egoztekoa ez bada–.

4.– Aurreko apartatuan jasotako betebeharez gain, establezimenduaren titularrak argi eta modu irisgarrian eman beharko die eragindako bezeroei gainerreserba gertatuz gero dituzten eskubideei buruzko informazioa, baita turismo-administrazio eskudunaren aurrean erreklamazioak aurkezteko duten aukerari buruzkoa ere.

Bezeroak ulertzeko moduko hizkuntza batean egin beharko da komunikazioa. Zalantzarik izanez gero, erreserba formalizatzeko erabili zen hizkuntza erabiliko da.

5.– Arau-hauste administratibotzat joko da ostatu-aukera bat 3. apartatuan ezarritako moduan eskaintzeari uko egitea edo 4. apartatuan aurreikusitako informazio-betebeharrak ez betetzea.

6.– Ostatu alternatiboa onartzen duten bezeroek eskubidea izango dute gainerreserbak eragin dizkien kalte-galeren ordaina erreklamatzeko.

III. KAPITULUA

Alokairuko plataforma digitalen eta erabilera turistikorako iraupen laburreko ostatuak iragartzen edo errazten dituzten beste online plataforma edo atari batzuen betebeharrak espezifikak.

33. artikulua.– Aplikazio-eremua.

Kapitulu honetako xedapenak erabilera turistikorako iraupen laburreko ostatuak alokatzeko online plataformei aplikatuko zaizkie, bai eta beste online plataforma edo atari batzuei ere, establezimendua edozein lekutan dutela ere, baldin eta anfitrioiari zerbitzu digitalak eskaintzen badizkiete Euskadin turismo-erabilerarako iraupen laburreko ostatuaren alokairua edo eskaintza iragartzeko ingurune digitalen bidez.

34. artikulua.– Iraupen laburreko alokairuko plataforma digitalen berriazko betebeharrak.

Iraupen laburreko ostatuak alokatzeko plataforma digitalek, Errentamenduen Erregistro Bakarraren prozedura arautzen duen eta iraupen laburreko ostatuak alokatzeko zerbitzuei

buruzko datuak biltzeko eta trukatzeko Errentamenduen Leihatila Digital Bakarra sortzen duen abenduaren 23ko 1312/2024 Errege Dekretuan edo hura ordeztzen duen araudian jasotako betebeharez gain, betebeharrak izango dituzte:

a) Argitaratutako iragarki bakoitzean errentamenduen erregistro bakarreko zenbakia agerian eta nabarmen jasotzea.

b) Anfitorioei eskatzea eskaintako ostatuaren tipologiari buruzko informazio argia, egiazkoa, osoa eta eguneratua eman dezatela.

c) Erreserba- eta ordainketa-prozesuan gardentasuna bermatzea, aplikatu beharreko baldintzen, onartutako ordainketa-metodoen eta epeen berri emanez argi eta garbi. Ordainketa-sistema seguruak ezarri beharko dira, eta ordainketaren frogagiriak ematea erraztu beharko da.

d) Egindako erreserbei aplikatzekoa den ezerezte-politikari buruzko informazio zehatza eta xehatua ematea erreserba berretsi aurretik, gutxienez eduki honekin:

- Erabiltzaileak erreserba ezerezte eskatzeko duen gehieneko epea.
- Aplikatu daitezkeen kostu edo zigor ekonomiko posibleak, ezerezte eskatzen den unearen arabera.
- Erabiltzaileak erreserba ezerezteko jarraitu behar duen prozedura.
- Doan ezereztu ahal izateko baldintza espezifikoak, barnean hartuz erreserba ezein kosturik gabe ezereztu ahal izateko epemuga zehatza, bai eta ordaindutako zenbatekoa itzultzeko araubidea ere.

e) Turismoaren arloan eskumena duten agintariekin lankidetzan aritzea, iragarritako etxebizitza turistikoaren jardura kontrolatzeko eta ikuskatzeko eskatzen zaien informazioa emanez.

f) Beren plataformetan ostatu-eskaintzak argitaratzen dituzten anfitorio iragarle identitatea egiaztatzeko prozedurak ezartzea.

35. artikulua.– Erabilera turistikorako iraupen laburreko ostatuaren alokairua iragartzen edo errazten duten beste online plataforma edo atari batzuen berariazko betebeharrak.

1.– Lege honen ondorioetarako, beste online plataforma edo atari batzuk izango dira erabiltzaileen arteko zuzeneko interakzioa ahalbidetuz erabilera turistikorako iraupen laburreko ostatuaren alokairua iragartzen edo errazten dituztenak, xede nagusia edozein dela ere.

2.– Online plataforma edo atari horietan, atal edo kategoria berezi baten barruan, erabilera turistikorako iraupen laburreko alokairuak iragartzen badira, iragarki bakoitzean dagokion erregistro-zenbakia sartu dela egiaztatzea beharko dute.

3.– Erregistro-zenbaki hori ez badago, edukia ez-zilegizatzen joko da, eta, Eusko Jaurlaritzan turismoaren arloan eskumena duen sailak hala eskatu ondoren, kendu egin beharko da.

4.– Erregistro-zenbaki hori ez sartzea arau-haustetzat joko da, eta dagokion zehapen-prozedura hastea ekar dezake.

IV. KAPITULUA

Turismo-sektorean adimen artifiziala modu etiko eta gardenean erabiltzeari lotutako betebeharrak

36. artikulua.– Xedea.

Kapitulu honen xedea da Euskadin garatzen diren turismo-jardueren arloan adimen artifizialeko (AA) sistemak modu etiko, garden eta seguruan erabiltzeko oinarriak ezartzea, eta pertsonen oinarritzko eskubideak, turismo-zerbitzuaren kalitatea eta sektorearen lehiakortasuna bermatzea.

37. artikulua.– Printzipio gidariak.

Euskadiko turismo-sektoreko entitate publiko eta pribatuek, adimen artifizialean oinarritutako teknologiak erabiltzean, honako printzipio hauek izan beharko dituzte gidari, betiere Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko ekainaren 13ko 2024/1689 (EB) Erregelamenduan ezarritako betebeharrekin bat etorritik (Erregelamendu horrek adimen artifizialaren arloko arau bateratuak ezartzen ditu):

- a) Gardentasuna: erabiltzaileei argi eta garbi eman beharko zaie horren berri, sistema automatizatuarekin edo erabaki-algoritmoekin interaktuatzen ari direnean.
- b) Erantzukizuna: turismo-operadoreak izango dira erabiltzen dituzten adimen artifizialeko sistemen erabileraren, ikuskapenaren eta ondorioen erantzule.
- c) Datu pertsonalen pribatasuna eta babesa: datu pertsonalen tratamenduak datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du, baimen informatua eta datu horien tratamendua minimizatzea barne.
- d) Diskriminaziorik eza: saihestu egin beharko da algoritmoek pertsonen hainbat arrazoiengatik (jaiotza, arraza- edo etnia-jatorria, sexua, erlijioa, uste edo iritzia, adina, desgaitasuna, sexu-orientazioa eta -identitatea edo beste edozein egoera edo inguruabar pertsonal edo sozial) kalte egiten dieten joerak erreproduzitzea edo zabaltzea.

38. artikulua.– Gainbegiratzea eta auditoria.

Beren turismo-zerbitzuetan adimen artifizialeko sistemak garatzen edo integratzen dituzten EAEko turismo-sektoreko enpresek bermatu beharko dute modu arduratsuan erabiltzen dituztela, eta sistema horien aldizkako auditoriak egin beharko dituzte gardentasunaren arloan –(EB) 2024/1689 Erregelamenduan eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritakoa betez–, bai eta alderdi etiko eta sozialetan duten inpaktuaren ebaluazioak ere.

39. artikulua.– Berrikuntza arduratsua sustatzea.

Agintari eskudunek, bereziki Euskadiren eremuan esku hartzen dutenek, adimen artifiziala sustatzen duten guztietan, ikerketarako eta berrikuntzarako pizgarrietan oinarritutako konponbideak garatu beharko dituzte, interes orokorrarekin, ikuspegi etikoarekin eta herritarren eskubideen babesarekin bat etorritik.

V. TITULUA

Turismo-lehiakortasuna

I. KAPITULUA

Turismo-lehiakortasunaren sustapena eta hobekuntza

40. artikulua.– Kontzeptua.

1.– Turismo-lehiakortasunaren sustapena da Administrazio publikoek Euskadiko turismo-eskaintza sendotzeko egindako jarduketa eta neurrien multzoa, helburua izanik turismo-produktu eta -zerbitzu erakargarriak, berritzaileak eta kalitatezkoak eskaintzea turisten espektatibak asetzeko, turismoaren sektorean efektu onuragarriak sortuz.

2.– Turismoaren arloan eskumena duten Administrazio publikoek turismo-sektorearen lehiakortasuna hobetzeko politikak eta neurriak garatuko dituzte, lege honetan ezarritakoak kontuan hartuta.

3.– Eusko Jaurlaritzaren, udalen eta foru-aldundien arteko koordinazioa sustatuko da, bakoitzaren lurraldeko turismo-lehiakortasuna indartzera bideratutako jarduerak bultzatzeko, turismo-eskaintza dibertsifikatzen eta sendotzen duten proiektuei laguntzeko jardueren bidez eta sektoreak jarduera sortzeko eta eskaria erakartzeko duen gaitasuna areagotzen duten dinamizazio ekonomikoko ekimenak sustatuz.

41. artikulua.– Jarduketa-printzipioak.

- a) Turismo-enpresetan berrikuntza eta digitalizazioa sustatzea, laguntza-programen bidez.
- b) Baliabide turistikoak nabarmenduko dituzten produktu turistiko dibertsifikatuen sorrera eta hobekuntza bultzatzea.
- c) Turismo-jardueraren alderdi guztietan jasangarritasuna sustatzea, praktika arduratsuak sustatuz.
- d) Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren indartzea.
- e) Turismo-jardueraren aldeko erakunde-esparrua sortzea, turismo-jarduerari eta turismo-produktuaz gozatzeko zerbitzuei lotutako ekimen ekintzaileei babesa emanez.
- f) Helmugaren sustapena eta merkaturatzea hobetzea, estrategia eraginkorrak eta teknologia berriak erabiliz.
- g) Sektoreko giza baliabideen prestakuntza eta profesionalizazioa sustatzea, haien birziklatze profesionalaren, espezializazioaren eta etengabeko prestakuntza iraunkorraren bidez.
- h) Sektorearen erresilientzia handitzea, merkatuaren aldaketetara egokitzeko, epe luzerako bideragarritasuna ziurtatuz.
- i) Turismo-eskaintzaren plangintza eta egokitzea sustatzea, egungo eta etorkizuneko eskariaren eskakizunen arabera.

42. artikulua.– Turismoaren arloko prestakuntza.

1.– Turismo-prestakuntza sustatzeko neurrien helburu nagusia turismo-sektoreko langileen kualifikazioa etengabe hobetzea da.

2.– Turismoaren arloan eskumena duen sailak, beste sail batzuekin lankidetzan, prestakuntza arautuko eta lanbide-prestakuntzako ikasketa-programak sustatuko ditu turismo-sektorerako, eta sektoreko langileen etengabeko prestakuntzarako irispidea sustatuko du. Gainera, hitzarmenak egin ahal izango ditu unibertsitateekin edo beste hezkuntza-erakunde batzuekin, turismo-arloko ikasketa-programak eta -planak egiteko.

Era berean, turismo-prestakuntza bultzatuko du, ezagutza eta teknologia emergenteak eta teknologia berriak eskuratzen laguntzeko.

3.– Prestakuntza-programa horien helburua izango da jakintza teknikoak, trebetasun praktikoak eta gaitasun transbertsalak eskuratzea, lan-merkatu turistikoaren egungo eta etorkizuneko eskaerei erantzuteko.

II. KAPITULUA

Kalitatea eta bikaintasuna turismo-sektorean

43. artikulua.– Turismo-kalitatea.

1.– Turismoaren arloan eskumena duten Administrazio publikoek turismo-sektorean kalitatea mantentzen eta hobetzen dela zainduko dute, sektoreko eragileekin egindako antolamendu-, gainbegiratze-, sustapen- eta lankidetzajarduketan bidez.

2.– Turismo-kalitatea turismo-erabiltzaileei arretarik onena ematera eta haien premiak asetzera bideratuta dago, instalazio egokienak eskainiz, zerbitzuak eta produktuak etengabe hobetuz, eta arreta profesional kualifikatuen bidez emanez.

3.– Zerbitzuen kalitateak zuzenki proportzionala izan behar du turismo-establezimenduaren kategoriarekin. Turismo-establezimenduek beti gorde beharko dituzte instalazioak eta ekipamenduak, eta zerbitzuak eskaini beharko dituzte, sailkapen-unean kontuan hartu ziren kalitate-estandarrekin gutxienez.

4.– Erregelamendu bidez, gutxienezko kalitate-eskakizun zehatzak ezarri ahal izango dira turismo-establezimendu eta -jarduera mota bakoitzerako, haien ezaugarrien arabera.

44. artikulua.– Turismo-kalitatearen helburuak

Turismo-kalitatea honako helburu nagusi hauen gainean egituratuko da:

- a) Turismo-helmugen kalitate integrala lortzea.
- b) Turistei eskainitako zerbitzuak eta produktuak etengabe hobetzea.
- c) Turismoko establezimenduen, enpresen eta jardueren kalitate-maila igotzea.
- d) Turismo-zerbitzuen kalitatea merkatuaren eskakizunetara eta turistaren profiletara egokitzea.
- e) Turismo-helmuga erakargarria, bereizgarria eta lehiakorra lortzea, kalitatea elementu bereizgarri gisa ezarritik.
- f) Euskadik turismo-helmuga gisa duen kalitate-irudia mantentzea eta indartzea.

45. artikulua.– Ekintzak.

Eusko Jaurlaritzan turismoaren arloan eskumena duen sailak honako jarduketa hauek egin ahal izango ditu EAEko turismo-sektorearen kalitatea hobetzera bideratuta.

- a) Helmugetan eta produktuetan kalitate-sistemak ezartzen laguntzea.
- b) Kalitate-ziurtagiri espezifikoek ezarpena sustatzea, turismo-jardueren arabera.
- c) Turismo-sektoreko enpresa-elkarteekin lankidetzan aritzea, zerbitzuen kalitatea lortzeko.
- d) Turismo-azterketak egitea, eskaintza eta eskaria aztertzeke eta hobekuntza-arloak detektatzeko.
- e) Kalitatea hobetzeko datu garrantzitsuak emango dituzten turismo-informazioko sistemak ezartzea.
- f) Turismo-kalitatearen arloko jardunbide egokien sentsibilizazio- eta zabalkunde-kanpainak garatzea.
- g) Kalitatezko turismo-zerbitzuen prestazioa sustatzera zuzendutako beste edozein ekintza publiko edo ekimen pribatuei laguntzeko beste edozein ekintza.

46. artikulua.– Sariak eta aitortzak.

Turismoaren arloan eskumena duen sailak sariak eta aitortzak sortu ahal izango ditu, eta eman ahal izango dizkie turismo-zerbitzuak ematen dituzten Euskadiko eragile, profesional eta enpresei, turismo-sektore lehiakorragoa eta kalitatezkoa lortzeko egindako jarduketengatik.

47. artikulua.– Asoziazionismoa sustatzea.

- 1.– Turismoaren arloan eskumena duen sailak lanbide- eta enpresa-asoziazionismoa sustatuko du, baita lege eraturako elkarteekiko lankidetzak ere.
- 2.– Asoziazionismoa sustatzeko ekintza turismo-sektorearen interes orokorra lortzeko bideratuko da.
- 3.– Turismo-enpresek eskubidea dute lege honetan aurreikusitako kide anitzeko aholkularitza-organismoetan beren elkarte bitartez parte hartzeko.

III. KAPITULUA

Lan-harremanen eremuan jasangarritasun soziala sustatzea

48. artikulua.– Turismo-sektoreko lan-baldintzak eta enplegua.

- 1.– Turismo-enpresek, turismoaren jasangarritasun sozialaren esparruan, lan-baldintza duinak, bidezkoak eta ekitatezkoak bermatuko dituzte turismo-sektoreko langile guztientzat, eta kalitatezko enplegua sustatuko dute.
- 2.– Turismo-sektoreko langileen ongizatea eta bizi-kalitatea honda ditzaketen ondorio kaltegarriak agertzea prebenitzen duen lan-eredu bat bultzatuko da.
- 3.– Enpresek, transbertsalki, laneko arriskuen prebentzioa, kontziliazioa eta genero-berdintasuna sartuko dituzte jasangarritasun sozialaren funtsezko elementu gisa.

4.– Langileen ordezkariekin elkarrizketarako eta kontsultarako bide iraunkorrak ezarriko dira, turismoak haien bizi-kalitatean dituen eragin sozialei buruzko pertzepzioak eta proposamenak jasotzeko.

5.– Turismo-zerbitzuak ematen dituzten enpresek bermatu egingo dute langile guztiek etengabeko prestakuntzarako eta garapen profesionalerako duten eskubidea, enplegarritasuna lortzeko eta teknologiaren nahiz lan-merkatuaren aldaketetara egokitzeko.

Prestakuntza horrek eskuragarri egon beharko du, eta bat etorri beharko du lanpostuaren eta sektorearen oraingo eta etorkizuneko premiekin.

6.– Enpresek barne-protokoloak ezarriko dituzte genero- edo sexu-indarkeria prebenitzeko, detektatzeko eta haien aurrean jarduteko, eta langileei aldizkako prestakuntza eskainiko diete indarkeria hori goiz detektatzeko.

IV. KAPITULUA

Turismo-berrikuntza

49. artikulua.– Berrikuntza.

1.– Turismoaren arloan eskumena duen sailak turismo-enpresen eta -zerbitzuen berrikuntza eta garapen teknologikoa bultzatuko ditu, turismo-enpresek eta -helmugek aurrerapen eta konponbide teknologikoak ezar ditzaten sustatuz, bai eta prozesu, produktu eta zerbitzuen berrikuntzak ere, turismo-sektorearen lehiakortasuna eta kalitatea hobetzeko tresna gisa.

2.– Euskadiko Turismo Administrazioak turismo-helmugak eta -enpresak eredu adimendunetarantz eralda daitezen bultzatuko du. Prozesu horrek teknologiak erabiltzea eta datuetan oinarritutako kudeaketa hobetzea ekarriko du.

50. artikulua.– I+G+B arloko jarduerak sustatzea.

1.– Turismoaren arloan eskumena duen sailak ikerketa, garapena eta berrikuntza (I+G+B) sustatuko ditu turismo-sektoreko enpresen artean, enpresen, produktuen eta turismo-helmugen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzeko helburuarekin, eta neurriak hartuko ditu emaitzen transferentzia eraginkorra bermatzeko.

2.– Turismoaren arloan eskumena duen sailak, turismo-sektorean I+G+B sustatzeko asmoz, akordioak, hitzarmenak edo beste edozein tresna juridiko formalizatu ahal izango ditu entitate publiko nahiz pribatuekin, unibertsitateekin eta ikerketa-zentroekin, eta Europako eta nazioarteko programa nahiz sareetan parte hartu ahal izango du.

V. KAPITULUA

Adimen turistikoa

51. artikulua.– Euskadiko Adimen Turistikoaren Sistema.

1.– Turismoaren arloan eskumena duen sailak adimen turistikoaren eta ezagutza-transferentziaren sistema bat sustatu eta ezarriko du, turismo-eskariaren portaerak eta joerak analizatzeko, aztertze eta zabaltzeko tresna gisa.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-eragileei (enpresak, antolakundeak eta kudeatzaile publiko eta pribatuak) balio erantsia ematea izango du helburu, eragile horiek erabaki estrategikoak hartzeko, kalitatea hobetzeko eta lehiakortasuna handitzeko prozesuetan, lurraldeko turismoaren garapen jasangarriari lagunduz, datu objektiboetan oinarrituta.

3.– Turismoaren arloan eskumena duen sailak bere informazio-kanalen bidez zabalduko die sortzen den ezagutza turismo-sektoreko enpresei, helmugei eta bestelako eragile publiko eta pribatuei.

4.– Lankidetzat sustatuko da unibertsitateekin, ikerketa-zentroekin eta beste entitate batzuekin, analisi-gaitasunak indartzeko eta adimen turistikoa sortzeko.

5.– Turismo Informazioko Sistemak turistei eta txangozaleei buruzko informazio bereizia izango du, bisiten profilak hobeto ezagutzeko.

52. artikulua.– Adimen turistikoaren sistemaren helburuak.

Euskadiko adimen turistikoaren sistemaren helburuak hauek dira:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-eskaintzari eta -eskariari buruzko informazioa eta analisi mikro eta makroekonomikoa lantzea, bai eta haren garapenean eragina duten faktoreei buruzkoa ere, lurraldearen potentziala optimizatzeko eta eragile publikoek eta pribatuek erabaki estrategikoak aurrerapenarekin hartzea errazteko.
- b) Turismo-merkatuaren bilakaera eta joerak aztertzea, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei eta helmugei aukera emanez aldaketei aurrea hartzeko, aukerak identifikatzeko eta posizio lehiakorra indartzeko.
- c) Turismoa sustatzeko estrategia segmentatu eta pertsonalizatuak diseinatzeko eta ezartzen laguntzea, merkatuen eta bisitarien profilen ezagutzan oinarrituta.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-helmugen, -produktuen eta -zerbitzuen online ospea monitorizatzea eta aztertzea, hobekuntza- eta aukera-arloak identifikatuz.
- e) Turisten premiak eta espektatibak ulertzen laguntzea, helmugan haien esperientzia globala hobetzeko.
- f) Turismo-sektorean berrikuntza sustatzea, balio erantsi handiagoko produktu eta zerbitzu bereizi eta irisgarriak sortzea sustatuz.
- g) Turismoaren saturazio-egoerei aurrea hartzeko, datu prediktiboak sortzea, helmuga edo baliabide baten karga-ahalmena gainditu dezaketen turisten konkurrentzia aurreikusteko analisi-ereduen bidez.
- h) Turismo-sektorearen egoerari eta ikuspegiari buruzko aldizkako txosten eta azterketa monografikoak egitea, funtsezko adierazleen bilakaera aztertuz turismo-ereduaren dinamika eta ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-inpaktua ezagutzeko.

VI. KAPITULUA

Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa

53. artikulua.– Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa.

1.– Euskadiko Turismoaren Kode Etikoaren xedea funtsezko printzipio batzuk ezartzea da, Euskadiko turismo-eragile guztiek erantzukizuna eta jasangarritasuna integra ditzaten eguneroko

praktikan, eta errespetua eta ulermenaren aldeko ekarpena izan daitezen haien oinarritzko printzipioak.

2.– Turismo-entitateek, Kodea sinatzean, konpromisoa hartzen dute tokiko kultura eta tradizioa eta kultura-ondareko elementuak errespetatu eta zaintzeko. Konpromiso hori pizgarriekin batera joango da, tokiko komunitateak turismo-jarduerekin elkartu daitezen eta haien onura ekonomiko, sozial eta kulturalak –bereziki enplegua– jaso ditzaten.

3.– Euskadiko Turismoaren Kode Etikoari atxikitzea borondatezkoa da, eta horretarako ezarritako prozeduraren bidez gauzatuko da. Atxikitzeak Kode Etikoaren printzipioak betetzeko eta sustatzeko konpromisoa dakar berekin.

4.– Turismoaren arloan eskumena duen sailak Euskadiko turismo-enpresak Kode Etikora atxikitzea sustatuko du. Horretarako, programa espezifikoak garatu ahal izango ditu Kode Etikoari atxikitako entitateentzat, eta, turismo-sektorearentzako dirulaguntzen edo laguntza espezifikoaren deialdietan, balorazio-irizpide gisa hartu ahal izango du Kode Etikoari atxikita egotea.

54. artikulua.– Euskadiko Etika Turistikoaren Erregistro Publikoa.

1.– Kode Etikoari formalki atxikitzea erabaki duten entitateek eta profesionalek osatzen dute Euskadiko Etika Turistikoaren Erregistro Publikoa.

2.– Erregistroa publikoa izango da, eta baliabide ofizialen bidez zabalduko da, erakundearen web orria barne. Urtero eguneratuko da, atxikimendu berriak gehituz eta inskribatutako entitateen jarraipena berrikusiz.

3.– Euskadiko Turismoaren Kode Etikoan ezarritako printzipioak betetzen ez dituen automatikoki kanporatu egingo da aipatutako erregistrotik.

4.– Inskribatutako entitateek Euskadiko Turismoaren Kode Etikoari atxikitzeko bereizgarria erabili ahal izango dute.

VI. TITULUA

Turismo-sustapena

I. KAPITULUA

Turismo-sustapena

55. artikulua.– Kontzeptua eta helburuak.

1.– Lege honen ondorioetarako, turismo-sustapena da eskumena duen sailak nazioko eta nazioarteko turismo-merkatuetan garatzen dituen jarduketan multzoa, helburu hauekin:

a) Euskadiko turismo-eskaintza ezagutaraztea, natura-baliabideak zein baliabide kulturalak, ondarezkoak, historikoak, gastronomikoak eta aisialdikoak barne, bai eta turistentzat eskuragarri dauden azpiegiturak eta zerbitzuak ere.

b) Eskaria sortzea, Euskadi helmuga bisitatzeko interesa bultzatuz, bertako elementu bereizgarriak eta eskaintzen dituen esperientzia bereziak nabarmenduz.

c) Helmugaren irudia eraikitzea eta sendotzea turismo-merkatuan.

- d) Bidaiak planifikatzeko beharrezkoa eta garrantzitsua den informazioa ematea.
- e) Fidelizazioa sustatzea, bisitarien itzulera bultzatuko duten esperientzia turistiko egokiak sortzeko lan eginez.
- f) Turismo-eskaintza bultzatzea, laguntza-lerroak eta dirulaguntzak ezarritz; laguntza horien hartzaileak izango dira, besteak beste, turismo-enpresak, udalerrriak eta turismo-sektoreko elkarteak.
- h) Desestacionalizazioaren helburuak eta fluxuen banaketa egokia lortzen laguntzea.

56. artikulua.– Parte hartzen duten Administrazioak eta eragileak.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokio Euskadiko turismoa sustatzea, sektore pribatuaren parte-hartzea alde batera utzi gabe eta Administrazio publiko eskudunen lankidetzarekin.
2. Udalerriek eta turismo-enpresek, sailaren baliabideak edo funtsak erabiltzen dituztenean, Euskadiren irudi korporatiboa txertatuko dute turismo-helmuga integral gisa, turismo-arloan eskumena duen sailak une bakoitzean zehaztutako jarraibideen arabera.
3. Turismoaren arloan eskumena duen sailak turismo-sektoreko enpresen eta enpresa-elkarteen lankidetzara publiko-pribatua erraztuko du sustapen-jardueretan.
4. Turismo-jarduerak sustatzean, kontuan hartuko da Euskadi, oro har, turismo-helmuga bakarra izatearen printzipioa. Nolanahi ere, printzipio hori errespetatuz, turismo-helmugako kanpaina espezifikoak sustatu ahal izango dira Euskadiko elementu edo eremu bereizgarriren bat nabarmentzeko edo bultzatzeko.

57. artikulua.– Sustapen-jarduketak.

Turismo-administrazio eskudunak neurri egokiak hartuko ditu, eta turismo-sustapenerako plan eta programa espezifikoak antolatuko ditu. Plan eta programa horiek, besteak beste, jarduketa hauek hartu ahal izango dituzte barnean:

- a) Euskadiko produktu turistikoak merkaturatze-kanal globaletan sustatzea.
- b) Turismo-eskariaren segmentu eta merkatu espezifikoetako zuzendutako publizitate- eta marketing-kanpainak egitea.
- d) Azokak, ekitaldiak eta aurkezpen turistikoak antolatzea eta horietan parte hartzea, nazio zein nazioarte mailan.
- e) Turismoa sustatzeko ekintza bateratuetan parte hartzea Estatuko Administrazioarekin, beste autonomia-erkidego batzuekin nahiz toki-administrazio eta -enteekin.
- f) Turismoa zabaltzeko eta merkaturatzeko argitalpenak prestatzea.
- g) Turismoaren sektorerako interesgarriak diren sustapen- eta merkaturatze-ekimenak babestea, baldin eta koherenteak badira turismoaren arloan eskumena duen sailak bultzatutako turismo-politikarekin eta kalitate-irizpideekin.
- h) Sustapen-helburuak lortzera bideratutako beste edozein jarduera.

58. artikulua.– Euskadiko turismoaren atari ofiziala.

1.– Euskadiko Turismoaren Atari Ofiziala Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak zuzenean kudeatzen duen plataforma digitala da, eta haren helburu nagusia Euskadiko turismo-eskaintza modu integralean sustatzea eta zabaltzea da. Horretarako, jasoko du jarduera, baliabide, produktu eta zerbitzu turistikoetako buruzko informazioa, bai eta garrantzi turistikoa duen beste edozein informazio ere.

2.– Atariak informazio-iturri eguneratu eta eskuragarria jaso beharko du turista potentzialentzat, eta eduki garrantzitsuak eskainiko ditu turismoarekin lotutako baliabideei, produktuei eta zerbitzuei buruz. Era berean, bidaia planifikatzea erraztuko duten funtzionalitateak eskaini ahal izango ditu, hala nola mapak, gidak, gertakarien egutegiak eta turismo-zerbitzuen hornitzaileen direktorioak.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ardura izango da Euskadiko Turismoaren Atari Ofizialaren kalitatea eta irisgarritasuna bermatzea.

VII. TITULUA

Turismo-jardueraren antolamendua

I. KAPITULUA

Turismo-jardueran aritzea

59. artikulua.– Turismo-zerbitzuak edo -jarduerak eskaintzeko eta kokatzeko askatasuna.

1.– Turismo-jardueran aritzea librea da, eta muga bakarra da aplikatzekoa den indarreko legeria betetzea. Beraz, turismo-jarduerak ematen dituen edonork du Euskadin kokatzeko aukera, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu edo, hala badagokio, dagokion gaikuntza lortu ondoren.

2.– Kokatzeko askatasuna soilik murriztu ahal izango da interes orokorreko ezinbesteko arrazoiek justifikatzen dutenean, betiere proportzionaltasun-printzipioa errespetatuz eta diskriminaziorik eragin gabe. Neurri murriztaile orok egokia izan beharko du lortu nahi den helburu legitimoa bermatzeko, eta ez da izango helburu hori lortzeko ezinbestekoa denaz gaundikoa.

3.– Legez beste autonomia-erkidego batzuetan ezarri edo gaitutako turismo-zerbitzuak ematen dituztenek, Euskadin gauzatu nahi duten jarduera edo zerbitzuak edozein motatako turismo-instalazio bati lotuta daudenean, dagokion erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko diote turismoaren arloan eskumena duen sailari.

Aurreko apartatuan jasotako kasutik kanpo, eta hargatik eragotzi gabe beste autonomia-erkidego batzuetan turismo-zerbitzuak ematen dituztenek lortutako erantzukizunpeko adierazpenek eta gaikuntza profesionalek Euskadiko lurraldean erabateko baliozkotasuna izatea, Euskadin Turismoaren arloan eskumena duen sailak jardueraren egikaritzea gainbegiratzeko eta kontrolatzeko funtzioak beteko ditu, turismo-antolamenduari buruzko autonomia-erkidegoko araudia betetzen dela bermatuz.

4.– Europar Batasuneko estatu kideetan legez jarduten duten turismo-zerbitzuen hornitzaileak beren zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan ematen hasi ahal izango dira, baldin eta formalizatzen badute jatorrizko herrialdean legez ezarri dituztela edo horretarako gaituta daudela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena, dagozkion egiaztagiria eskuratu badituzte, eta

Euskal Autonomia Erkidegoko araudian zerbitzu-kategoria bererako aurreikusitako eskakizunen baliokideak betetzen badituzte.

60. artikulua.– Gutxieneko eskakizunak betetzeari buruzko aurretiazko hautazko txostena.

1.– Turismo-erabilerako enpresa edo establezimendu bat ireki, eraiki edo aldatzeko asmoa duen pertsona fisiko edo juridikoak, edozein motatako jarduketa, izapide edo obrari ekin aurretik, Eusko Jaurlaritzako Turismoaren arloan eskumena duen sailari eskatu ahal izango dio azpiegitura eta zerbitzuen gutxieneko eskakizunak betetzeari buruzko aurretiazko hautazko txostena. Txosten horretan, espresuki jasoko da enpresa eskatzaileari legokiokkeen sailkapenari buruzko erabakia.

2.– Txosten-eskaera egiteko, dagokion eskaera-orria aurkeztu beharko da turismoaren arloan eskumena duen organismoaren aurrean, proiektuari buruzko dokumentazio tekniko xehatuarekin batera, azalera- eta altuera-planoak barne, alderdi hauek adierazita: areto bakoitzaren erabilera, instalazioen eta zerbitzuen deskribapen-memoriak eta proiektatutako establezimendu edo jarduera motari aplikatu dakizkiokeen gutxieneko eskakizunak betetzen diren ebaluatzeko garrantzitsua den beste edozein dokumentazio.

4.– Gehienez hiru hilabeteko epean, txosten arrazoitua emango da. Txosteneari argi eta zehatz adieraziko da proiektuak betetzen dituen ala ez turismo-araudiak ezartzen dituen gutxieneko eskakizunak. Ez-betetzetik gertatuz gero, antzemandako akatsak zehaztuko dira, bete ez diren arau-manuak adierazita.

5.– Txostenaren baliozkotasuna urtebetekoa izango da gehienez ere, baldin eta txostenak errespetatu beharreko turismo-araudiak indarrean jarraitzen badu eta dagokion proiektuak elementuetako edozeinetan aldaketarik izaten ez badu.

61. artikulua.– Jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpena.

1.– Turismo-jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpena da interesdun batek sinatutako dokumentua, non bere erantzukizunpean adierazten duen ezen, agiria aurkezten duen unean, egoki betetzen dituela turismo-jarduera bat eskaintzeko indarrean dagoen araudiak ezarritako eskakizun guztiak, baduela hori egiaztatzen duen dokumentazioa, Administrazioaren esku jarriko duela informazio hori hala eskatzen zaionean, eta konpromisoa hartzen duela jarduerarekin zerikusia duen denboran betetzen jarraitzeko.

Aurreko paragrafoan aipatutako eskakizunak espresuki eta argi jasoko dira turismo-jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpenean. Adierazpen horren eredia Euskadiko turismo-administrazioak onetsi beharko du.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan turismo-jarduerari ekiteko eta jarduera horretan aritzeko, turismo-enpresaren titular den pertsona fisiko edo juridikoak, jarduerari ekin aurretik, turismo-jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, lege honetan eta berau garatzen duten arauetan ezarritako moduan.

Turismo-zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsonen turismoaren arloan eskumena duen sailak horretarako gaitutako bitarteko elektronikoen bidez soilik aurkeztuko ahal izango dute erantzukizunpeko adierazpena.

3.– Jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpen osoa aurkezteak jarduera garatzea ahalbidetuko du une horretatik bertatik aurrera, iraupen mugagabearekin, salbu eta lege honetan ezarritako berariazko indarraldi- edo berritze-araubide baten mende dauden kasuetan. Era berean, nahitaezkoa izango da aplikatzekoak diren beste arau batzuetan eskatzen diren betebeharrak betetzea eta Administrazio eskudunek gerora egiaztatzeko esleituta dituzten ahalmenak betetzea.

4.– Euskadiko Turismo Administrazioak zehaztuko ditu jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpenaren eredu ofiziala eta eskura izan beharreko dokumentazioa, eta argitaratuta eta eguneratuta edukiko ditu jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpenaren ereduak.

5.– Jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpen osoa aurkeztean, turismo-enpresen eta -jardueren erregistroan inskribatuta geratuko da.

6.– Erantzukizunpeko adierazpen batean jasotako datu edo informazioen bat zehaztugabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo Administrazioari ez bazaio aurkezten adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den edozein dokumentazio, ezinezkoa izango da inskripzioa egitea eta turismo-jarduerarekin jarraitzea egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

Inguruabar horiek adierazten dituen ebazpenak zehaztu ahal izango du interesduna behartuta dagoela egoera juridikoa turismo-jarduera hasi aurreko unera itzultzera. Datuen bat faltsua edo zehaztugabea bada, dagokion zehapen-prozedura abiaraziko da. Era berean, Administrazioak erabaki ahal izango du xede berarekin beste prozedurarik eskatu ezin izatea gehienez urtebetez.

7.– Lege honen ondorioetarako, jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpenean jasotako datu edo informazioetan funtsezko zehaztugabetasuna, faltsutasuna edo omisioa dagoela joko da, baldin eta alderdi hauei eragiten badiete:

- a) Turismo-jardueraren titularraren nortasun fisikoa edo juridikoaren akreditazioa.
- b) Jarduerari edo establezimenduari aplikatu beharreko hirigintza-legeria betetzea, eta, hala badagokio, erabilera turistikorako etxebizitzak merkaturatzeko jabetza horizontalari buruzko legerian ezarritako eskakizunak betetzen direla akreditatzea.
- c) Jarduera garatzeko edo zerbitzua emateko eska daitezkeen aseguru edo bermeei buruzko informazioa.
- d) Erabiltzaileen eta beren ondasunen segurtasunari buruzko informazioa; bereziki, suteen aurkako babesari buruzkoa.
- e) Eskainitako turismo-zerbitzuen irisgarritasun-baldintzak.
- f) Eskainitako plazen kopurua.
- g) Establezimenduaren xede den turismo-erabilera.
- h) Turismo-jarduerara bideratutako ondasun higiezinaren edo establezimenduaren identifikazio-datuen akreditazioa.

62. artikulua.– Egiaptapena.

1.– Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ondoren, turismo-administrazio eskudunak edozein unetan egiaztatu ahal izango du lege honetan eta aplikatzekoak diren arauetan ezarritako eskakizunak betetzen direla, bai eta erantzukizunpeko adierazpenean jasotako datuak eta adierazpenak egokiak eta egiazkoak direla ere, turismo-jarduera indarrean dagoen legeriara egokitzen dela bermatzeko.

2.– Egiaztapen-prozeduraren hasiera interesdunari jakinaraziko zaio, eta xedea eta egin beharreko jarduketak zein diren adieraziko zaio.

3.– Egiaztapen-prozedura amaitutakoan, interesdunari jakinaraziko zaio deklaratu duena ondo dagoen ala ez:

a) Egiaztapen-jarduketatik ondorioztatzen bada deklaraturako datuak eta adierazpenak zehatzak direla, hala jakinaraziko zaio interesdunari.

b) Turismo-jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpeneko datuetan edo informazioetan funtsezko zehaztugabetasunak, faltsutasunak edo omisioak daudela detektatzen bada, edo nahitaezko dokumentazioa eskuragarri ez dagoela, inskripzioa ezereztu egingo da, turismo-jarduerarekin jarraitzea galaraziko da, eta, hala badagokio, establezimendua itxi egingo da, dagokion prozedura instruitu ondoren. Interesdunari entzunaldia izateko eskubidea bermatuko zaio, alde batera utzi gabe izan litzakeen legezko erantzukizunak eta dagokion zehapen-prozedura abiaraztea.

c) Jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpenean jasotako edozein datu edo informaziotan funtsezkoak ez diren zehaztugabetasunak, faltsutasunak edo omisioak antzemanen gero, errekerimendua egingo zaio interesdunari, gehienez 15 eguneko epean zuzendu ditzan.

Akatsak zuzendutakoan, interesdunari jakinaraziko zaio zer datu jaso diren Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan; besteak beste, erregistro-zenbakia, kategoria eta espezialitatea. Interesdunak ez badu zuzenketa egiteko eman zaion epean errekerimendua betetzen, turismo-jarduera bertan behera uzteko agindua emango da, turismo-enpresen eta -jardueren erregistroan baja emango da, eta dagokion zehapen-espeditentia izapidetu ahal izango da.

63. artikulua.– Datuak edo informazioak aldatzea eta jarduera uztea.

1.– Turismo-jardueren emaileek turismo-arloan eskumena duen sailari jakinarazi beharko diote erantzukizunpeko adierazpeneko datuetan edo deklarazioetan izandako funtsezko aldaketa oro, aldaketa horrek jarduerari eragiten badio. Horretarako, dagokion erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute. Titulartasun-aldaketak edo zerbitzua emateko bitartekarien aldaketak ere jakinarazi beharko dituzte.

Adierazpen berrian espresuki aldatu ez diren datuak edo informazioak aurkeztutako azken adierazpen baliodunean zeuden moduan geratuko dira.

Funtsezko aldaketarik eragiten ez duten bestelako aldaketen kasuan, nahikoa izango da aldez aurretik jakinaraztea.

2.– Edozein datu edo informazioen zehaztugabetasunak, faltsutasunak edo omisioak 62 artikuluan aurreikusitako ondorio berak izango ditu.

3.– Era berean, turismo-jarduerak egiten dituzten pertsonak jarduera uzten dutenean, uzten dutenetik gehienez 30 eguneko epean jakinarazi beharko diote hori turismo-gaietan eskumena duen sailari, dagokion erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuta. Jarduera uzteak Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan baja ematea ekarriko du.

64. artikulua.– Jarduera klandestino eta lege kanpoko eskaintza.

1.– Jarduera klandestinotzat jotzen da turismo-jarduera bat edozein bitartekoren bidez iragartzea, merkaturatzea edo gauzatzea, jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu gabe.

2.– Legez kanpoko eskaintzat jotzen da erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ondoren turismo-zerbitzuak ematen dituzten pertsonen berezko zerbitzuak sustatzea edo iragartzea, edozein hedabide erabiliz, jarduerak hasteko edo garatzeko eskatzen diren eskakizunak bete gabe.

3.– Artikulu honen 1. eta 2. apartatueta deskribatutako egoerak gertatzean, dagokion zehapen-espediente hasiko da, lege honetan xedatutakoaren arabera, eta, hala badagokio, kautela-neurri egokiak hartuko dira.

4.– Turismo-establezimenduek beren taldeari, sailkapenari, kategoriari edo ezaugarriei dagokien izendapena baino ez dute erabili beharko. Debekatuta dago erabiltzailearentzat nahasgarria izan daitekeen izendapen oro erabiltzea.

II. KAPITULUA

Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroa

65. artikulua.– Xedea eta izaera.

1.– Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroaren xedea da turismo-zerbitzuak edo -jarduerak ematen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiak nahitaez inskribatzea. Inskripzioak ez du izaera eratzaile izango.

2.– Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroa erregistro publiko administratibo bat da, eta Eusko Jaurlaritzan turismo-arloan eskumena duen sailari atxikita dago.

3.– Inskripzioa ofizioz egingo da, turismo-zerbitzuak ematen dituzten pertsonak erantzukizunpeko adierazpen osoa aurkeztu ondoren.

4.– Komunikazio bidez beste autonomia-erkidego baten mendeko erregistro batean erregistratuta daudela egiaztatzen duten turismo-zerbitzuen emaleek ez dute Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan beste inskripzio bat formalizatu beharrik izango, 59.3 artikuluan jasotako kasuan izan ezik.

66. artikulua.– Helburua eta funtzionamendu-araubidea.

1.– Erregistroaren helburua da turismo-zerbitzuak eta -jarduerak ematen dituzten pertsona fisiko edo juridikoei buruzko informazio publikoa ematea.

2.– Era berean, informazio-tresnatzat erabiltzen da, Euskadiko turismo-administrazioak egikaritu ditzan indarrean dagoen araudia antolatzeari, ikuskatzeari eta betetzen dela kontrolatzeari dagokionez dituen administrazio-ahalak.

3.– Erregelamendu bidez ezarriko dira Erregistroaren antolamendu- eta funtzionamendu-araubidea eta inskripzioen prozedura eta edukia, bai eta horiek akreditatzeko modua ere.

67. artikulua.– Inskripzioa.

1.– Egintza hauek inskribatuko dira Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan, erregelamendu bidez zehaztutako prozeduraren arabera:

- a) Turismo-jardueraren hasiera eta sailkapena.
- b) Funtsezko zein ez-funtsezko aldaketak.
- c) Jarduera uztea.
- d) Zehapen astun eta oso astun irmoak.

2.– Turismo-administrazioak ezereztu egingo ditu turismo-zerbitzuak eta -jarduerak ematen dituzten enpresen inskripzioak, ez dutenean haien jarduera-uztea jakinarazi. Inskripzioa ezereztu baino lehen, dagokion espedientea instruituko du, eta ebazpena titularrari jakinaraziko dio.

VIII. TITULUA

Turismo-establezimenduak eta turismo-zerbitzuak ematen dituzten enpresak

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

68. artikulua.– Ustiapen-unitatearen printzipioa.

1.– Turismo-ostaturako establezimendu guztiak ustiapen-unitatearen printzipioaren arabera kudeatuko dira; horrela, establezimendu guztien administrazioa titular bakarraren esku egongo da, eta harena izango da funtzionamenduaren ondoriozko administrazio-erantzukizuna.

2.– Lege honen ondorioetarako, ustiapen-unitatearen printzipioaren arabera, eraikina osatzen duten turismo-ostaturako unitate guztiak edo eraikinaren zati independente eta homogeneo bat turismo-ostaturako zerbitzua ematera bideratuta egongo dira, eta multzoaren kudeaketa enpresa titular bakar batek egingo du.

3.– Honako hauek ustiapen-unitatearen printzipioaren aurkako jarduketak dira:

- a) Ustiapen-unitatearen titularrak establezimenduaren kudeaketa integrala gauzatzeko duen gaitasuna oztopatzea edo eragozteak.
- b) Unitateak ustiatzeko banakako akordioak egitea, ustiapen-unitatetik kanpo.
- c) Ostatu-unitateak turismo-ostaturak ez den beste erabilera baterako erabiltzea.
- d) Establezimendua osatzen duten ostatu-unitateak ustiatzea ustiapen-unitatearen titularra ez den beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek.

4.– Ustiapena egiten duten pertsona fisiko eta juridiko bakarrek jabetzaren edo turismo-ostaturako unitate guztiak ustiatzeko gaitzen duten beste titulu juridiko batzuen titulartasuna akreditatu beharko dute.

5.– Artikulu honetan xedatutakoa gorabehera, turismo-ostatuaren ustiapenaren titularra ez den beste pertsona edo entitate batzuek garatu ahal izango dituzte jarduera gehigarri osagarriei eta jarduera nagusiarekin bateragarriak direnei dagozkien jarduerak.

Zerbitzu osagarri horiek bideratuta egongo dira zuzenean eta eskusiboki ostatu-hartzailearen erosotasuna, ongizatea edo esperientzia egonaldian zehar osatzera. Erregelamendu bidez garatuko da zerbitzu osagarri bateragarrien araubidea.

6.– Ustiapen-unitatearen printzipioa ez betetzeak eragotzi egingo du ostatu-jardueran aritzea, arau-haustetzat joko da, eta lege honetan xedatutakoaren arabera zehatuko da.

69. artikulua.– Turismo-zerbitzuen prezioak.

1.– Turismo-zerbitzuak ematen dituzten pertsonak askatasunez ezarriko dituzte zerbitzu horien prezioak.

2.– Turismo-zerbitzuak ematen dituzten pertsonak informazio osoa, argia, egiazkoa eta erabiltzaileentzat eskuragarria bermatu beharko dute eskaintzen dituzten zerbitzu guztien prezioei dagokienez, zerbitzuak kontratatu aurretik.

3.– Turismo-zerbitzuen prezioek establezimenduan bertan kontsultatu eta irakurtzeko moduan eta eskuragarri egon beharko dute. Turismo-zerbitzuen prezioei buruzko informazioa gutxienez euskaraz eta gaztelaniaz jaso beharko da beti.

Turismo-zerbitzuen hornitzaileek euskarri fisikoan eta modu ikusgarri eta irisgarrian iragarri beharko dute prezioak turisten eskura daudela.

4.– Turismo-zerbitzuen prezioak merkataritza-eskaintza jakin bat osatzen duen publizitatean txertatu beharko dira. Ez da galdagarria izango prezioak publizitate orokorrean sartzea.

5.– Eskainitako zerbitzu guztien prezioak azkenak eta osoak izan beharko dira, aplikatzekoak diren zerga, tasa eta karga guztiak barne dituztela. Banakatu egin beharko da aplikatzekoak diren gehikuntzen edo deskontuen zenbatekoa, bai eta erabiltzaileari jasanarazten zaion beste edozein gastu gehigarri ere.

70. artikulua.– Aseguruak eta bermeak.

1.– Turismo-zerbitzuak ematen dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek erantzukizun zibileko aseguru bat sinatu behar dute, eta indarrean eduki beharko dute jarduerak irauten duen denbora guztian. Halaber, zehazten diren bestelako kasuetan, jarduera garatzean eragin ditzaketen kalte-galerak estaltzeko beharrezkoak diren bermeak ere eduki beharko dituzte.

2.– Aseguru edo berme horiek edukitzeko betebeharra ez betetzeak ez du erantzulea salbuetsiko eragindako kalteetatik eratorritako betebeharretatik, eta dagozkion zehapenak ere aplikatu ahal izango zaizkio.

3.– Erregelamendu bidez ezarriko dira kontratatu beharreko gutxieneko estaldurak, baldintzak eta ezaugarriak, turismo-jarduera motaren arabera.

4.– Turismo-zerbitzuen hornitzaileek edozein bitarteko egokiren bidez emango dizkiete erabiltzaileei aseguruaren funtsezko datuak. Informazio horrek alderdi hauek jasoko ditu

gutxienez: aseguru-entitatearen izen soziala, polizaren identifikazio-zenbakia eta ezbeharrak komunikatzeko gaitutako harremanetarako bideak.

5.– Turismo-zerbitzuak ematen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek turismoaren arloan eskumena duen sailaren esku jarri beharko dituzte aseguru edo bermea kontratatuta eta indarrean daukatela egiaztatzen duten agiriak, hala eskatzen zaienean.

71. artikulua.– Dispentsa-ahalmena.

1.– Salbuespen gisa, turismoaren arloan eskumena duen sailak, inguruabarrak oro har azertu eta txosten teknikoa egin ondoren, turismo-ostaturako establezimendu jakin bat edo batzuk dispentsatu ahal izango ditu lege honetan edo berau garatzen duten erregelamendu-arauetan ezartzen diren gutxienerako eskakizun teknikoetako bat edo batzuk betetzetik, ingurumen-arloko eskakizunak izan ezik.

2.– Besteak beste, kontuan hartuko dira arkitektura- edo arte-balio berezia akreditatuta daukaten eraikinetan kokatutako ostatuak, hirigune historikoetan dauden eraikin birgaituetan kokatutakoak edo inguruko arkitektura tradizional tipikoarekin bat datozen eraikinetan daudenak.

3.– Dispentsa horiek orekatu egin beharko dira dispentsaren xede diren eskakizunekin lotutako konpentsazio-faktoreekin, hala nola zerbitzu osagarrien eskaintzarekin edo talde eta kategoriaren arabera aplikatzekoak izango litzaizkiekeen eta erregelamendu bidez zehaztuko liratekeen baldintza gehigarriekin.

4.– Dispentsa-eskaera justifikatzen duten arrazoiak izan beharko dira teknikoak, arkitektonikoak, urbanistikoak, historikoak, artistikoak, ondarezkoak edo antzekoak, eta eragotzi egin beharko dute legezko betebeharrak betetzea. Irizpide ekonomiko soilak ez dira onartuko dispentsarako oinarri gisa.

5.– Dagokion erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu baino lehen lortu beharko dira dispentsa horiek, titularrak aurrez eskaera arrazoitua aurkeztuta. Eskaerarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a. Justifikazio-memoria xehatua, dispentsa eskatzera eraman duten arrazoiak modu argi eta zehatzean azaltzen eta akreditatzen dituenak.

b. Txosten teknikoa eta planoak, eskatutako dispentsaren izaeragatik beharrezkoak izanez gero.

c. Konpentsazio-elementuen proposamena eta zehaztapena.

d. Eskaera behar bezala balioesteko Administrazioak beharrezkotzat jotzen duen beste edozein dokumentazio.

6.– Emandako dispentsak eragina izango du soilik eskakizun espezifiko horri dagokionez eta ebazpenean zehaztutako baldintzetan, eta ez du salbuetsiko aplikatzekoa den gainerako araudia betetzeko betebeharrak.

7.– Dispentsa justifikatu zuten baldintzak eta ezarritako konpentsazio-elementuak mantendu egin beharko dira establezimenduak turismo-jarduera garatzen duen bitartean.

8.– Hala ere, honako kasu hauetan, Euskadiko Turismo Administrazioak errebokatu egin ahal izango du dispentsa:

- a) Dispentsa-ebazpenean ezarritako konpentsazio-baldintza edo -elementuak ez betetzean.
- b) Dispentsa ematea justifikatu zuten inguruabarrak aldatzean.
- c) Dispentsa lortzeko aurkeztutako dokumentazioa edo emandako datuak faltsuak direla frogatzean.

II. KAPITULUA

Turismo-establezimenduak

72. artikulua.– Turismo-establezimenduen funtzionamendurako eskakizun orokorrak.

1.– Turismo-establezimenduek bete egin beharko dituzte ematen dituzten turismo-zerbitzuen azpiegiturari, segurtasunari, irisgarritasunari, ingurumenari, hirigintzari eta kalitateari dagokienez ezarrita dauden lege-betebeharrak, turismo-araudian nahiz aplikatzekoa zaien beste edozein arauditan jasota daudenak.

2.– Turismo-establezimenduen instalazioek kontserbazio- eta funtzionamendu-egoerarik onenean egon beharko dute. Turismoaren arloan eskumena duen sailak instalazioak kontserbatzeko eta egokitzeko beharrezkotzat jotzen diren obrak egiteko eskatu ahal izango die turismo-establezimenduen titularrei.

73. artikulua.– Turismo-establezimenduetan sartzeko eta egoteko baldintzak.

1.– Turismo-establezimenduek sarbide publiko librea izango dute, eta muga bakarrak izango dira legeari men egitea, jarduera arautzen duten berariazko xedapenei jarraitzea eta, hala badagokio, ezarrita dagoen barne-araubideko erregelamendua errespetatzea.

2.– Ezin izango da sartzea ukatu edo mugatu arraza, sexu, erlijio, iritzi edo bestelako egoera edo inguruabar pertsonal nahiz sozialengatik.

III. KAPITULUA Turismo-zerbitzuak ematen dituzten enpresen sailkapena

74. artikulua.– Turismo-zerbitzuak ematen dituzten enpresa motak.

1.– Turismo-enpresak honela sailkatzen dira:

- a) Turismo-ostaturako enpresak.
 - b) Bitartekaritza-enpresak.
 - c) Turismo aktiboko eta ekoturismoko enpresak.
 - d) Erabilera turistikorako etxebizitzak kudeatzen dituzten enpresak.
 - e) Turismo-zerbitzuak eskaintzen dituzten eta erregelamenduz hala sailkatuta dauden gainerako guztiak.
- 2.– Ohikotasuna dagoela ulertuko da turismo-zerbitzuak publizitate-, sustapen- edo merkaturatze-jardueren bidez eskaintzen edo zabaltzen direnean, edozein bitarteko edo kanal erabiliz, eta, gainera, urte natural berean hainbat aldiz eskaintzen edo zabaltzen direnean, gutxienez

hilabetetik gorako epe metatuan, salbu eta erregelamendu bidez beste epe bat ezartzen bada turismo-zerbitzu jakin batzuetarako, haien berezitasunak kontuan hartuta.

IV. KAPITULUA

Turismo-ostaturako zerbitzuak eta jarduerak

1. atala. Xedapen erkideak

75. artikulua.– Turismo-ostaturako enpresak.

1.– Lege honen ondorioetarako, turismo-ostaturako enpresa da aldi baterako ostatua ohikotasunez eta modu profesionalen eskaintzen duen enpresa, beste zerbitzu osagarri batzuk eskainiz edo eskaini gabe.

2.– Ohikotasuna dagoela joko da urte berean bi aldiz edo gehiagotan ematen denean ostatu, edo guztira bi hilabete baino gehiagoko denboran.

3.– Lege honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira:

a) Helburu instituzionalak, sozialak, asistentzialak nahiz hezkuntzakoak dituzten ostatu-jarduerak, edo, oro har, irabazi-asmorik ez duen beste edozein ostatu-jarduera.

b) Gazteentzako kanpamentuak, ikastetxe eta udalekuak; eta, oro har, zerbitzua noizbehinka eskaintzen denean eta irabazi-asmorik gabe.

c) Lan-helburuetarako ostatua, bai eta gazteriarri edo hirugarren adinekoei zuzendutako Administrazioaren programen barruan ematen den ostatua ere.

d) Entitate pribatuek beren kideen erabilera eksklusiborako zerbitzua ematera bideratutako establezimenduak.

e) Eskola-, kultura-, ingurumen-, erlijio- edo kirol-jarduera nagusi batzuen mendeko eta horien osagarri gisa ematen den ostatua, baldin eta turismo-eskaintzako kanaletan merkaturatzen ez bada.

4.– Ez dira turismo-ostaturako enpresatzat hartuko itxuraz ostatu-zerbitzuak emateko xedea izan arren helburu dutenak zuzenean nahiz zeharka sexu-esplotaziotik edo -komertzializaziotik – edozein motatakoak izanik ere– eratorritako onurak sustatzea, erraztea edo lortzea.

76. artikulua.– Turismo-ostatuen modalitateak.

1.– Ostatu emateko turismo-jarduera, lege honetan araututakoaren arabera, ostatu-figura hauetako baten bidez gauzatu ahal izango da:

a) Hotel-establezimenduak

b) Apartamentu turistikoak

c) Kanpinak

d) Landa-inguruneko ostatuak: nekazaritza-turismoko establezimenduak eta landetxeak

- e) Turismo-aterpetxeak
- f) Turismo ibiltarirako eremuak
- g) Ostatu bereziak
- h) Erabilera turistikorako etxebizitzak eta gelak
- i) Ikasle-egoitzak
- j) Erregelamenduz zehazten den beste edozein

77. artikulua.– Sailkapena.

1.– Turismo-ostatuak modalitatearen, taldearen eta kategoriaren arabera sailkatu ahal izango dira. Taldetzat hartzen da ostaturako turismo-enpresa mota desberdinak sailkatzen diren dibisioetako bakoitza. Ostaturako turismo-establezimenduen sailkapena erregelamenduz ezarriko da.

Ezin izango dira erabili lege honetan edo berau garatzen duten erregelamendu-xedapenetan ezarritakoez bestelako modalitate, talde edo kategoriak.

2.– Sailkapena indarrean egongo da sailkapena aitortzeko unean zeuden inguruabarrek irauten duten bitartean. Turismoaren arloan eskumena duen sailak edozein unetan berrikusi ahal izango du sailkapena ofizioz. Horretarako, dagokion prozedura izapidetuko du eta ostatuaren titularrari entzunaldia emango dio.

3.– Araudi-aldaketen ondorioz aldatu egiten badira sailkapena esleitzeko eskatutako eskakizunak, turismo-establezimenduen titularrek erregelamendu bidez ezarritako epe bat izango dute dagokion egokitzapena egiteko eta beren sailkapenari eusteko. Ez badute egokitzapen hori egiten, turismoaren arloan eskumena duen sailak arau-esparru berriaren arabera dagokien kategoria esleituko die.

4.– Turismo-ostaturako establezimenduek modalitate, talde eta kategoria bakoitzerako erregelamenduz zehaztutako gutxieneko instalazio eta zerbitzuak eduki beharko dituzte.

78. artikulua.– Turismo-ostatuen eskakizunak.

1.– Ostatu-establezimenduek hirigintza-, eraikuntza-, segurtasun-, ingurumen-, osasun- eta higiene- eta irisgarritasun-arloko eskakizunak bete beharko dituzte, bai eta aplikatzekoa zaien araudiak ezarritako beste edozein eskakizun ere.

2.– Turismo-ostaturako establezimenduen instalazioak eta lokalak egoera onean mantentzen direla bermatu beharko da, eta haien sailkapenari eta kategoriari lotutako eskakizunak betetzen dituztela.

3.– Barne-araubideko erregelamenduak portaerari eta instalazioen erabilerari buruzko arauak ezarriko ditu. Arau horiek ezingo dira legeen aurkakoak izan, erabiltzaileen eskura egongo dira, eta ostatuaren webgunean argitaratu beharko dira.

4.– Kasu hauetan, ukatu egin ahal izango da ostatuko turismo-establezimenduetan egotea edo onartzea:

a) Ostatuan edo instalazioetan lekurik ez dagoenean.

b) Barne-araubideko erregelamenduan ezarritako onarpen-eskakizunak betetzen ez direnean.

c) Beste pertsona batzuei –erabiltzaileak izan ala ez– arriskua edo eragozpenak sortu diezazkieketen jokabideak izaten direnean, edo jardueraren ohiko garapena oztopa dezaketenean.

5.– Turismo-ostaturako establezimenduek nahitaez erakutsi beharko dituzte beren sailkapena adierazten duten sinboloak, kanpoaldetik ikusgai den leku batean. Sinboloak erakusteko modua eta baldintzak dagokion erregelamendu-araudian zehaztuko dira.

6.– Hotel-establezimenduek lagun egiteko animaliak sartzea onartu ahal izango dute –baldin eta pertsonentzat, beste animalia batzuentzat eta instalazioentzat arriskutsuak ez badira– elikagaiak elaboratzeko, biltegitatzeko edo manipulatzeko ez diren eremuetan, betiere osasun publikoari buruzko araudian, udal-ordenantzetan edo aplikagarri den araudi espezifikoan xedatutakoa errespetatuta. Animaliak sartzea edo egotea onartzen ez bada, hori adierazten duen bereizgarri bat erakutsi beharko dute, establezimenduaren kanpoaldetik ikusgai den leku batean.

2. atala. Hotel-establezimenduak

79. artikulua.– Kontzeptua eta taldeak.

1.– Hotel-establezimenduak dira turismo-ostatuan aritzen diren eta hurrengo apartatuan ezartzen diren taldeetako batean sailkatu daitezkeen establezimenduak.

2.– Ostatuaren hotel-modalitatea honela sailkatzen da:

1.– Lehenengo taldea.

a) Hotelak: Ostatua eskaintzen duten establezimenduak, zerbitzu osagarriekin edo horiek eskaini gabe, eraikin bat edo batzuk edo horien zati independenteak okupatzen dituztenak. Unitate funtzional bakarra osatzen dute, erabilera eskusiboko sarrerak, eskailerak eta igogailuak dituzte, eta erregelamendu bidez ezarritako gutxieneko eskakizunak betetzen dituzte.

b) Hotel-apartamentuak: Hotel-establezimendu talde honetan, bat egiten dute hotelen berezko zerbitzu komunek eta ostatu-unitatearen barruko elikagaiak kontserbatzeko, elaboratzeko eta kontsumitzeko instalazio egokiek, eta establezimenduek erregelamendu bidez eskatutako eskakizunak betetzen dituzte.

2.– Bigarren taldea.

a) Pentsioak, hostalak eta antzekoak: Beste zerbitzu osagarri batzuekin nahiz gabe ostatua eskaintzen duten establezimenduak dira, beren tamaina, egitura, azpiegitura, zerbitzuak eta beste ezaugarri batzuk direla-eta lehenengo taldean sailkatu ezin direnak eta erregelamendu bidez ezarritako eskakizunak betetzen dituztenak.

3.– Hotel-establezimenduek lege honetan eta berau garatzeko araudian talde bakoitzarentzat identifikatutako eskakizunak bete beharko dituzte, eta ostatuaz gain zerbitzu osagarriak eskaini ahal izango dituzte.

4.– Erregelamendu bidez ezarriko dira hotel-establezimenduen kategoriak, bai eta bete behar dituzten eskakizun eta baldintzak ere.

3. atala. Apartamentu turistikoak eta antzeko modalitateak

80. artikulua.– Kontzeptua.

1.– Apartamentu turistikoak dira turismo-ostatuaren zerbitzua ematera bideratutako establezimenduak, eraikin bakar batean edo eraikin multzo batean kokatuta daudenak eta higiezin-multzo bakar bat osatzen dutenak. Ostatu-unitate horiek osorik eta eskusiboki turismo-ostatura bideratutako elementu independente gisa eskaintzen dira, bizileku iraunkorrak izan gabe, eta altzariak, instalazioak nahiz elikagaiak eta edariak kontserbatzeko, elaboratzeko eta kontsumitzeko zerbitzu egokiak dituzte. Berehalak okupatu ahal izango dira, betiere erregelamendu bidez ezarritako eskakizunak betez.

2.– Apartamentu turistikoak apartamentu-bloke gisa eratuko dira, eraikin osoa okupatuz edo eraikin multzo edo konplexu oso gisa hartuz, hala nola etxeak, txaletak edo antzekoak. Bi modalitateetan, ustiapena profesionala izango da beti.

3.– Apartamentu turistikoak erregelamendu bidez zehaztutako kategorietan sailkatuko dira.

81. artikulua.– Turismo-ostaturako establezimenduak, jabetza horizontaleko araubidean partaidetuak edo partekatutakoak.

1.– Turismo-ostaturako establezimenduak eratu ahal izango dira jabetza horizontalaren araubidean edo antzeko figuretan, baldin eta udaletako hirigintza-plangintzak horretarako aukera ematen badu eta bizitegi-eremu tentsionatua ez bada. Era berean, zorrotasunez bete beharko dira turismo-erabilera eksklusiboaren eta ustiapena-unitatearen printzipioak, ustiatzaileak aukeratzen duen merkaturatze-sistema edozein dela ere.

2.– Turismo-ostatu partekatua edo partaidetua da jabetza independenteko titulua duten unitate pribatiboek osatutakoa, higiezin multzo bakar baten parte direnak eta ustiapen-unitatearen printzipiopean soilik turismo-ostaturako erabiltzen direnak, lege honetan ezarritako eskakizunen arabera.

3.– Artikulu honetan aipatzen diren establezimenduek berme hauek bete beharko dituzte:

a) Ostatu-unitateen jabeetako bakoitzak konpromisoa hartuko du higiezin osoa –eremu komunak eta ostatu-unitate guztiak barne– enpresa ustiatzaile bakar batek kudeatzeko.

b) Espresuki debekatuta dago unitateetan obrak edo aldaketak egitea, horiek konfigurazioa edo turismo-helmuga aldatu badezakete.

4.– Ostatu-unitateen ustiapena unitateko jabe bakoitzaren eta enpresa ustiatzailearen artean sinatutako hotel-kudeaketako kontratu baten bidez egingo da nahitaez.

Entitate ustiatzaileak akreditatu beharko du gaituta dagoela establezimendu osoa ustiatzeko, edo, hala badagokio, establezimendua osatzen duten elementu edo ostatu-unitate guztiak ustiatzeko.

5.– Jabeek ezin izango diete bizitegi-erabilerarik eman beren jabetzako ostatu-unitateei. Lege honen ondorioetarako, bizitegi-erabileratzat hartuko da enpresa ustiatzaileari emakida-

kontratuan urtean gehienez bi hilabetez erabilera-erreserba edo erabilera abantailatsua aitortzea lagapen-hartzailearen alde. Espresuki debekatuta dago:

a) Jabeak unitatea hirugarrenei alokatzea edo lagatzea, kostu bidez nahiz doan, enpresa ustiatzailearekin sinatutako hotel-kudeaketako kontratuaren esparrutik kanpo.

b) Jabeak ostatu-unitatearen turismo-ustiapen independentea egitea.

6.– Unitate baten jabetza eskualdatzean, jabe berria hotel-kudeaketako kontratuan subrogatuta geratuko da.

Alde batera utzi gabe kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsari eta babesari buruzko araudian xedatutako informazio-betebeharrak, artikuluko honetan aipatzen diren higiezinak edozein titulu bidez eskualdatzen dituzten pertsonen informazio-dokumentu bat eman beharko diete ostatu-unitateak eskuratzen dituztenei, salmentaren aurretik, eskaintza lotesle gisa. Dokumentuan alderdi hauek jasoko dira, zehatz-mehatz: higiezinak turismo-ostatuaren erabileran duen eragina; bizitegi-erabilerarako debekua; ustiapen unitatea; eta artikuluko honetan ezarritako gainerako baldintzak.

7.– Enpresa ustiatzailearen jarduera bertan behera utziz gero, unitateek turismo-erabilerari atxikita jarraituko dute, eta jabeek beste enpresa ustiatzaile bat izendatu beharko dute.

8.– Turismo-agintaritza eskudunak establezimendu bati emandako kalifikazioa errebokatu egin ahal izango da, kalifikazio hura ematea ahalbidetu zuten printzipio, eskakizun edo baldintzen ez-betetze larria egiaztatzen denean, hala nola:

a) Ustiapen-unitatearen printzipioa ez betetzea.

b) Turismo-erabilera eskusiboaren printzipioa ez betetzea.

c) Hotel-operadorearen jarduera bertan behera uztea, lege honetan ezarritakoaren arabera beste operadore bat izendatu gabe.

d) Instalazio eta zerbitzuen segurtasun-, osasungarritasun-, irisgarritasun- edo kalitate-baldintzak ez betetzea, eta Administrazioak eskatutako epeetan ez zuzentzea.

4. atala. Kanpinak

82. artikulua.– Kontzeptua.

1.– Kanpinak dira behar bezala mugatutako, egokitutako eta erregelamendu bidez ezarritako instalazio eta zerbitzuak dituen lur-eremu bat okupatzen duten turismo-establezimenduak, erabiltzaileei –aldi baterako eta prezio baten truke– aire zabalean bizitzeko leku egoki bat eskaintzeko erabiltzen direnak, aterpe mugikorak, karabanak, autokarabanak, kanpin-dendak edo antzeko beste elementu eramangarri edo desmuntagarri batzuk erabiliz, bai eta titular berak aldi baterako ostaturako ustiatzen dituen instalazio egonkorak ere.

Instalazio egonkortzat jotzen dira zurez nahiz antzeko material batez egindako aurrez fabrikatutako elementu finkoak, hala nola txabolak edo bungalowak, baldin eta behe-solairuko eraikin independenteak badira.

2.– Lege honen eremutik kanpo geratzen dira:

- a) Gazteen kanpamentuak, eskolako oporretako koloniak eta antzeko jarduerak.
- b) Ekitaldi jakin batera joaten direnei aldi baterako ostatua emateko antolatutako kanpaldiak, baldin eta ekitaldia egiten den aldira soilik mugatzen badira.
- c) Erregelamendu bidez zehazten diren beste kasu batzuk.

83. artikulua.– Zerbitzuak eta eskakizunak.

- 1.– Kanpinek erregelamendu bidez zehaztutako instalazio eta zerbitzuak eduki beharko dituzte.
- 2.– Kanpinetako zerbitzuak erabiltzaileek soilik eskuratu ahal izango dituzte. Debekatuta dago kanpaldi-ostatueta lurzatiak saltzea, bai eta horiek modu jarraituan okupatzea ere.
- 3.– Erregelamendu bidez arautuko dira kanpinak ezartzeko eta haien funtzionamendurako eskakizunak, kanpinen kokalekuari dagozkion mugak eta haien sailkapena, aintzat hartuta haien lokalizazioa, instalazioak eta zerbitzuak.

84. artikulua.– Kanpaldi librearen debekua.

- 1.– Kanpaldi libretzat hartzen da ingurune naturaleko edozein lekutan aire zabalean aldi baterako bizileku-elementuak jartzea (kanpadendak, autokarabanak, etxebizitza-ibilgailuak edo antzekoak), ostatatzeko edo gaua emateko asmoz.

Euskadiko natura-ondarea babesteko eta zaintzeko, bai eta lurzorua jabetza- eta erabilera- eskubideak errespetatzeko ere, debekatuta dago kanpaldi librearen egitea, modalitate guztietan, artikulua honen hurrengo apartatuan ezarritako salbuespenekin.

- 2.– Agintari eskudunek Euskadiko natura-ondareko gune babestuetan kanpatzeko berariaz gaitutako eta baimendutako eremuak edo establezimenduak zehaztu ahal izango dituzte.

5. atala. Landa-turismoko ostatuak: nekazaritza-turismoko establezimenduak eta landetxeak

85. artikulua.– Kontzeptua eta motak.

- 1.– Landa-turismoko establezimendutzat hartzen dira landa-ingurunean kokatutako eraikinak, baldin eta, beren eraikuntza-ezaugarriak, kokapena, berezitasunak edo antzintasuna direla-eta, turismo-ostatuak zerbitzuak ematen badituzte eta jarduera hori hala iragartzen bada.
- 2.– Landa-ingurunezkat hartzen da EAEko landa-eremuak eta bertan bizi diren biztanleak barne hartzen dituen eremu sozioekonomikoa.
- 3.– Landa-turismoko ostatuak honela sailkatzen dira:
 - a) Nekazaritza-turismoko establezimenduak.
 - b) Landetxeak.
 - c) Erregelamendu bidez ezartzen diren beste kasu batzuk.

86. artikulua.– Nekazaritza-turismoko establezimenduak.

- 1.– Nekazaritza-turismoa da pertsona fisiko zein juridikoak diren nekazariak edo abeltzainek nekazaritza-ustiategi batean integratuta dituzten baserrietan prezio bidez ostatu-zerbitzu

turistikoak eskaintzea, jatetxearekin nahiz gabe, eta, horrez gain, ustiategiari zuzenean lotutako zerbitzu eta jarduera osagarriak eskaintzeko aukera izatea.

2.– Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategitzat hartzen da ustiategiaren titularrak edo titularkideek nekazaritza- edo abeltzaintza-ekoizpena bideratuta enpresa mailan –batez ere merkatu-helburuetarako– antolatutako ondasunen eta eskubideen multzoa, unitate tekniko-ekonomiko bakarra osatzen duena eta ekoizpen-baliabide erkideak eta kudeaketa bateratua ezaugarri dituen.

87. artikulua.– Landetxeak.

1.– Landetxeak dira landa-ingurunean kokatutako eraikinak, non prezio baten truke ostatu-zerbitzua eskaintzen den, mantenuarekin nahiz mantenurik gabe, eta beren ezaugarri arkitektoniko, tipologiko eta eraikuntza-ezaugarriak direla-eta arkitektura tradizionalaren kontzeptuari eta kokapen-eremuaren tipologiari erantzuten diotela. Zerbitzu osagarriak ere eskain ditzakete.

2.– Ez dira landetxetzat hartuko jabetza horizontaleko araubidean antolatutako etxebizitza-bloke baten parte izanik ostatu-zerbitzuak ematera bideratzen diren etxebizitzak.

Etxebizitza-bloketzat hartzen da egitura bertikala duten eraikin oro, etxebizitza multzo bat edo bizileku-unitate independente batzuk biltzen dituen, erabilera partekatuko elementuekin.

88. artikulua.– Funtzionamendua.

1.– Erregelamendu bidez zehaztuko dira landa-turismoko ostatuak bete beharreko funtzionamendu-araubidea eta eskakizunak, bai eta haien ezaugarriak, instalazioak eta zerbitzuak ere.

6. atala. Turismo-aterpetxeak

89. artikulua.– Kontzeptua.

1.– Turismo-aterpetxetzat hartzen dira publiko orokorrari modu profesionalean eta prezio baten truke ostatu-zerbitzuak eskaintzen dizkieten establezimenduak, plaza bakarreko geletan, gela kolektiboetan nahiz plaza anitzeko geletan, eta zerbitzu eta instalazio komunak dituztenak ostatu-hartzaileen eskura. Establezimendu horiek, jatetxe-zerbitzu osagarriekin nahiz gabe, aisialdiko, hezkuntzako, kiroleko edo naturarekin lotutako jarduerak eskaintzeko aukera izan dezakete.

Gela kolektiboak edo plaza anitzeko gelak dira lau plaza edo gehiago dituztenak.

2.– Turismo-ostatu mota honen barruan sartzen dira turismo-aterpetxe edo «hostel» gisa merkaturatzen diren publiko orokorrari irekitako establezimenduak, baldin eta aterpekide-txartelik ez duten pertsonen ostatu ematen badiete edo, oro har, publiko orokorrari irekita badaude, beren izendapena edozein dela ere.

3.– Lege honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira:

a) Haur eta gazte taldeentzako egonaldi eta ostaturako aterpetxeak eta instalazioak, aisialdiko, kulturako, laguntzako edo eskolako irakaskuntzaren osagarri diren jardueren esparruan. Horiek beren araudi espezifikoak izango dute.

b) Erromesen aterpeak eta gela anitzeko ostatuak, baldin eta zerbitzua kontraprestazio ekonomikorik gabe ematen bada eta jarduera borondatezko dohaintzaren edo doakotasunaren printzipiopean garatzen bada, edo irabazi-asmo komertzialik gabeko laguntza- edo erlijio-helburuak dituzten entitateek kudeatzen badituzte.

c) Erregelamendu bidez ezartzen diren beste kasu batzuk.

90. artikulua.– Eskakizunak.

1.– Erregelamendu bidez ezarriko dira turismo-aterpetxeen funtzionamendu-araubidea, kategoriak eta gutxieneko eskakizunak, bai eta turismo-aterpetxeen instalazioen ezaugarri teknikoak ere.

2.– Era berean, erregelamendu bidez zehaztuko da establezimendu bakoitzak plaza bakarreko geletan edo gela partikularretan eskaini ahal izango duen gehieneko plaza kopurua. Muga hori gaindituz gero, gela partikularren multzoa bestelako establezimendu motatzat hartuko da.

7. atala. Etxebizitza-ibilgailuen harrera-eremuak

91. artikulua.– Kontzeptua.

1.– Etxebizitza-ibilgailuen harrera-eremuak dira behar bezala mugatutako, egokitutako eta behar diren azpiegiturez hornitutako lurzati edo lursail batean kokatutako turismo-establezimenduak, helburu bakarra dutenak etxebizitza-ibilgailuek aldi baterako okupatzea eta bertan gaua ematea ahalbidetzea; besteak beste, autokarabanak, karabanak, camper-ak eta antzeko ibilgailuak, bai eta horietan bidaiatzen duten pertsonak ere.

2.– Zerbitzuak prezio baten truke emango dira eta barnean hartuko dituzte, gutxienez, biltegiak husteko eta garbitzeko gune erabilgarriak, edateko uraren hornidura eta sare elektrikorako konexioa.

3.– Lege honen eremutik kanpo geratzen dira:

a) Kultura-, jolas- edo kirol-ekitaldietarako behin-behineko kanpaldi-eremuak, baldin eta haien funtzionamendua ekitaldiaren iraupenari mugatuta badago.

b) Ibilgailuak hartzeko, zaintzeko eta babesteko diseinatutako eta denbora-tarte jakin baterako soilik erabiltzen diren instalazioak.

c) Erregelamendu bidez zehazten diren beste kasu batzuk.

92. artikulua.– Eskakizunak.

1.– Naturagune babestuetan kokatutako lurretan daudenean, aplikatzekoa den ingurumen-araudiak eskatzen dituen baimen eta txostenak beharko dira.

2.– Etxebizitza-ibilgailuei soilik emango zaizkie zerbitzuak, eta debekatuta egongo da kanpin-dendak edo bestelako ostatu mugikor edo finkoak instalatzea.

3.– Erregelamendu bidez zehaztuko dira etxebizitza-ibilgailuen harrera-eremuek bete beharreko baldintzak eta eskaini beharreko zerbitzuak.

8. atala. Turismo-ostatu bereziak

93. artikulua.– Kontzeptua eta ezaugarriak.

- 1.– Turismo-establezimendu berezizat hartzen dira kontraprestazio ekonomikoaren edo ostatu-zerbitzuen bitartez ematen diren establezimenduak, salbuespenezko ezaugarri edo arkitektura-konfigurazio bereziak dituztenak edo lege honetan definitutako gainerako turismo-establezimenduetan sartu ezin direnak.
- 2.– Ez da establezimendu berezizat hartzen lege honetan ezarritako modalitateetako bat aplikatzekoa izan arren modalitate horretarako eskatzen diren eskakizun tekniko bat edo batzuk betetzen ez dituen establezimendua.
- 3.– Turismoaren arloan eskumena duen sailari dagokio establezimendu berezi gisa kalifikatzea, erregelamendu bidez zehaztutako eskakizun eta baldintzen arabera.

9. atala. Erabilera turistikorako etxebizitzak eta gelak

94. artikulua.– Erabilera turistikorako etxebizitzak.

- 1.– Erabilera turistikorako etxebizitzatzat jotzen dira etxebizitza turismo-ostaturako erabiltzeko eskubidea ematen dien titulu juridiko balioduna eta nahikoa duten pertsona fisiko edo juridikoek, zuzenean nahiz zeharka, prezio baten truke aldi baterako lagatzen dituzten etxebizitza independenteak, altzariz hornituak eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztzen denetik berehala erabiltzeko moduan daudenak.

Erabilera turistikorako etxebizitza bat beti laga beharko da osorik, merkaturatzeko eta erabiltzeko unitate zatiezintzat.

- 2.– Turismo-helburua dagoela joko da etxebizitzak turismo-eskaintzarako kanalen bidez eskaintzen, iragartzen edo merkaturatzen direnean. Lege honen ondorioetarako, turismo-eskaintzarako kanaltzat hartuko dira kontraprestazio ekonomiko baten truke aldi baterako ostatu bitartekaritza edo erreserba errazten dutenak; besteak beste, bidaia-agentziak eta bidaia-agentzia handizkariak, bitartekaritza-plataformak, ostatu metabilatzaileak, webguneak eta sare sozialak.

- 3.– Ezin izango da erabilera turistikorako etxebizitza gisa merkaturatu babes ofizialeko araubide bati atxikitako etxebizitzarik, babes-modalitatea edozein dela ere, baldin eta etxebizitzak indarrean badu emandako babes-araubidea, dagokion araudi espezifikoaren arabera.

Etxebizitzaren titularrari edo kudeatzaileari dagokio, erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko unean, etxebizitza babes publikoko ezein araubideri lotuta ez dagoela deklaratzeko.

- 4.– Erabilera turistikoko etxebizitzaren jarduera hasteko, jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar zaio Euskadiko turismo-administrazioari. Adierazpenean, pertsona fisiko edo juridikoak erregelamendu bidez zehaztutako eskakizunak betetzen dituela adierazi beharko du.

- 5.– Etxebizitzaren arloan eskumena duen sailak bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu gisa deklaraturako eremuetan, erabilera turistikorako etxebizitza eta gela berrien jarduera eten egingo da automatikoki, eta etenda egongo da deklarazio hori indarrean dagoen bitartean. Horren ondorioz, ez da onartuko haien jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpena, eta ez dira inskribatuko Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan.

6.– Halaber, aurreko apartatuan jasotako etete automatikoa aplikatuko da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 85. artikuluan 1. eta 2. apartatueta – edo hura ordeztzen duen arauan– jasotako kasuetan.

7.– Inola ere ezingo da erabilera turistikorako etxebizitzarik ezarri hirigintza-plangintzan urbanizaezintzat sailkatutako lurzoruetan.

Halaber, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 29. artikuluan definitutako landaguneetan ezin izango da erabilera turistikorako etxebizitzarik edo gelarik ezarri, baldin eta kokatuta badaude eremuko arkitektura tradizionalarekin bat datozen nekazaritza-ustiatzietan edo etxebizitzetan.

8.– Erabilera turistikorako etxebizitzaren ustiatzaileek barne-araubideko arauak ezarri beharko dituzte, eta arau horiek erabiltzaileen esku egongo dira. Bizikidetza onaren eta higieenaren arauak betetzen ez dituzten erabiltzaileek utzi egin beharko dute etxebizitza.

Era berean, 933/2021 Errege Dekretuan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte (933/2021 Errege Dekretua, urriaren 26koa, zeinaren bidez ezartzen baita zer betebeharrak dituzten ostatu-jarduerak egiten eta motordun ibilgailuak alokatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoen dokumentu-erregistroari eta informazioari dagokienez), edo hura ordeztzen duen araudian ezarritakoak.

9.– Erregelamendu bidez garatuko dira erabilera turistikoko etxebizitzek bete beharreko funtzionamendu-araubidea, eskakizunak, gehieneko plaza kopurua eta baldintzak, bai eta horien bereizgarriak ere. Erabilera turistikoko etxebizitzek agerian izan beharko dituzte identifikazio-plaka eta Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroko inskripzio-zenbakia, jendeak ondo ikusteko moduko lekuan.

10.– Lege hau indarrean jartzen denetik aurrera, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan inskribatzen diren erabilera turistikorako etxebizitzak berriek bost urtean behin berriro beharko dute inskripzioa, indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintzak eta eskakizunak betetzen dituela akreditatzen duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuz.

Berritzea eskatu beharko da hasierako inskripzioaren muga-egunaren aurreko hiru hilabeteen barruan. Eskatzen ez bada, automatikoki ezereztuko da Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroko inskripzioa.

95. artikulua.– Erabilera turistikorako gelak.

1.– Erabilera turistikorako gela jarduera honetan datza: altzariz hornituta eta berehala erabiltzeko moduan dagoen gela bat edo batzuk prezio baten truke lagatzean, helburu turistikoekin. Jardueraren titularra erabilera turistikorako gelak dauden etxebizitzan biziko da.

2.– Turismo-xedea dagoela joko da gelak indibidualki eskaintzen, iragartzen edo merkaturatzen direnean. Ez da onartuko gelak kokatuta dauden etxebizitzaren lagapen osoa egitea turismo-eskaintzarako kanalen bidez. Lege honen ondorioetarako, turismo-eskaintzarako kanaltzat hartuko dira aldi baterako ostatuen sustapena, bitartekaritza edo erreserba errazten dutenak kontraprestazio ekonomiko baten truke; besteak beste, bidaia-agentziak eta turismo-bitartekaritzako beste enpresa batzuk, bitartekaritza-plataformak, ostatuen metabilatzaileak, webgunak eta sare sozialak.

3.– Debekatuta dago eskaintza anizkoitza egitea; hau da, etxebizitza baten edo gehiagoren titularra den pertsona fisiko edo juridikoak ezin izango ditu gelak etxebizitza batean baino gehiagotan eskaini edo merkaturatu.

4.– Erabilera turistikorako gelen ostatu-jarduera hasi ahal izateko, jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da Euskadiko turismo-arloan eskumena duen sailean.

5.– Erregelamendu bidez garatuko dira erabilera turistikorako gelek bete beharreko funtzionamendu-araubidea, plazen gehieneko kopurua, eskakizunak eta baldintzak, bai eta horien bereizgarriak ere.

10. atala. Ikasle-egoitzak

96. artikulua.– Kontzeptua eta aplikazio-eremua.

1.– Lege honen ondorioetarako, ikasle-egoitzatzat joko dira jarduera nagusitzat irakaskuntza ofizialeko zentroetan matrikulatutako ikasleei ostatu-zerbitzuak ematea duten ostatu-establezimenduak eta, hala badagokio, zerbitzu osagarriak ere ematen dituztenak.

2.– Artikulu honen aplikazio-eremuak barnean hartzen ditu beren instalazioak egonaldi turistikoetarako eskaini nahi dituzten ikasle-egoitza publiko nahiz pribatu guztiak.

97. artikulua.– Eskakizunak.

1.– Ikasle-egoitzek aukera izango dute jarduera akademikorik gabeko aldietan beren instalazioak turismo-erabilerara bideratzeko. Nolanahi ere, aldi horretan, gutxienez logelen % 10 bideratu beharko dute hezkuntza-komunitateko kideentzat eta ikasleentzat.

Eskolaldian zehar, ikasle-egoitzek aukera izango dute beren plazen gehienez % 10 turismo-erabilerara bideratzeko. Nolanahi ere, horrek ez du aldatuko haien ikasle-egoitza izaera nagusia.

2.– Noizbehinkako turismo-erabilerak ezingo du ikasle-egoitzaren funtzio nagusia kaltetu edo aldatu ikasleentzako ostatu- eta zerbitzu-zentro gisa.

3.– Turismoaren arloan jardun ahal izateko, udalaren hirigintza-araudiak baimendutako erabileren nahitaezko bateragarritasuna izan behar du, dagokion udalak egindako hirigintza-bateragarritasuneko txostenaren bidez egiaztatuta. Txostenean akreditatu beharko da higiezinak bizitegi-erabilera zein turismo-erabilera ahalbidetzen dituela, indarrean dagoen hirigintza-plangintzarekin bat etorritik.

4.– Ikasle-egoitzak turismoaren arloan eskumena duen sailari jakinarazi beharko dio zein aldi zehatzetan izango duen noizbehinkako turismo-erabilera. Urtean gehienez hiru hilabetekoa izango da aldi hori. Ikasle-egoitzak erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egin beharko du jakinarazpena.

5.– Noizbehinkako turismo-jarduera egin nahi duten ikasle-egoitzek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Erantzukizun zibileko aseguru bat izatea, noizbehinkako turismo-erabileratik eratorritako arriskuak espezifikoki estaltzeko.

b) Aldi baterako turismo-jarduera egiten duen ikasle-egoitza dela akreditatzen duen bereizgarria agerian eta ikusgai jartzea.

c) Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea eta, ondoren, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan inskribatzea.

d) Merkaturatze- eta publizitate-kanal guztietan turismo-erregistroaren identifikazio-zenbakia agerian erakustea.

e) 933/2021 Errege Dekretuan ezarritako betebeharrak betetzea (933/2021 Errege Dekretua, urriaren 26koa, zeinaren bidez ezartzen baita zer betebeharrak dituzten ostatu-jarduerak egiten eta motordun ibilgailuak alokatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek dokumentu-erregistroari eta informazioari dagokienez), edo hura ordeztzen duen araudian ezarritakoak.

6.– Erregelamendu bidez ezarriko dira turismo-jardueran aritzeko bete behar diren gutxieneko eskakizunak.

IV. KAPITULUA

Turismo-bitartekaritza

98. artikulua.– Kontzeptua eta motak.

1.– Turismo-bitartekaritzako enpresatzat hartzen dira erregelamendu bidez zehazten diren eskakizunak betetzeaz gain turismo-zerbitzuen salmentan eta antolaketan merkaturatze-, aholkularitza-, informazio- eta bitartekaritza-jarduerak modu profesionalean garatzen dituzten enpresak, aurrez aurreko nahiz urrutiko salmenta-prozeduren bidez.

2.– Lege honen ondorioetarako, turismo-bitartekaritzako enpresak honela sailkatzen dira:

a) Bidaia-agentziak.

b) Erreserba-zentroak.

c) Kongresuak antolatzen dituzten enpresa profesionalak.

d) Hala badagokio, erregelamendu bidez ezartzen diren beste batzuk.

99. artikulua.– Bidaia-agentziak.

1.– Bidaia-agentziatzat hartzen dira prezio baten truke eta modu profesionalean turismo-zerbitzuen bitartekaritza- eta antolaketa-jardueretan diharduten pertsona fisiko edo juridikoak, zeinentzat soilik erreserbatuta baitago bidaia konbinatuak antolatzea eta publiko orokorrari merkaturatzea –bidaia konbinatuen araudi espezifikoan ezarritako eskakizunen arabera–, bai eta publiko orokorrari lotutako zerbitzuak ematea ere.

Ondorio horietarako, bidaia-agentziatzat hartzen dira, halaber, plataforma digitalen edo bitarteko elektronikoen bidez jarduten duten enpresak, lineako bidaia-agentziak barne.

2.– Bidaia-agentziek beren gain hartuko dituzte bidaia konbinatuen araudian aurreikusitako erantzukizunak, eta antolatzailea izango da bidaia konbinatua behar bezala gauzatzearen erantzulea, alde batera utzi gabe txikizkariak informazioaren eta merkaturatzearen arloan dituen betebeharrak.

3.– Bidaia-agentziek modalitate hauen arabera jardun ahal izango dute:

a) Antolatzailea: Bidaia konbinatuak diseinatzeko eta antolatzen dituen eta agentzia txikizkarien bidez merkaturatzen dituen bidaia-agentzia da. Bere produktuak kontsumitzaileei zuzenean eskaini edo saldu ahal izango dizkie, zuzeneko eskaintzaren edo salmentaren bidez, bai eta txikizkari gisa jarduten duten beste agentzien bidez ere.

b) Txikizkaria: Antolatzaile batek diseinatutako bidaia konbinatuak zuzenean kontsumitzaileari eskaintzen edo saltzen dizkion bidaia-agentzia da, eta, era berean, mota guztietako zerbitzu indibidualizatuak egiten, antolatzen eta saltzen dituena.

Turismo-zerbitzu indibidualizatutzat hartzen dira modu independentean eta isolatuan merkaturatzen eta kontratatzen direnak, prezio globalean saltzen den zerbitzu-konbinazio baten parte ez direnak eta lotutako bidaia-zerbitzua ez direnak; bidaia konbinatuei eta lotutako bidaia-zerbitzuei aplikatu beharreko araudi espezifikoaren arabera definitzen dira.

c) Mistoa: Aurreko bi kategorietako jarduerak aldi berean egin ditzakeen agentzia da.

4.– «Bidaia» edo «bidaiak» terminoa izendapen komertzial gisa bakarrik erabil dezakete bidaia-agentziaren legezko izaera duten enpresek, lege honetan eta gainerako erregelamendu-xedapenetan aurreikusitakoaren arabera.

5.– Euskadin jardun nahi duten bidaia-agentziek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute.

Europar Batasunaren eremutik kanpo kokatuta dauden eta Euskadin establezimendu bat ireki nahi duten bidaia-agentziek jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko diote turismo-administrazioari, eta horren barruan bermea eratu izanaren adierazpena ere jasoko da.

6.– Bidaia-agentziaren jardueran aritzeko, pertsona fisiko edo juridikoek berme hauek eratu eta modu iraunkorrean indarrean mantendu beharko dituzte, beren jarduera egiten duten aldi osoan:

a) Bidaia konbinatuetaarako, kaudimengabeziari aurre egiteko bermea izan beharko da, egindako ordainketen itzulketa bermatuko duena, baieta behar izanez gero aberriratzeko eta bidaiarekin jarraitzeko, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren 164. artikulutik 166.era bitarteko xedapenetan jasotzen denaren arabera. Lotutako bidaia-zerbitzuetarako, berriz, kaudimengabeziari aurre egiteko bermea izan beharko da, zerbitzuaren hornitzaileari transferitu ez zaizkion ordainketak itzultzeko, lege beraren 167. artikuluan arabera.

b) Erantzukizun zibileko aseguruia, bidaia-agentziaren jarduketetatik erator daitezkeen kalte-galerak estaltzeko.

Bermeen existentzia eta indarraldia bidaia-agentziak jarduerarekin hasteko aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenean jaso beharko dira, eta gutxienez alderdi hauek adierazi beharko dira: berme-tresna, entitate bermatzailea, harpidetza-data eta estaldura-epea.

7.– Bidaia-agentziek ezin izango dute merkaturatu, erreserbatu edo berretsi plaza edo zerbitzu turistikoaren kopururik, beren baliabide errealek gainditzen baditu.

8.– Bidaia-agentziek identifikazio-datu hauek jasoko dituzte beren publizitatean, dokumentazio komertzialean, kontratuetan eta bestelako komunikazio-kanaletan:

a) Turismoaren arloan eskumena duen sailak emandako identifikazio-kodea. Sukurtsalak bidaia-agentzia nagusiari emandako identifikazio-kodeari lotuta geratuko dira.

b) Agentziaren izen soziala edo izendapena.

c) Erabilitako marka komertzialaren izena.

d) Bidaia-agentziaren helbidea edo egoitza soziala.

9.– Erregelamendu bidez zehaztuko dira bidaia-agentziek bete beharreko baldintzak, eskakizunak eta funtzionamendu-araubidea, bai eta bermeen eta aseguruaren zenbatekoak eta ezaugarriak ere.

100. artikulua.– Erreserba-zentroak.

1.– Erreserba-zentroak turismo-zerbitzuak modu indibidualizatuan erreserbatzen dituzten enpresak dira; nolanahi ere, ez dute bidaia konbinatuak antolatzeke ahalmenik, eta ezin dute erabiltzaileengandik kontraprestazio ekonomikorik jaso.

2.– Erregelamendu bidez ezarriko dira bitartekaritza-modalitate honek bete beharreko baldintzak eta eskakizunak.

101. artikulua.– Kongresuak antolatzen dituzten enpresa profesionalak.

1.– Kongresuak antolatzen dituzten enpresa profesionalak irabazi-asmoa duten pertsona fisiko edo juridikoak dira, hirugarrenentzako kongresu, konbentzio, jardunaldi, azoka, bilera eta antzeko ekitaldietarako zerbitzuak ematen dituztenak, aholkularitza, plangintza, koordinazio, kudeaketa eta exekuzioaren arloetan.

2.– Kongresuak antolatzen dituzten enpresa profesionalek ostatu-, jatetxe- eta garraio-erreserbari lotutako zerbitzuak eskaini ahal izango dituzte, baldin eta zerbitzu horiek enpresak antolatzen dituen jardueretako bat egiteko soilik eskaintzen badira, hala nola kongresuak, jardunaldiak, azokak edo ekitaldi korporatiboak, bertako parte-hartzaileentzat eta, hala badagokio, ekitaldi horietara joandako haien laguntzaileentzat.

3.– Kongresuak, azokak, jardunaldiak edo ekitaldi korporatiboak antolatzen dituzten enpresek erantzukizun zibileko aseguru bat izan beharko dute, beren jardueratik erator daitezkeen kalte pertsonalak eta materialak estaltzeko.

4.– Jardueran hasteko eta horretan aritzeko, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko zaio turismoaren arloan eskumena duen sailari. Adierazpen horrek aukera emango dio enpresari jardueran aritzeko aurkeztu den unetik aurrera, alde batera utzi gabe egiaztapen-, kontrol- eta ikuskaritza-eskumenak.

VI. KAPITULUA

Turismo aktiboko, abenturako eta ekoturismoko enpresak

102. artikulua.– Turismo aktiboko eta abenturako enpresak.

1.– Turismo aktiboko eta abenturako enpresatzat jotzen dira prezio baten truke aisialdiko, kiroleko eta abenturako turismo-jarduerak eskaintzen dituztenak, jarduerak garatzen diren ingurunean (airea, lurra, lurpea edo ura izan) batez ere naturak berak eskainitako baliabideez baliatuta, eta arrisku-faktoreak edo nolabaiteko trebetasun edo ahalegin fisikoak berezkoak dituztenak.

2.– Ez dira turismo aktiboko eta abentura-turismoko enpresatzat hartuko kirol-klubak eta -federazioak, baldin eta ingurune naturalean jarduerak antolatzen badituzte bazkide federatuei edo afiliatuei bakarrik zuzenduta, eta ez publiko orokorrari.

103. artikulua.– Eskakizunak.

1.– Turismo aktiboko eta abentura-turismoko jarduerak ingurumen-babesaren arloko araudia betez egingo dira, betiere ingurune naturala errespetatzen dela bermatuz.

2.– Turismo aktiboko eta abentura-turismoko enpresek jarduerak egiteko erabiltzen dituzten eta erabiltzaileen eskura jartzen dituzten ekipoek eta materialek organismo eskudunek homologatuta egon beharko dute.

3.– Turismo aktiboko eta abentura-turismoko enpresek aldeko txostenak edo baimenak lortu beharko dituzte inplikaturako Administrazio publikoen eskutik, kasuan kasuko jardueraren edo jarduera garatzen den ingurunearen ezaugarrien arabera.

4.– Erregelamendu bidez ezarriko dira enpresa horiei aplikatu beharreko eskakizunak eta araubidea.

104. artikulua.– Aseguruak.

1.– Turismo aktiboko enpresek istripu-asegurua eta erantzukizun zibileko asegurua izan behar dituzte, eskaintzen eta ematen dituzten jarduerak egiteagatik enpresari egotz dakizkikeen arriskuak estaltzeko, bai eta zerbitzu horiek ematean izandako istripuen ondoriozko erreskate-, lekualdatze- eta laguntza-aseguruaren poliza bat ere.

2.– Erregelamendu bidez zehaztuko dira estalduraren gutxieneko zenbatekoak eta lege honetan aipatzen diren aseguruaren berariazko ezaugarriak.

105. artikulua.– Ekoturismo-enpresak.

1.– Lege honen ondorioetarako, ekoturismo-enpresatzat hartzen da eskuarki eta modu profesionalean natura- eta kultura-ondarea interpretatzera, ingurumen-hezkuntza eta -sentsibilizaziora, floraren eta faunaren behaketa arduratsura eta ingurunearen kontserbazioan ekarpen eraginkorra egitera bideratutako turismo-jarduerak antolatzen, eskaintzen edo ematen dituen pertsona fisiko edo juridiko oro, kontraprestazio ekonomiko baten truke.

2.– Ekoturismo-enpresek aplikatzekoa den ingurumen-legeriaren arabera jardun behar dute, ingurumena zaintzeko neurriak hartuz eta beharrezkoak diren baimenak lortuz. Jarduera horiek naturagune babestuetan egiten direnean, haien berariazko araudia aplikatuko da.

3.– Ekoturismo-enpresek erabilitako eta erabiltzaileen eskura jarritako ekipo eta material guztiek agintari eskudunek homologatuta egon beharko dute.

4.– Erregelamendu bidez ezarriko dira horrelako enpresei aplikatu beharreko eskakizunak eta araubidea.

VII. KAPITULUA

Erabilera turistikorako etxebizitzak kudeatzen dituzten enpresak

106. artikulua.– Kontzeptua.

Lege honen ondorioetarako, erabilera turistikorako etxebizitzaren enpresa kudeatzailatzat hartzen dira erabilera turistikorako etxebizitzak kontraprestazio ekonomiko baten bidez modu profesionalean eta eskuarki kudeatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, ostatatze-jarduera modu integralean merkaturatzen eta kudeatzen dutenak erabilera turistikorako hamar etxebizitzatan edo gehiagotan, etxebizitzaren erabilera-eskubidearen jabearen edo titularren izenean eta hura ordezkatzuz.

107. artikulua.– Funtzionamendu-araubidea.

1.– Enpresa kudeatzaileak, ostatatze-jardueraren titularra den aldetik, bere gain hartzen du jarduera hori behar bezala funtzionatzeko zuzeneko erantzukizuna erabiltzailearen eta turismoaren arloan eskumena duen sailaren aurrean. Hala, zuzeneko erantzukizuna izango du jardueraren kudeaketaren ondoriozko arau-hauste edo ez-betetze ororengatik.

2.– Enpresa kudeatzaileak erregelamendu bidez zehaztutako baliabide materialak eta langileak eduki beharko ditu zerbitzu egokia eta profesionala bermatzeko, bai eta lege honetatik eratortzen diren betebeharrak betetzeko ere.

3.– Erabilera turistikorako etxebizitzak kudeatzen dituen enpresa orok, gainera, establezimendu bat izan beharko du erabiltzaileei aurrez aurreko arreta eskaintzeko, enpresak jarduten duen hiriburu, eskualde edo kuadrilla bakoitzean, eta jendearentzako arreta-ordutegi definitua izango du. Horrez gain, enpresa kudeatzaileak arretarako telefono-zerbitzua edo zerbitzu telematikoa erabilgarri izan beharko du egunaren 24 orduetan eta astearen 7 egunetan, egonaldian zehar sortu daitekeen edozein gorabeherari edo larrialdiari erantzuteko.

VIII. KAPITULUA

Turismo-gidariak

108. artikulua.– Kontzeptua.

1.– Turismo-gidaritzat jotzen da pertsona edo talde nazionalak zein internazionalak helmuga turistiko batean dauden edo ibilbide bat egiten ari diren bitartean Euskadiko ondare kultural, historiko, artistiko, geografiko, etnografiko eta gastronomikoari buruzko laguntza-, informazio- eta interpretazio-zerbitzuak ordainpean eta profesionalki ematen dizkien pertsona fisiko oro.

109. artikulua.– Zerbitzua ematea.

1.– Turismo-gidariaren jarduera askatasunez gauzatu daiteke, salbu eta EAEko kultura-ondarea integratzen den kategoria bateko ondasuntzat katalogatutako elementuen barrualdean, 6/2019 Legean ezarritakoaren arabera (6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena, azaroaren 30eko 14/2023 Legeak aldatua), edo hura ordeztzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

2.– Zirkulazio askeko bide edo espazio publikoak beti dira turismo-gidariaren zerbitzuak askatasunez emateko guneak. Udalek, espazio publikoaren erabilerari eta kudeaketari buruz dituzten eskumenak erabiliz, zenbait alderdi erregulatu ahal izango dituzte jendetza biltzen den eremuetan, hala nola edukieren kontrola, zarataren kudeaketa, oinezkoen edo ibilgailuen joan-etorriak ez oztopatzea edo hiri-altzariak eta ondareko elementuak errespetatzea.

110. artikulua.– Eskakizunak.

1.– Euskadin turismo-gidariaren jarduera askatasunez ematekoa ez den lekuetan bete ahal izateko, dagokion gaikuntza eduki beharko da, turismo-arloan eskumena duen sailak aitortua eta emana. Horretarako, erregelamendu bidez ezartzen diren titulazioak eta hizkuntza-ezagutzak eduki beharko dira.

2.– Beste autonomia-erkidego batzuetan edo Europar Batasuneko beste estatu batzuetan aitortuta edo gaituta dauden turismo-gidariak Euskadin aldi baterako aritu ahal izango dira turismo-gidari jarduten, zerbitzu horiek askatasunez eman ezin diren lekuetan, baldin eta alde zuzeneko jakinarazpen baten bidez egiaztatzen badute haien inskripzioa indarrean dagoela dagokien erregistro turistikoan, lege honetan ezarritako moduan.

3.– Jarduera klandestinoztat hartuko da edozein hedabideren bidez turismo-gidariaren lanbidearen publizitatea egitea edo turismo-gidaritzan eraginkortasunez aritzea, lanbide horretan hasteko eta jarduteko eskatzen diren baldintzak bete gabe.

IX. KAPITULUA

Turismo-intereseko jarduerak

111. artikulua.– Kontzeptua.

1.– Turismo-intereseko jardueratzat hartu ahal izango da prezio baten truke turismoa dinamizatzen laguntzen duen eta Euskadiko lurraldean turismo-zerbitzuen erabiltzaileen egonaldiak errazten dituen jarduera.

2.– Turismo-intereseko jardueren barruan, hauek sartuko dira:

- a) Jatetxe- eta ostalaritza-arloko establezimenduak.
- b) Kultura-zerbitzuetako enpresak.
- c) Turismo-ibilbideak egiten dituzten garraio-enpresak.
- d) Kultura-ondarea ezagutarazten duten enpresak eta entitateak.
- e) Aisialdi-zentroak.
- f) Erregelamenduz zehazten diren beste batzuk.

3.– Aurreko artikuluan aipatutako jarduerari kalifikazio-prozesuak egin ahal izango zaizkie. Prozesu horien forma eta irismena erregelamendu bidez ezarriko dira.

X. TITULUA

Turismo-diziplina

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak.

112. artikulua.– Xedea.

Turismo-diziplinaren xedea da ikuskaritza-ahala arautzea, turismoaren arloko arau-haustea tipifikatzea, arau-hauste horiei aplikatu beharreko zehapenak zehaztea eta arau-hauste horiek Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan aplikatzea bermatzen duen zehapen-prozedura ezartzea.

113. artikulua.– Turismo-diziplinari lotzea.

Lege honetan araututako turismo-diziplinaren mende egongo dira turismo-establezimenduen eta turismo-eskaintza merkaturatzeko edo sustatzeko kanalen titular edo kudeatzaile diren pertsona fisiko edo juridikoak, bai eta turismo-lanbide bat dutenak edo turismo-jarduerak eskaintzen dituztenak ere.

Era berean, turismo-diziplinaren araubidearen mende egongo dira erabilera turistikorako etxebizitzak eta gelen titular, jabe edo kudeatzaile diren pertsona fisiko edo juridikoak.

II. KAPITULUA

Turismo Ikuskaritza

114. artikulua.– Ikuskaritza-ahalaren titulartasuna.

1.– Euskadiko turismo-administrazioari dagokio lege honetan eta berau garatzen duten xedapenetan jasotakoa betetzen dela kontrolatzea, ikuskatzea eta egiaztatzea. Turismo Ikuskaritzaren zerbitzuen bidez egingo du hori.

2.– Ikuskaritza-jarduerari lege honetan eta berau garatzeko arauetan zehaztutakoa aplikatuko zaio.

115. artikulua.– Turismo Ikuskaritzaren jarduketaren eremua.

1.– Turismo-ikuskatzaileei dagokie aplikatzeko den turismo-araudiak ezarritako betebeharrak betetzen direla egiaztatzea eta zaintzea.

2.– Ikuskaritza-jardueraren plangintza egokia bermatzeko, turismoaren arloan eskumena duen sailak Turismo Ikuskaritzaren Plan bat onetsi ahal izango du urtero. Plan horretan, ikuskaritza-jarduketaren helburuak, ikuskatu beharreko establezimenduak eta horien geografia- eta denbora-eremua ezarriko dira.

116. artikulua.– Turismo Ikuskaritzaren funtzioak.

Turismoaren arloko ikuskaritzak funtzio hauek izango ditu:

a) Aplikatzeko den turismo-araudia betetzen dela egiaztatzea eta kontrolatzea, bereziki jarduera klandestinoak eta legez kanpoko eskaintza pertsegitzeko.

b) Turismo-zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak errespetatzen direla zaintzea.

c) Lege honetan ezarritakoaren arabera turismo-araudia urratzea eragin dezaketen erreklamazio, kexa eta salaketak eragin dituzten gertakariak egiaztatzea.

d) Turismo-legeriak eskatzen dituen nahitaezko azpiegiturak, eskakizunak eta zerbitzuak daudela egiaztatzea.

e) Bere eskumeneko gaiei buruzko txostenak egitea.

f) Interesdunei informazioa eta aholkuak ematea, hala eskatzen dutenean, beren eskubide eta betebeharrei buruz, bai eta indarrean dagoen turismo-araudia betetzeari eta aplikatzeari buruz ere.

g) Ikuskaritza-funtzioa betetzean sortutako ikuskaritza-aktak egitea eta izapidetzea.

h) Turismo-araudiak hala xedatutako kasuetan, turismo-jarduera ixten edo eteten parte hartzea, neurri horiek behin-behinean edo behin betiko hartzen badira.

i) Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura dirulaguntza edo finantzaketa publikoa jaso duten turismo-jardueren garapenari buruzko inbertsioak egiaztatzea eta haien jarraipena egitea.

j) Urgentziazko arrazoiengatik behin-behineko neurriak hartzea, erabiltzaileen osasunerako eta segurtasunerako arrazoizko zantzuak daudenean, administrazio-prozedura hasi aurretik, dagokion akta eginez. Akta horretan, neurriak hartzeko arrazoiak eta premia justifikatuko dira.

k) Zehapenezko administrazio-prozeduretan laguntzea, organo eskudunak agindutako eginbideak egikaritzuz.

l) Erantzukizunpeko adierazpenetan, aldez aurreko jakinarazpenetan eta erregelamendu bidez eskatzen diren gainerako agirietan jasotako datuak zuzenak direla ziurtatzeko behar diren egiaztapenak egitea.

m) Lege edo erregelamendu mailako arau batek esleitzen dion beste edozein ikuskaritza-funtzio.

117. artikulua.– Turismo-ikuskatzaileen ahalmenak.

1.– Ikuskatzaileek ahalmen hauek izango dituzte:

a) Turismo-jarduerak egiten diren edozein higiezin, lokal, establezimendu, instalazio, espazio edo ingurune digitaletan edo turismo-zerbitzuari lotutako ondoko lekuetan sartzea eta bertan egotea, edozein unetan eta aldez aurretik abisatu gabe, eta beren funtzioak betetzeko beharrezkotzat jotzen duten informazioa eskatzea, edozein euskarritan dagoela ere.

Egoitza partikular batean sartu behar dutenean ikuskaritza-funtzioak betetzeko, dagokion baimen judiziala eduki beharko dute, salbu eta ikuskatutako pertsonak sartzeko baimena ematen badu.

b) Beharrezkoak diren egiaztapen material guztiak egitea; besteak beste, garrantzitsutzat jotzen diren dokumentazioa edo datuak erakusteko eskatzea eta edozein euskarritan (fisikoan edo digitaletan) aztertzea, barnean hartuz kopiak edo inprimaketak hainbat formatutan lortzeko aukera, ikus-entzunezko argazkiak eta grabazioak egitea, planoak edo krokisak jasotzea, neurketak egitea, laginak hartzea eta instalazioetako edo ekipamenduko edozein osagai egiaztatzea, bai eta araudia betetzen dela egiaztatzeko egoki den beste edozein frogak ere.

c) Zerbitzu edo prestazioaren funtzionamendua egiaztatzea, zerbitzu edo prestazioaren funtzionamendua indarrean dagoen araudiarekin bat datorren ala ez zehazteko.

d) Titularraren edo baimendutako pertsona baten presentzia eskatzea; turismo-erabiltzaileekin edo haien ordezkariekin eta egiaztatutako entitate, establezimendu eta zerbitzuetako langileekin elkarrizketatzea; eta horiek ikuskaritzaren administrazio-bulegoetan ager daitezela eskatzea, horretarako arrazoiak emanez eta zitazioaren xedea adierazita.

Era berean, ikuskatutako establezimenduan edo tokian dauden eta turismo-jarduerarekin zerikusia duten pertsonak identifikatzeko eskatu ahal izango dute.

e) Ikuskaritza-lanak eraginkortasunez egiteko garrantzitsuak izan daitezkeen txostenak, datuak, azterketak, estatistikak eta mota guztietako informazioa eskatzea, bai eta informazioa biltzea ere Administrazio desberdinetako erregistro publikoetatik edo datu-baseetatik.

f) Ikuskaritzatik kanpoko pertsonen aholkularitza eskatzea, berariazko ezagutzak behar diren gaitan.

g) Espresuki gaitutako kasuetan, zuzenean kautela-neurriak proposatzea edo hartzea, eta berehala horren berri ematea hori berresteko edo aldatzeko eskumena duen organoari, baldin eta zantzu arrazoizkoak eta nahikoak badaude turistaren segurtasunari, osasunari edo eskubideei kalte larria edo konponezina eragin diezaieketen arau-hausteak egin direla pentsatzeko, edo turismo-antolamendua larriki urratzen bada.

h) Jarduerak ikuskaritza-akten, txostenen, eginbideen eta komunikazioen bidez dokumentatzea.

i) Ingurune telematikoetako jarduera klandestinoak egiaztatzea, bai eta balizko arau-hausteak ere, eta horien erantzuleak identifikatzea, aldez aurretik jakinarazi edo identifikatu beharrik gabe.

j) Informazioa eta publizitate digitala kontsultatzea eta aztertzea, eskaintzarekin duten zehaztasun maila egiaztatzeko.

118. artikulua.– Ikuskatzaileen eskubideak eta eginbeharrak.

1.– Ikuskatzaileek eskubide hauek izango dituzte:

a) Ikuskatzaileek, beren ikuskaritza-eginkizunak betetzean, independentzia osoa izango dute. Nolanahi ere, hierarkian dituzten nagusien mende egongo dira eta haien jarraibideak bete beharko dituzte.

b) Beren identitatearen eta lanbide-kategoriaren akreditazio bat izatea, dagokion kredentzialaren bidez.

c) Agintaritzaren agente-izaera izatea beren funtzioak egikaritzean, eta segurtasuneko indar eta kidegoen nahiz beste edozein Administrazio edo organismo publikoren laguntza eskatu ahal izatea, beren funtzioak behar bezala betetzeko beharrezkotzat jotzen dutenean, batez ere erresistentzia edo oztopoa dagoen kasuetan.

d) Beren funtzioak betetzean gertatzen diren oztopatze-, bortxatze-, larderia- edo erresistentzia-egintza ororen aurrean babesa jasotzea. Egintza horiek arau-hauste administratibo astunak edo oso astunak izaten ahalko dira, erator litezkeen erantzukizun zibil edo penalak baztertu gabe.

2.– Ikuskatzaileek eginbehar hauek izango dituzte:

a) Ikuskatzaileak diren aldetik, ikuskaritza-jarduera hastean beren burua identifikatzea, salbu eta jarduera egiten bada identifikazioarekin bateraezinak diren inguruneetan (telematikoetan, telefono bidezkoetan, etab.), edota identifikatuz gero zapuztu egin daitekeenean jardueraren helburua. Egiten den aktan edo txostenean jasota utziko dira jarduketa hori justifikatzen duten arrazoiak eta inguruabarrak.

- b) Konfidentziasunari eta lanbideko isiltasunari eustea beren funtzioei eta lortutako informazioei dagokienez; bereziki, pertsonen intimitateari eragiten dioten edo eragin diezaioketen datu pertsonalen inguruan.
- c) Objektibotasunez, inpartzialtasunez, bizkortasunez eta diskrezioz jardutea, turismo-jardueran ahalik eta eragin txikiena izateko moduan.
- d) Organo eskudunei jakinaraztea arau-hauste penal edo administratibotzat hartu daitezkeen egitateak, eta, berehalako arriskuak hautemanez gero, kautela-neurriak proposatzea.
- e) Ikuskaritza-jarduketa batean esku ez hartzea, baldin eta indarrean dagoen araudian aurreikusitako abstentzio-kasuren bat gertatzen bada.
- f) Interesdunei zor zaien errespetua eta begirunea zaintzea, beren eskubide eta betebeharren berri emanez.

119. artikulua.– Turismo-enpresen eta -jardueren titularrek eta beren zerbitzupeko langileek Turismo Ikuskaritzarekin lankidetzan aritzeko duten eginbeharra.

- 1.– Turismo-enpresen titularrek, establezimendu bakoitzaren ordezkariak edo arduradunek, edo, halakorik ez badago, une horretan jardueraren ardura duen langileak nahiz Euskadin turismo-jarduera bat egiten duten edo turismo-zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsona guztiek betebeharra dute ikuskatzaileekin lankidetzan jarduteko. Horren barruan sartzen da gelei eta instalazioei bisita egiteko aukera ematea, zerbitzuen kontrola erraztea, eta, oro har, ikuskatutako egintzen eta egoeraren ezagutza eta kalifikazioa hobe eta doituagoa jasotzea ahalbidetzea.
- 2.– Ikuskatzaileek, ikuskaritzaren xede diren eta publikoari irekita dauden lokal eta instalazioetan sartzea ukatzen bazaie, aktan jasoko dute egoera hori.

120. artikulua.– Administrazio-lankidetzak.

- 1.– Turismo Ikuskaritzak bere jardueran hautemandako arau-hauste eta gabeziek Administrazio beraren edo beste Administrazio publiko batzuen eskumenen esparruan eragiten badute, jakinarazi egingo zaie organo horiei.
- 2.– Halaber, baldin eta beste edozein Administrazio publikotako organoek, beren funtzioak betetzean, turismoaren arloko arau-haustea hautematen badituzte, jakinarazi egingo diete Euskal Autonomia Erkidegoan turismoaren arloan eskumena duten organoei.

121. artikulua.– Ikuskaritza-jarduketaren hasiera eta Administrazioari informazioa helarazteko bideak.

- 1.– Turismoaren arloko ikuskaritza-jarduketa ofizioz hasi ahal izango da organo eskudunak hala erabakita, bai bere ekimenez, bai gorago organo baten aginduz, beste administrazio-organoko batzuen eskaera arrazoituaren bidez edo salaketaren ondorioz.
- 2.– Salaketaren bidez, turismo-administrazioari jakinarazi ahal izango zaizkio ezagutzen ez dituen gertakariak edo egoerak, baldin eta, beren izaeragatik, indarrean dagoen turismo-araudia urratzea eragin badezakete edo lege honetan eta berau garatzeko araudian xedatutakoa aplikatzeko garrantzia izan badezakete.

3.– Salaketa bat jasotakoan, organo eskudunak aztertu egingo du, eta, hala badagokio, ikuskaritza-unitatera bidaliko du, behar diren ikuskaritza-jarduketak egin ditzan.

4.– Organo eskudunak salaketa artxibatzea erabaki ahal izango du oinarririk gabekotzat jotzen denean, salatutako egitateak edo ustezko erantzuleak identifikatzeko gutxieneko zehaztasunik ez dagoenean, edo ikuskaritza-jarduketa hastea justifikatzen duen elementurik ikusten ez denean.

5.– Lege honen ondorioetarako, turismo-erabiltzaileek organo eskudunen aurrean aurkeztutako keak salaketen parekoak izango dira, bai eta kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteari buruz indarrean dagoen araudi espezifikoarekin bat eginez aurkeztutako erreklamazioak ere.

6.– Turismo Ikuskaritzak eskatu ahal izango du bere bulegoetan ager daitezela turismo-enpresen eta -jardueren titularrak, titularren ordezkariak edo behar bezala baimendutako pertsonak, dagokion zitazioan zehazten diren jarduketak egiteko. Horretarako, espresuki jasoko dira agerraldiaren lekua, data, ordua, eskuragarri dauden baliabideak eta xedea, bai eta agerraldira ez joatearen ondorioak ere.

Justifikaziorik gabe ez agertzea ikuskaritza-lana oztopatzea izango da.

7.– Ikuskaritza egiten den unean ezin badira aurkeztu eskatutako agiriak edo dokumentu horiek xehetasun handiagoz aztertu behar badira, ikuskatzaileek epe bat eman ahal izango dute dokumentu horiek entregatzeko edo, bestela, horretarako hitzordu bat ezarri ahal izango dute turismo-enpresen eta -jardueren titularrentzat, titularren legeko ordezkariarentzat edo, halakorik ezean, turismo-administrazioaren aurrean agertzeko behar bezala baimendutako pertsonentzat.

122. artikulua.– Kautela-neurriak.

Ikuskatzaileek kautela-neurriak hartzea proposatu ahal izango diote organo eskudunari –hala nola establezimendua ixtea, jarduerak etetea, baliabide materialak kentzea edo indarrean dagoen araudiak baimentzen duen beste edozein neurri–, baldin eta egiaztatzen badute erabiltzaileentzat edo interes orokorarentzat berehalako arriskua edo kalte larria eragin dezakeen egoera dagoela.

123. artikulua.– Ikuskaritza-jarduketaren dokumentazioa.

1.– Turismo Ikuskaritzaren jarduketa guztiak akta, eginbide, komunikazio, jakinarazpen eta txostenen bidez dokumentatuko dira.

124. artikulua.– Aktak.

1.– Ikuskaritza-jarduketa bakoitzeko, turismo-ikuskatzaile jarduleek dagokion akta egin beharko dute, eta bertan jarduketaren emaitzaren berri emango dute.

2.– Akta erregelamendu bidez ezarritako eredu ofizialean egingo da. Ikuskaritza-aktak betetzeko erabili beharreko eredu ofizialak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egongo dira.

3.– Ikuskaritza-aktan alderdi hauek jasoko dira:

a) Turismo-jardueraren titularren identifikazio pertsonala, hura legez ordezkatzeko duen pertsonarena edo behar bezala baimendutako langileena; edo, halakorik ezean, ikuskaritzaren unean jardueraren ardura zuten pertsonena.

b) Identifikazio fiskaleko datuak.

c) Ikuskatzaile jardulearen identifikazioa.

d) Bisitaren eguna eta ordua.

e) Arau-hauste administratibo bat egon daitekeela zehazten laguntzen duten inguruabarrak eta datuak, ikuskatzaileak urratutzat jotzen dituen artikulua barne.

f) Egiaztatutako egitateen aipamen espresua, bai eta egitate horiek hobeto zehazteko eta baloratzeko lagungarriak diren inguruabar guztiak ere.

g) Jardueraren titularraren, haren ordezkariaren edo ikuskaritzan ardura izan duen langilearen oharrak.

h) Garrantzitsua izan daitekeen beste edozein datu.

4.– Ikuskaritza-akta egingo da jardueraren titularraren, haren ordezkariaren edo, hala badagokio, ikuskaritza erraztu behar izan duen pertsonaren aurrean. Akta ezin bada inoren aurrean egin, aktan bertan inguruabar hori jasoko da.

5.– Aktak ikuskatzaile jarduleak eta jardueraren titularrak edo haren ordezkariak sinatu beharko dituzte; edo, bestela, une horretan jardueraren ardura duen enplegatuak. Aipatutako pertsonak uko egiten badiote akta sinatzeari, ikuskatzaileak hala adieraziko du aktan bertan, eta uko egiteko eman dituzten arrazoiak ere jasoko ditu, halakorik eman badute.

6.– Akta egin eta sinatu ondoren, aktaren kopia emango zaio aurreko apartatuan ezarritakoaren arabera dagokion pertsonari.

7.– Akta sinatzen duenak akta jakinarazi zaiola ematen du aditzera; nolanahi ere, akta sinatzeak ez du adierazten aktaren edukia onartzen denik.

8.– Ikuskaritzak artikulua honetan ezarritako betekizunen arabera egindako eta izenpeturiko aktek dokumentu publikoen izaera dute, aktan jasotzen diren egitateen frogak dira, frogak-balioa dute ziurtasun-presuntzioa izango dute; nolanahi ere, interesdunek beren eskubide eta interesak defendatzeko egoki irizitako frogak aurkeztea edo seinatu ahal izango dituzte. Akats materiala edo egitatezkoa dagoela frogatuz bakarrik zuzendu ahal izango dira.

125. artikulua.– Komunikazioak, eginbideak eta txostenak.

1.– Komunikazioak dokumentu publikoak dira; horien bidez, Euskadiko turismo-administrazioak ikuskaritza-jarduera bat hasiko duela jakinarazten dio turismo-zerbitzuak ematen dituen titularrari, edo jarduera horri lotutako beste gertakari edo inguruabar baten berri ematen dio. Komunikazioak eginbideetan txertatu ahal izango dira.

2.– Eginbideak dira Turismo Ikuskaritzako langileek beren eginkizunak betetzean sortzen dituzten dokumentu publikoak, non modu fede-emailean jasotzen diren egitateak eta inguruabarrak, bai eta turismo-zerbitzuak ematen dituen pertsonak egindako adierazpenak ere.

Ikuskatzaileek beren funtzioak betetzean formalizatutako eginbideek haietan jasotako egitateen frogak-balioa izango dute, salbu eta interesdunak kontrakoa egiaztatzen badu.

Hala ere, jarduketen xede den pertsonak onartu egiten baditu eginbidean jasotako egitateak edo inguruabarrak, horiek egiazkotzat joko dira, eta soilik zuzendu ahal izango dira akats material edo egitatezko bat dagoela frogatuz gero.

3.– Turismo Ikuskaritzak beharrezkoak diren txostenak egingo ditu, ofizioz edota eskaera zein errekerimendu baten bidez, kasu hauetan:

a. Indarrean dagoen araudiaren arabera nahitaezkoak direnean, edo lege hau eta berau garatzeko araudia aplikatzeko beharrezkoak direnean.

b. Administrazio publikoetako beste organo batzuek edo justizia-auzitegiek eskatzen dituztenean.

III. KAPITULUA

Arau-hauste administratiboak.

126. artikulua.– Turismoaren arloko arau-hauste administratiboak.

1.– Turismoaren arloko arau-hauste administratiboak dira lege honetan tipifikatuta dauden egiteak edo ez-egiteak.

2.– Ez da arau-haustea izango zerbitzu bat ematen jarraitzeari uko egitea, baldin eta erabiltzaileak, arrazoi justifikaturik gabe, uko egiten badio dagoeneko jaso dituen zerbitzuak ordaintzeari.

3.– Arau-hausteak arinak, astunak edota oso astunak izan daitezke.

4.– Jokabide arau-hausleak hobeto identifikatzearen edo dagozkien zehapenak hobeto zehaztearen, erregelamendu bidez garatu ahal izango da lege honetan ezarritako arau-hausteen eta zehapenen zehaztapena edo mailaketa. Hala ere, erregelamenduak ezin izango ditu haien izaera edo mugak aldatu, eta ezin izango du arau-hauste edo zehapen berririk ezarri.

127. artikulua.– Erantzuleak.

1.– Pertsona fisiko edo juridiko hauek izango dira turismo-araudiaren arau-hauste administratiboen erantzule:

a) Turismo-establezimendu eta -jardueren titularrak. Hauek izango dira, kontrakoa frogatu ezean, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan dagokien inskripzioa duten titularrak.

b) Jarduera egiten dutenak edo turismo-establezimenduak irekita dituztenak, kasu bakoitzean eskatzen den titulua ez badute.

c) Turismoaren arloan eskumena duen sailak lege honetan araututakoaren arabera egindako errekerimenduei erantzuten ez dieten turismo-eskaintza merkaturatzeko edo sustatzeko kanalak.

d) Erabilera turistikorako etxebizitzak eta gelak merkaturatzeari dagokionez, arau-hausteen erantzuleak izango dira Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan behar bezala inskribatutako titularrak, kontrako frogarik ezean.

Jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ez bada, erabilera turistikorako etxebizitzaren jabetza dutenak ostatatze-jardueraren titularrak direla joko da, aurkakoa frogatu ezean.

e) Aurreko paragrafoetan aurreikusi gabeko kasuetan, lege honetan arau-haustetzat tipifikatutako egitateak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

2.– Enpresaren, establezimenduaren edo jardueraren titularrari eskatu ahal izango zaio bere langileek edo enplegatuek egindako arau-hausteen ondoriozko erantzukizun solidarioa, alde batera utzi gabe arau-haustek materialki egotz dakizkiekeen subjektuen aurka egoki diren akzioak bideratzeko eskubidea.

3.– Pertsona bat baino gehiago badira urratutako araudian aurreikusitako betebeharrak ez betetzearen erantzuleak, modu solidarioan erantzungo diete egindako arau-hausteei eta ezartzen diren zehapenei.

4.– Arau-hauste turistikoen ondoriozko administrazio-erantzukizunak ez du eragotziko erantzule deklaraturako pertsonen erantzukizun zibila, penala edo beste edozein motatakoa izatea.

128. artikulua.– Delitu penalak diren arau-haustek.

1.– Baldin eta, prozeduraren edozein fasetan, organo eskudunak uste badu arau-haustek delitu izan daitezkeela, Fiskaltzari jakinaraziko dio, eta, erabaki judiziala hartzen den arte, etenarazi egingo du zehapen-prozedura administratiboa, betiere pertsona, egitatea eta arrazoia bat baldin badatoz zehapen penal posiblearekin. Zehapen-prozedura administratiboa etetea erabaki arren, bete egin beharko dira legezkotasuna berrezartzeko kautela-neurriak, salbu eta agintaritzaren judizialak kontrakoa erabakitzen badu.

2.– Era berean, justizia-auzitegietan prozesu penala instruitzeak etenarazi egingo du egitate berengatik hasitako zehapen-espediente administratiboaren izapidetzea, bai eta, hala badagokio, zehapena ezartzeko administrazio-egintzen eraginkortasuna ere. Eutsi egingo zaie pertsonen osasuna eta segurtasuna babesteko hartutako administrazio-neurriari, agintaritzaren judizialak neurri horiei buruz erabakirik hartzen ez duen bitartean.

3.– Zehapen penala ezartzen bada, ez da administrazio-zehapenik ezarriko. Deliturik ez dagoela ondorioztatzen bada, Euskadiko turismo-administrazioak jarraipena eman ahal izango dio zehapen-prozedurari, jurisdikzio penalak frogatutzat jo dituen egitateetan oinarrituta.

129. artikulua.– Arau-hauste arinak.

Hauek hartuko dira arau-hauste arintzat:

1.– Turismo-araudiak eskatutako dokumentazioa epearen barruan ez aurkeztea, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ondoren.

2.– Turismo-araudiak jardun ahal izateko eskatutako dokumentuak ez edukitzea, dokumentazioan eskatutako baldintzak ez betetzea, eta nahitaezko dokumentazioa ez gordetzea erregelamendu bidez ezarritako denboran.

Arau-hauste hori astuntzat joko da, baldin eta ez-betetzeak erreferentzia egiten badio segurtasuna, jardueraren legezkotasuna edo turisten babesa kontrolatzeko funtsezko dokumentazioari.

3.– Turismo-jarduerari buruzko erantzukizunpeko adierazpenean jasotako edozein datu edo informaziotan funtsezkoak ez diren zehaztugabetasunak, faltsutasunak edo omisioak egotea.

4.– Erabilera turistikorako ostatu bat iragartzea edo merkaturatzea abenduaren 23ko 1312/2024 Errege Dekretuak edo hura ordeztzen duen arauak eskatutako erregistro-zenbaki bakarra eduki gabe, lege horretara behartuta egonik, eta zenbaki hori merkaturatzeko eta iragartzeko online plataforma guztietan ikusgai ez jartzea ere.

5.– Ez erakustea taldearen, sailkapenaren eta kategoriaren bereizgarriak, edo erakustea eskatutako formalitateak betetzen ez dituzten taldearen, sailkapenaren eta kategoriaren bereizgarriak.

6.– Publizitate, iragarki, dokumentazio, mezu, tarifa eta fakturretan ez agertzea administrazio-sailkapena egiaztatzen duten sinboloak.

7.– Kontrataturako zerbitzuak ematean akats arinak izatea iragarritako edo kontratatutako baldintzei dagokienez.

Gabezia arintzat hartzen dira erabiltzaileen segurtasunerako, osasunerako edo osotasunerako berehalako arriskua ez dakarten ez-betetze txikiak edo mantentze-faltak, eta establezimenduen kalitate, erosotasun edo funtzionamendu egokiari eragiten diotenak.

8.– Gabeziak egotea establezimenduen, instalazio higigarrien eta tresneriaren garbiketan, funtzionamenduan edo mantentze-lanetan.

9.– Ez betetzea turismo-zerbitzuen erabiltzaileen erreklamazioei buruzko informazio- eta erantzun-betebeharrak, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2023 Legean ezarritakoaren arabera, eta, bereziki, ez edukitzea erreklamazio-orririk edo uko egitea turistari orri horiek entregatzeari.

10.– Ez iragartzea turismo-araudiak eskatzen dituen alderdi guztiak.

11.– Prezioak ez jartzea turismo-zerbitzuen erabiltzaileen eskura edo prezioei ez ematea nahitaezko publizitatea.

12.– Ez betetzea erreserba- eta ezerezte-araubideari buruzko xedapenak.

13.– Lege honetan jasotako turismo-jardueraren bat egiten dutenek ez ematea turismo-zerbitzuen erabiltzaileei behar bezalako tratatu eta begirunerik.

14.– Ez betetzea bidaia konbinatuei edo lotutako bidaia-zerbitzuei buruzko legerian xedatutako informazio-betebeharrak, edo informazio hori osorik ez ematea.

15.– Kanpinetatik kanpo kanpatzea, erregelamendu bidez ezarritakoa bete gabe.

16.– Erabilera turistikorako etxebizitzaren kasuan, ez edukitzea 94.8. artikuluan ezarritako barne-araubideko erregelamendua.

17.– Ez ematea ezarritako epearen barruan 63.3. artikuluan aurreikusitako jarduera uztearen berri.

18.– Turismoaren arloan eskumena duen sailari ez jakinaraztea turismo-bitartekaritzako jardueraren inguruan eskatzen diren bermeen eraketa, aldaketa eta baldintzak.

19.– Bidegabeki jabetzea Euskadi turismo-marka gisa sustatzearekin zuzenean lotutako izenez, diseinuz edo materialez, edo horiek baimenik gabe erabiltzea.

20.– Ostatu-establezimenduetan lege baimendutako plaza-kopurua baino gehiago saltzea edo merkaturatzea.

21.– Ez betetzea lege honek espresuki ezarritako beste edozein betebeharrak, arau-hauste astuntzat edo oso astuntzat tipifikatuta ez badago.

130. artikulua.– Arau-hauste astunak.

Honako hauek hartuko dira arau-hauste astuntzat:

1.– Turismo-jarduera edo -prestazio bat egitea jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu gabe, edota, adierazpena aurkeztuta ere, ez betetzea jarduera hori egikartzeko eta edozein bitartekoren bidez iragartzeko nahiz merkaturatzeko legeko eskakizunak.

2.– Turismo-zerbitzuak ematen dituzten pertsonen berezko zerbitzuak sustatzea edo iragartzea, edozein hedabideren bidez, jarduerak hasteko edo garatzeko beharrezkoak diren eskakizunak bete gabe.

3.– Turismo-ostatuak merkaturatzea, kontratatzea, eskaintzea edo ematea, edo enpresen edo turismo-establezimenduen publizitatea egitea, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroko inskripzio-zenbakia edo, hala badagokio, bidaia-agentzien identifikazio-kodea adierazi gabe, edo zenbaki okerrak adierazita.

4.– Ez betetzea lege kanpoko edo Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroko inskripzio-zenbakirik gabeko publizitatea edo eskaintza turistikoak erretiratzeko betebeharra, edozein kanalen bidez iragarrita edo merkaturatuta, Euskadiko Turismo Administrazioak erretiratzeko eskatu dionean, edota iragarki horiek berriro jartzea, komunikatu zaizkion akatsak konpondu gabe.

5.– Funtsezko faltsutasuna edo zehaztugabetasuna egotea 61.7. artikuluan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpenean jasotako datuetan, edota datuak aldatzea lege edo erregelamenduz ezarritako moduan aldatzeko eskatu gabe.

6.– Ez ematea erantzukizunpeko adierazpenean jasotako datuen edo deklarazioen funtsezko aldaketan berri, titulartasun-aldaketak barne, eta 63.3. artikuluan ezarritako epean ez ematea jarduera uztearen berri.

7.– Ez betetzea establezimenduen kokapenari, azpiegiturari, eraikuntzari, instalazioei, ekipamenduari, altzariei, zerbitzuei, lurzati-azalerari edo kalitateari buruzko eskakizunak, dagokien motaren, taldearen, kategoriaren edo modalitatearen arabera.

8.– Uko egitea kontratatutako zerbitzu bat emateari, edota zerbitzu hori ematea itundutakoak baino kalitate-baldintza nabarmen okerragoetan. Ez da arau-haustea izango zerbitzu bat ematen

jarraitzeari uko egitea, baldin eta turistak edo zerbitzuak ordaintzeko konpromisoa hartu duenak uko egiten badio jada jaso dituen prestazioak ordaintzeari, edota ostatatuak edo erabiltzaileak nabarmen urratzen dituenean bizikidetza-arauak edo aplikatzekoa den edozein araudi.

9.– Establezimenduari, jarduerari edo zerbitzuari aitortutako sailkapenaren arabera dagozkienaz bestelako izendapenak, errotuluak, sinboloak edo bereizgarriak erabiltzea, edo izendapena zein tipologia bidegabe erabiltzea, bai eta horrelakorik ez egotea ere.

Turismo-ostatatzerako establezimendu, jarduera edo zerbitzuari aitortutako sailkapenari ez dagozkion izendapenak, errotuluak, sinboloak edo bereizgarriak erabiltzea, eta ostatua iragartzean edo merkaturatzean horiek ez egotea edo behar ez bezala erabiltzea.

10.– Zerbitzuak ematean informazio edo publizitate faltsu edo engainagarriak erabiltzea, turismo-eskaintza merkaturatzeko eta sustatzeko kanaletan emandakoa barne.

11.– Ez formalizatzea edo erabiltzaileari ez ematea kontratazio-baldintzak egiaztatzeko agiriak.

12.– Bidaia-agentziek ez betetzea bidaia konbinatuen eta lotutako bidaia-zerbitzuen gaineko legerian kontratuen formari, edukiari, aldaketari edo suntsiarazpenari buruz ezarritako betebeharrak, gainerreserbari buruzkoak barne.

13.– Bezeroei debekatzea turismo-establezimenduetan sartzea eta haietan egotea, eta bezeroak justifikaziorik gabe kanporatzea, sarrera ukatzeko eskubideari buruzko araudia alde batera utzi gabe.

14.– Kontratututakoak baino prezio altuagoak kobratzea, eta eskaintako edo itundutako zerbitzuetan sartuta ez dauden kontzeptuak fakturatzea.

15.– Ez egitea edo gaizki egitea kontratatutako zerbitzuengatik ordaindutako zenbatekoen fakturak, edo fakturak banakatu gabe aurkeztea, kontzeptuak zehaztu gabe.

16.– Erabilgarri dauden plazak baino gehiago erreserbatzea, enpresa arau-hausleak erabiltzaileari ez dionean ostatua eskaintzen 32. artikuluan ezarritako baldintzetan.

17.– Uko egitea Turismo Ikuskaritza baimentzeari, ikuskatzaileei geletan edo establezimenduan sartzea eragotziz, edo uko egitea ikuskatzaileek beren eskumenak betez eskatzen duten informazioa emateari.

18.– Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan inskribatuta dauden plazak baino gehiago iragartzea, edozein bide erabiliz.

19.– Behar bezala jakinarazitako informazio-eskaerei ez erantzutea ezarritako epearen barruan, eta uko egitea edo muzin egitea datuak emateari edo eskatutako informazioa aurkezteari.

20.– Ez erantzutea establezimendu edo instalazioetako akatsak konpontzeko Administrazioak egindako errekerimenduei, edo horiek ez betetzea.

21.– Turistak modu desegokian tratatzea, modu nabarmen iraingarrian.

22.– Erabilera turistikorako etxebizitza edo geletan turismo-egonaldiak eskaintzea edo merkaturatzea, etxebizitza edo gela horiek betetzen ez dituztela lege honen 94 eta 95. artikuluetan eta berau garatzen duen araudian ezarritako eskakizunak edo baldintzak.

- 23.– Turismo-gidariaren berezko informazio- edo laguntza-jarduerak merkaturatzea, iragartzea edo antolatzea horretarako gaitu gabeko langileen bidez, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 32.3 artikuluan jasotako elementu katalogatuetan.
- 24.– Ostatu iraunkorrak edo bizitegi-izaerako ostatuak eskaintzea erabilera turistikorako ostatu-establezimenduetan, etxebizitzetan eta geletan.
- 25.– Ez formalizatzea aplikatzekoa den turismo-araudiak eskatutako bermeak eta aseguruak, edo haien indarraldia edo zenbatekoa ez mantentzea.
- 26.– Jabetza horizontaleko araubideko establezimenduetako ostatu-unitateak ustiatzea enpresa ustiatzailetik kanpo, edo turistikoa ez den beste erabilera baterako erabiltzea.
- 27.– Egiturazko erreformak egitea turismoaren arloan eskumena duen Administrazioari jakinarazi gabe, baldin eta erreformek jarduera gauzatzeko funtsezko eskakizunak aldatzen badituzte, kalitatea murrizten badute edo establezimenduaren sailkapenean, kategorian eta ostatu-ahalmenean eragina badute.
- 28.– Ikuskaritza-funtzioak betetzea zailtzea edo oztopatzea, eskatutako informazioa emateari uko egitea, eta informazio faltsua edo zehaztugabea ematea turismoaren arloan eskumena duen Administrazioko ikuskatzaileei edo organoei; turismo-administrazioarekin lankidetzan ez jardutea, bai eta Euskadiko turismo-administrazioak eskatutako informazioa ezkutatzea, desitxuratzea edo faltsutzea ere.
- 29.– Ez hartzea portaera jakin batzuk bertan behera uzteko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak, baldin eta erabilera turistikorako etxebizitzetan kokatutako turismo-ostatuetan komunitateko bizikidetzako oinarritzako arauen aurka egiten badute eta behin eta berriz errepikatzen badira.
- 30.– Turismo-establezimenduen eta erabilera turistikorako etxebizitzaren jabeek, turismo-administrazioak hala eskatuta, turismo-jardueran diharduten pertsonen identitatea eta harremanetarako datuak eta jarduera hori egiteko beharrezkoa den kontratu edo titulu gaitzailea edo ondorio horietarako egokia den beste edozein dokumentu ukatzea, informazio hori legez esleitutako funtzioak betetzeko beharrezkoa denean.
- 31.– Funtzioak betetzeko langile kualifikaturik ez izatea, edo ekipo eta material homologaturik ez izatea, turismo-araudiaren arabera beharrezkoa denean turismo-zerbitzuen erabiltzailearekin hitzartutako zerbitzuak emateko.
- 32.– Turismo-establezimenduen ostatatze-ahalmena aldatzea oheak instalatuz, edo erabiltzaileak ostatu-unitateetan edo kanpalekuetan onartzea, betiere erantzukizunpeko adierazpenean edo aurretiko komunikazioan zehaztutakoarekin bat ez badator eta erregelamendu bidez ezarritako mugak gainditzen baditu.
- 33.– Turismo-zerbitzuak erregelamendu bidez ezarritakoa baino denbora luzeagoan kontratatzea. Turismo-establezimenduetan sartzeko eta egoteko araubidea ez betetzea.
- 34.– Kontratua ez betetzea hitzartutako lekuari, establezimenduari, kategoriari, denborari, prezioari edo gainerako baldintzei dagokienez.

35.– Oso astuntzat sailkatutako arau-hauste oro, bere izaera edo izandako gorabeherak kontuan hartuta kalifikazio hori merezi ez duena.

131. artikulua.– Arau-hauste oso astunak.

1.– Honako hauek hartuko dira arau-hauste oso astuntzat:

1. Hainbat arlotan (segurtasuna, suteen prebentzioa, irisgarritasuna, jasangarritasuna edo osasungarritasuna) beren izaera edo ezaugarriengatik erabiltzaileen segurtasun edo osasunerako arrisku larria dakarten instalazioen baldintzen funtsezko ez-betetzea.

2. Turismo-establezimendu batean sartzea edo zerbitzuak ematea mugatzea edo establezimendutik arrazoirik gabe kanporatzea, jatorria, sexua, generoa, genero-identitatea, desgaitasuna, erlijioa edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozial dela-eta, turismo-erabiltzailea diskriminatzea dakarrena.

3. Turismo-zerbitzuak ematearen edo turismo-jarduerak garatzearen testuinguruan, giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak modu larrian urratzen dituzten jardueren bidez erraztea, sustatzea edo onartzea –zuzenean nahiz zeharka–, zigor-kalifikazioa edozein dela ere eta egitateak agintaritza judizial edo fiskal eskudunari komunikatzeko betebeharrari kalterik egin gabe, delituzantzuak daudenean.

4. Euskadiren edo Euskadin kokatutako edozein turismo-helmugaren irudi turistikoari kalte nabarmena eta larria eragiten dioten turismo-araudiaren arau-haustek, bai eta dagokion turismo-lanbidearen edo -jardueraren ospeari eragiten diotenak ere.

5. Turismo-kanpalekuetako lurzatiak saltzea, bai eta hotel-establezimenduetako ostatu-unitateak edo bertako funtsezko zatiak saltzea ere, indarrean dagoen legeriak onartzen dituen kasuetan izan ezik.

6. 68. artikuluan definitutako ustiapen-unitatearen printzipioa ez betetzea.

7. Arau-hauste astun bat egitea, arau-hausteen erantzuleak administrazio-bidean ebazpen irmo bidez bi aldiz zehatu direnean 12 hilabeteko epean –lehenengo arau-haustetik aurrera–, arau-hauste bera egiteagatik; edo hiru aldiz epe berean, gertaera desberdinengatik.

2.– Arau-haustea oso astuntzat jo ahal izango da, baldin eta arau-haustek garrantzi handia badu, kalte larria eragiten badie turismo-interes orokorre, eta segurtasun publikorako edo osasunerako garrantzitsua den informazioa ezkutatzea badakar.

132. artikulua.– Preskripzioa.

1. Lege honetan aipatzen diren arau-hauste administratiboek epe hauetan preskribatuko dute:

a) Arau-hauste arinak: urtebete.

b) Arau-hauste astunak: bi urte.

c) Arau-hauste oso astunak: hiru urte.

2. Elkarren jarraian egindako arau-hausteen kasuan, preskripzioaren ondorioetarako, zenbatzen hasteko data izango da arau-haustea eragin duen azken egitatea, edo jokabide ez-zilegia amaitu den eguna.

3. Preskripzio-epea arau-haustea egin den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen, eta dagokion zehapen-espedienteak hastean etengo da.

4. Behin prozedura hasitakoan egiaztatzen bada erantzuleak ez direla hasieran adierazitakoak, baizik eta beste batzuk, ebazpena emango da lehenengoak erantzuleak ez direla adierazita, eta prozedura berri bati ekingo zaio bigarrenen aurka, baldin eta arau-haustea ez badu preskribatu haienentzat. Preskripzio-epea ez da etentzat joko prozeduretako lehenengoa izapidetzen den bitartean, salbu eta prozeduran egindako egozpen-akatsen bigarren prozeduran egotzitako pertsonen eragin nabarmena izan dutenean, beren erantzukizuna saihesteko.

IV. KAPITULUA

Zehapenak eta neurri osagarriak

133. artikulua.– Zehapen motak.

1.– Lege honetan eta berau garatzeko arauetan xedatutakoa urratuz gero, zehapen nagusi hauek ezarriko dira:

a) Ohartarazpena.

b) Isuna.

2.– Aurreko apartatuan aipatzen diren zigorrak ezertan galarazi gabe, zehapen osagarri hauek ezarri ahal izango dira:

a) Enpresaren jarduera aldi baterako etetea –gehienez ere hamabi hilabetez– eta establezimendua, ostatu-unitatea, erabilera turistikorako etxebizitza edo gela aldi baterako ixtea edo gaikuntza profesionala errebokatzea.

b) Enpresaren, establezimenduaren edo erabilera turistikorako etxebizitza edo gelaren jarduera behin betiko ixtea eta turismo-jarduera behin betiko uztea. Horren ondorioz, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroko inskripzioa bertan behera uztea.

c) Turismo-lanbidean aritzeko administrazio-gaikuntza errebokatzea eta, horren ondorioz, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroko inskripzioa bertan behera uztea.

d) Zehapenaren xede den jarduera gauzatzeko emandako edo jasotako laguntza edo dirulaguntza ekonomikoak automatikoki galtzea edo itzuli behar izatea, arau-haustea egin zenetik aurrerako ondorioekin.

e) Laguntza berriak eskatzeko desgaitzea –gehienez ere bi urtez–, zehapena ezartzen duen ebazpen irmoaren datatik aurrerako ondorioekin.

3.– Arau-hauste astunen edo oso astunen kasuan, arau-hausteari dagokion lanbide- edo merkataritza-jarduera espezifikoan aritzeko debekua ezarri ahal izango da, gehienez ere bost urteko eperako. Debeku hori ezartzeko, inguruabar hauetakoren bat gertatuko beharko da:

a) Turismo-erabiltzaileen bizitza edo osotasun fisikoa arriskuan jartzen duten segurtasun-, higiene- edo osasun-arauak ez betetzea.

b) Turismo-erabiltzaileen oinarritzko eskubideak kaltetzea.

c) Kontratatutako zerbitzua modu larrian eta jarraituan ez betetzea, baldin eta turismo-erabiltzaile askori kalte konponezinak edo konpongaitzak eragiten badizkio.

d) Urtebetean bi arau-hauste astun edo oso astun egitea.

e) Helmugaren irudiari kalte egitea, hain modu larrian non Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-ospeari berebiziko kaltea eragiten baitio.

134. artikulua.– Aldatutako egoera berrezartzea eta zenbatekoak itzultzea.

1.– Aldatutako egoera berrezartzen bada, urratutako legezkotasuna berrezartzeko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira, arau-haustearen ondorioak deseginez eta egoera arau-haustea egin aurreko egoerara itzuliz.

2.– Turismoaren arloan ezartzen diren administrazio-zehapenak bateragarriak eta independenteak izango dira pertsona fisiko edo juridiko arau-hausleari aldatutako egoeraren jatorrizko egoera berrezartzea exijitzeari dagokionez, bai eta eragindako kalte-galerengatik kalte-ordainari dagokionez ere. Neurri horiek zehapen-ebazpenean bertan aurreikusi ahal izango dira.

3.– Berrezartzeko betebeharra modu arrazoituan erabaki beharko da, eta arau-hausleak zein jarduketa egin behar dituen zehaztu beharko da, bai eta horiek gauzatzeko epea ere.

4.– Berrezartzeko betebeharra ez bada betetzen horretarako ezarritako epean, Administrazioak nahitaez betearazi ahal izango du, arau-hauslearen kontura, eta ondoz ondoko hertsapen-isunak ezarri ahal izango dizkio, harik eta egoera erabat berrezartzen den arte.

5.– Kaltetuna ez bada zehapen-prozeduran interesduna, entzunaldia emango zaio, jasandako kalte-galerak egiaztatu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan.

6.– Exijitutako kalte-ordaina ez bada ordaintzen horretarako zehaztutako epean, premiamendu-bidetik kobratuko da. Kalte-ordainaren zenbatekoa, Administrazioak kobratu ondoren, kaltetunari itzuliko zaio.

7.– Era berean, bateragarriak izango dira kaltetunei haiengandik bidegabeki jasotakoa berrezartzearekin, baldin eta iragarritako prezioak baino handiagoak ordaindu badituzte, kobratutako zerbitzua eta egiazki emandakoa bat etorri ez badira, edo eman ez zaizkien zerbitzuak kobratu bazaizkie, gehi, hala badagokio, dagozkien berandutze-interesak.

135. artikulua.– Zehapenak zehaztea.

1. Arau-hauste arinak ohartarazpenarekin edo 100 eurotik 10.000 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira, mailaketa honen arabera:

a) Gutxieneko maila: 100 eta 3.000 euro bitartean

b) Maila ertaina: 3.001 eta 6.000 euro bitartean

c) Gehieneko maila: 6.001 eta 10.000 euro bitartean

Ohartarazpen-zehapena bidezkoa izango da arau-hauste arinen kasuan, baldin eta, arau-haustearen izaera ikusita, erabakitzen bada ez dela beharrezkoa isuna ezartzea, betiere arau-haustea errepikatzen ez bada.

2. Arau-hauste astunak 10.001 eurotik 60.000 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira, mailaketa honen arabera:

a) Gutxieneko maila: 10.001 eta 20.000 euro bitartean

b) Maila ertaina: 20.001 eta 40.000 euro bitartean

c) Gehieneko maila: 40.001 eta 60.000 euro bitartean

3. Arau-hauste oso astunak 60.001 eurotik 300.000 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira, mailaketa honen arabera:

a) Gutxieneko maila: 60.000 eta 100.000 euro bitartean

b) Maila ertaina: 100.001 eta 200.000 euro bitartean

c) Gehieneko maila: 200.001 eta 300.000 euro bitartean

4. Arau-hauste astunen edo oso astunen kasuan, isun-zehapena bateragarria izango da gainerako zehapen osagarriekin, honela:

a) Zehapen hauek batera ezarri ahal izango dira: isun-zehapena eta jarduerak bertan behera uztea edo establezimendua/instalazioa gehienez 12 hilabetez ixtea, bai eta laguntza edo dirulaguntza ekonomikoak galtzea edo itzuli behar izatea, eta laguntza berriak eskatzeko desgaitzea –gehienez ere bi urterako–, edo arau-hausleak lortutako laguntzak kentzea arau-hauste astunak egiteagatik.

b) Zehapen hauek batera ezarri ahal izango dira: isun-zehapena eta erregistroko inskripzioa ezereztea, erabilera turistikorako enpresa, establezimendu edo etxebizitzaren jarduera behin betiko ixtea, turismo-jarduera behin betiko etetea, edo turismo-lanbidean jarduteko administrazio-gaikuntza errebokatzea, eta, horren ondorioz, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroko inskripzioa ezereztea arau-hauste oso astunak egiteagatik.

136. artikulua.– Publizitate-zehapen osagarria.

1.– Turismoaren arloan eskumena duen sailak argitaratu egin ahal izango ditu administrazio-bidean irmo bihurtu diren arau-hauste astunengatik eta oso astunengatik ezarritako zehapenak.

2.– Zehapenak argitaratzean, arau-hauslearen identifikazioa, ezarritako zehapena eta egindako arau-haustea adieraziko dira.

3.– Turismoaren arloan eskumena duen sailak Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan txertatuko ditu aurreko apartatuan adierazitako datuak, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa errespetatuz.

4.– Zehapen astunei dagozkien datuak bi urtera ezereztuko dira, eta oso astunei dagozkienak, berriz, hiru urtera, horiek argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

137. artikulua.– Zehapenak mailakatzeko irizpideak.

1. Zehapenak ezarriko dira administrazioko arau-haustea gertatzean izandako inguruabarrak kontuan hartuta, eta bereziki irizpide hauek hartuko dira kontuan zehapenak mailakatzeko:

- a) Erabiltzaileei eragindako kalteak eta kaltetuen kopurua, bai eta osasunerako edo segurtasunerako sortutako arriskua ere.
 - b) Lortutako onura ez-zilegia.
 - c) Enpresaren, establezimenduaren edo jardueraren bolumen ekonomikoa eta finantza-egoera.
 - d) Establezimenduaren kategoria edo zerbitzuaren nahiz jardueraren ezaugarriak.
 - e) Turismo-sektorearen gainerakoan eragindako ondorio negatiboak.
 - f) Arau-haustea behin eta berriz egitea edo errepikatzea.
 - g) Intentzionalitatearen existentzia eta maila.
 - h) Jarduketa arau-hausleak gizartean duen oihartzuna.
 - i) Turismo-ostatuen plaza kopurua.
 - j) Zehapen-espedientea hasteko erabakia hartu aurretik sortutako kalteak ordaintzea.
 - k) Arau-haustea eragin duten gabeziak zuzentzea eta kalteak borondatez konpontzea zehapen-espedientea izapidetzen den bitartean.
 - l) Arau-haustearen ondorioz onura ekonomikorik ez izatea.
2. Arau-haustea behin eta berriz egiten da erantzuleak urtebeteko epean maila bereko arau-hauste bat baino gehiago egiten dituenean eta administrazio-bidean ebazpen irmoz hala deklaratu denean.
3. Arau-haustea errepikatzen da erantzuleak urtebeteko epean turismoaren arloko maila desberdineko bi arau-hauste edo gehiago egiten dituenean –ez da nahitaezkoa maila berekoak izatea edo elkarren artean zuzeneko lotura izatea–. Arau-haustea errepikatzen da erantzuleak bi urteko epean edozein mailatako bi arau-hauste edo gehiago egiten dituenean eta administrazio-bidean ebazpen irmoz hala deklaratu denean.
4. Arau-haustea egiteak arau-hausleari emaitza onuragarriagoa ekartzen badio urratutako araua betetzea baino, inguruabar hori astungarritzat jo ahal izango da, eta horrek isun-zehapena gehieneko mailan ezartzea ahalbidetuko du.

138. artikulua.– Zehapenen preskripzioa.

1. Lege honetan aurreikusitako zehapenak honela preskribatuko dira:

- a) Arau-hauste arinengatik ezarritakoak: urtebetera.
- b) Arau-hauste astunengatik ezarritakoak: bi urtera.
- c) Arau-hauste oso astunengatik ezarritakoak: hiru urtera.

2. Zehapenen preskripzio-epea kontatzen hasiko da zehapena ezartzen duen ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo egunetik aurrera.

3. Preskripzio-epea eten egingo da exekuzio-prozedura hastean, baina preskripzio-epea berriro hasiko da kontatzen, baldin eta prozedura hilabetez baino gehiagoz geldiarazita egoten bada arau-hausleari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik.

139. artikulua.– Kautela-neurriak.

1.– Zehapen-prozedura hasitakoan, prozedura ofizioz ebazteko eskumena duen organoak edozein unetan hartu ahal izango ditu, arrazoitutako erabaki baten bidez, emango den ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko beharrezkoak diren behin-behineko neurriak, erabiltzaileen segurtasuna edota interes orokorraren babesa bermatzeko.

2.– Neurri horiek eraginkortasunaren eta kostu txikienaren printzipioei jarraikiz ezarri beharko dira, eta proportzionatuak izan beharko dira ustezko arau-hausteen izaerarekiko eta larritasunarekiko.

3.– Kautela-neurri horiek honelakoak izaten ahalko dira:

a) Jardueran aritzeko legez ezarritako eskakizunak betetzen ez dituzten enpresak, establezimenduak eta erabilera turistikorako etxebizitza edo gelak ixtea.

b) Haien funtzionamendua etetea, detektatutako akatsak zuzendu arte edo legez ezarritako eskakizunak bete arte.

140. artikulua.– Hertsapen-isunak.

1.– Organo eskudunek hertsapen-isunak ezarri ahal izango dituzte –errekerimenduan adierazitako epeak igarota eta turismo-jarduera edo -establezimenduak lege honetan edo berau garatzeko erregelamenduan ezarritako eskakizun eta baldintzetara ez egokitzeari buruzko ez-betetze etengabea egiaztatuta–, egitate arau-hausle bat ez etetearen, berehala bertan behera ez uztearen edo omisio bat ez zuzentzearen ondorioz, indarrean dagoen legerian xedatutakoaren arabera.

2.– Hertsapen-isun horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango egindako arau-hausterako ezarrita dagoen zehapenaren ehuneko hogeia baino handiagoa.

3.– Hertsapen-isunak independenteak dira zehapen gisa ezar daitezkeen beste neurri batzuekiko, eta haiekin bateragarriak dira.

4.– Hertsapen-isunak ezartzeko, baldintza hauek beteko dira:

a) Zehapen-ebazpen irmo bat egotea, non jasoko den betearazi nahi den betebeharr argi eta zehatza.

b) Betebeharpekoari errekerimendu espresu eta arrazoitua egitea; horren bidez, epe jakin bat emango zaio betebeharra bere borondatez bete dezan, eta argi eta garbi ohartaraziko zaio hertsapen-isunak ezarri ahal izango zaizkiola, ez-betetzeak iraunez gero. Isun horien zenbatekoa eta aldizkakotasuna ere jakinaraziko zaizkio. Emandako epeak arrazoizkoa eta nahikoa izan beharko du betebeharra betetzeko.

c) Errekerimenduan zehaztutako epea igaro ondoren, betebeharpekoaren ez-betetzea formalki frogatzea.

5.– Hertsapen-isunak ondoz ondoko aldietan eta aldi jakin batzuetan errepikatuko dira. Organo eskudunak ezarriko du haien iraupena, kontuan hartuta bete gabe geratu den betebeharraren konplexutasuna eta betebeharrekoak erakutsitako erresistentzia-maila. Hertsapen-isunak ezartzen jarraituko da, harik eta egiaztatu arte hasierako errekerimendua eragin zuen ez-egitea edo ekintza araudira benetan egokitzen dela edo erabat konpondu dela.

Nolanahi ere, hertsapen-isunak ezartzeko irizpideek hamabost eguneko tartea izango dute elkarren artean. Isun horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango egindako arau-hausterako aurreikusita dagoen isunaren ehuneko hogeia baino handiagoa.

141. artikulua.– Organo eskudunak.

1.– Zehatzeko ahala turismo-arloan eskumena duten organoei dagokie, lege- edo erregelamendu-mailako xedapen baten bidez espresuki baldin badute esleituta.

2.– Aurreko apartatuan xedatutakoa hala izanik ere, instrukzio- eta ebazpen-faseak behar bezala bereizita egongo dira beti, eta administrazio-organo bereiziei aginduko zaizkie. Ebazteko eskumena duen organoak ez du inoiz instrukzio-egilea izendatuko.

3.– Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko organo eskudunek ezarriko dituzte zehapenak Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean turismoaren arloan egindako arau-hausteengatik, erantzulearen egoitza soziala edozein dela ere.

V. KAPITULUA

Zehapen-prozedura

142. artikulua.– Aplikatu beharreko araudia.

Zehapen-prozedura 1/2023 Legean (1/2023 Legea, martxoaren 16koa, Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzkoa) edo hura ordeztzen duen arauan xedatutakoaren mende egongo da.

143. artikulua.– Prozedurari hasiera ematea.

1.– Prozedura ofizioz edota alderdi batek eskatuta hasi ahal izango da.

2.– Turismoaren arloko zehapen-prozedura ofizioz hasiko da kasu hauetan:

a) Norberaren ekimenez. Jarduketa norberaren ekimenez egiten da zehatzeko ahala egikaritzeko eskumena duen organoak zuzenean edo zeharka ezagutzen dituenean prozeduraren xede diren inguruabarrak, jokabideak edo egitateak.

b) Turismo Ikuskaritzak egindako akten ondorioz.

c) Ustezko arau-hauste baten berri duen administrazio-agintaritzak edo -organoak eskaera arrazoitua egiten duenean.

d) Salaketa, kexa edo erreklamazio bat aurkezten denean.

3.– Prozedura hasi aurretik, zehatzeko ahala egikaritzeko eskumena duen organoak informazio-aldi bat edo aurretiazko jarduketak ireki ahal izango ditu, eta ikuskatzaileei aginduko die ahalik eta zehatzen aztertzeko zer egitatek eragin dezaketen prozedura hastea, nor edo nortzuk izan

daitezkeen erantzuleak eta zer inguruabar garrantzitsu dauden, kasu zehatzaren inguruabarrak behar bezala ezagutzeko eta prozedura hastea komeni den ala ez jakiteko.

4.– Alderdi interesdunak eskatuta ere hasiko da prozedura, irekiera-eskaera arrazoitu bat aurkeztuz. Eskaeran, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 66.1 artikuluan eskatutako datuez gain, honako hauek jasoko dira: arau-haustea zer egitatek eragin duten, noiz gertatu zen, eta, ahal denean, arau-haustearen tipifikazio juridikoa, ustezko erantzuleak eta dagokion zehapena. Eskaerarekin batera, interesdunaren izaeraren eta uziaren oinarri diren egitateak egiaztatzen dituzten dokumentazio eta froga guztiak aurkeztu beharko dira. Ustezko erantzuleari helarazi ondoren, eta hark haren eskubidearen alde egoki iritzitako alegazioak aurkezteko aukera izan ondoren, ebazteko eskumena duen organoak irekiera-eskaeraren onargarritasunari buruzko erabakia hartuko du. Kasu hauetan ez da onartuko irekiera-eskaera: adierazitako egitateak behar bezain argi ez daudenean, eskaerak argi eta garbi oinarririk ez duenean, edota salatzaileak interesdun-izaerarik ez duenean.

144. artikulua.– Prozedura hasteko erabakia.

1.– Arau-haustearren arrazoizko zantzuak daudenean, organo eskudunak zehapen-prozedura hasteko erabakia hartuko du.

2.– Prozedura hasteko erabakiak informazio hau jaso beharko du gutxienez:

- a) Ustezko arau-hauslearen edo arau-hausleen identifikazioa.
- b) Kaltedunen identifikazioa.
- c) Egotzitako egitateen deskribapena, arau-haustearren kalifikazio juridiko posiblearekin, bai eta legezkiokkeen zehapenak ere, betiere instrukzioaren ondorioz erator daitekeena baztertu gabe.
- d) Organo izapidegilearen identifikazioa, haren errekusatze-araubidea espresuki zehaztuta.
- e) Prozedura ebazteko eskumena duen organoa eta eskumen hori esleitzen dion araudia.
- f) Ustezko arau-hausleak alegazioak aurkezteko eta bere defentsarako egokitzen jotzen dituen frogak proposatzeko eskubidearen adierazpen espresua, bai eta horretarako epea ere. Epe hori gutxienez hamabost egun baliodunekoa izango da, erabakia jakinarazten denetik zenbatzen hasita.
- g) Alegaziorik aurkezten ez bada eta ezarritako epean frogak proposatzen ez badira, prozedura hasteko erabakia ebazpen-proposamentzat hartu ahal izateko ohartarazpena, baldin eta erabaki horrek horretarako behar diren elementu guztiak jasotzen baditu.
- h) Erantzukizuna norberaren borondatez aitortzeko edo zehapena aurretiaz ordaintzeko aukeraren adierazpena, bai eta onarpen edo ordainketa horrek dakartzaten ondorioena ere.
- i) Zehapen-prozedura hasteko eskumena duen organoak hartutako kautela-neurriak, alde batera utzi gabe prozedura horretan 140. artikuluaaren arabera hartu daitezkeenak.

145. artikulua.– Erantzukizuna aitortzea.

1.– Zehapen-prozedura hasita dagoela ustezko arau-hausleak onartu egiten badu bere erantzukizuna ebazpena eman aurretik, prozedura amaitutzat emango da.

2.– Zehapena diruzkoa denean soilik, prozedura ebazteko eskumena duen organoak murrizketa hauek aplikatuko dizkio proposatutako zehapenaren zenbatekoari:

a) Baldin eta arau-hausleak bere borondatez aitortzen badu bere erantzukizuna, eta egozten zaizkion egitateak eta haien kalifikazio juridikoa onartzen baditu, % 25eko murrizketa aplikatuko zaio ezarritako zehapenaren zenbatekoari.

b) Baldin eta arau-hausleak bere borondatez ordaintzen badu zehapena, eta ezarritako diruzko betebeharra ordaintzen badu ebazpen eman aurreko edozein unetan, % 25eko murrizketa aplikatuko zaio ezarritako zehapenaren zenbatekoari.

c) Aurreko bi kasuak batera gertatzen badira, zehapenaren murrizketak metatu egingo dira eta % 50eko murrizketa aplikatuko zaio zehapenaren zenbatekoari. Era berean, horrek amaiarazi egingo luke prozedura.

3.– Murrizketa horiek aplikatu ahal izateko, arau-hausleak uko egin beharko dio zehapenaren aurka administrazio-bidean alegazioak, akzioak edo errekursoak aurkezteari.

4.– Murrizketa horiek espresuki jaso beharko dira prozedura abiarazteari buruzko jakinarazpenean.

5.– Erantzukizuna aitortzeak ez du eragozten zehapen-prozedura izapidetzen jarraitzea, baldin eta arrazoizko zantzuak badaude ustezko iruzur-jokabidea edo beste pertsona edo entitate batzuen erantzukizuna estaltzera bideratutako jokabidea egon daitekeela.

146. artikulua.– Prozedura iraungitzea.

1. Zehapen-prozeduraren ebazpena sei hilabeteko epean jakinarazi ez bada, prozedura hasteko erabakia hartu zenetik kontatzen hasita, prozedura iraungi egingo da.

2. Epe hori etenda geratuko da, martxoaren 16ko 1/2023 Legean jasotako kasuetan ez ezik, interesdunei egotz dakizkiekeen arrazoiengatik prozedura geldirik dagoen bitartean ere.

3. Zehapen-prozedura iraungitzeak ez du, berez, Administrazioaren akzioen preskripzioa eragiten. Iraungitako prozedurek ez dute etengo arau-hausteen preskripzio-epea.

4. Preskripzioa gertatu ez delako beste prozedura bat hastea posible den kasuetan, prozedura berrian gehitu ahal izango dira iraungitzea gertatu izan ez balitz eduki bera izango zuten egintzak eta izapideak. Nolanahi ere, prozedura berrian izapide hauek bete beharko dira: alegazioak jasotzea, froga-proposamenak aurkeztea eta interesdunari entzunaldia ematea.

Lehenengo xedapen gehigarria.– Zenbatekoak eguneratzea.

Lege honetan ezarritako zehapenen zenbatekoa eguneratu ahal izango da, turismoaren arloan eskumena duen saileko titularren aginduz, kontsumorako prezioen indizeak izandako bilakaera kontuan hartuta.

Bigarren xedapen gehigarria.– Ostatu-figura berriak eta beste figura batzuk arautzea.

Turismoaren arloan eskumena duen sailak sortu litezkeen ostatu-tipologia edo -modalitate berriak arautu ahal izango ditu, bai eta turismo-jardueren beste figura batzuk ere.

Hirugarren xedapen gehigarria.– Gatazkak judizioz kanpo ebazteko mekanismoak.

Turismoaren arloan eskumena duen sailak sustatuko du turismo-enpresen eta turisten artean sortzen diren gatazkak konpontzea, bitartekaritzaren, adiskidetzaren eta arbitrajearen bidez.

Laugarren xedapen gehigarria.– Zehapenak inskribatzea turismo-enpresen eta -jardueren erregistroan.

Erregelamendu bidez zehaztuko da zehapen astun eta oso astunak nola inskribatuko diren Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan.

Lehenengo xedapen iragankorra.– Zehapen-prozeduren araubide iragankorra.

Lege hau ez zaie aplikatuko berau indarrean jartzerako hasita zeuden zehapen-prozedurei. Prozedura horiek hasi zirenean indarrean zeuden xedapenen arabera izapidetuko eta ebatziko dira, salbu eta arau hau mesedegarriagoa bada ustezko arau-hauslearentzat.

Bigarren xedapen iragankorra.– Erregelamendu-araudia aldi baterako aplikatzea.

Lege honetan xedatutakoa erregelamendu bidez garatzen ez den bitartean, gaur egungo araudia aplikatuko zaie turismo-enpresei eta -jarduerari, lege honetan xedatutakoaren aurka ez doan guztian.

Hirugarren xedapen iragankorra.– Lege hau indarrean jarri baino lehen abiarazitako turismo-jarduera edo -zerbitzua hasteko prozedurak.

Turismo-jarduera edo -zerbitzua hasteko prozedurak, lege hau indarrean jarri baino lehen hasi baziren izapidetzen, abiarazi ziren unean indarrean zegoen araudiaren arabera arautuko dira.

Xedapen indargabetzaile bakarra. – Arauak indargabetzea.

Honako hauek indargabeturik geratzen dira:

- 1.– 13/2016 Legea, uztailaren 28koa, Turismoarena.
- 2.– 317/1996 Dekretua, abenduaren 24koa, Turismoaren erabiltzailearen eskubideak eta betebeharrak arautzeko dena.
- 3.– Lege honetan ezarritakoaren aurka doan maila bereko edo beheragoko xedapen oro.

Azken xedapenetako lehenengoa.– Erregelamendu-garapena.

Turismo arloan eskumena duen saileko titularrari ahalmena ematen zaio lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogeiei egunera jarriko da indarrean.